



PARTAIDETZA:

GUREKIN BADA, IZANGO DA

PROIEKTU PARTE-HARTZAILE BATERAKO ZEREGINAK

Proiektu batean inplikatzeko zer esan nahi duen sentitzeko, errealitatea aldatzeko dugun ahalmenez baliatzeko, konpromisoa hartzeko eta prozesuaz gozatzeko proposamen didaktiko bat duzu hurrengo orriotan.

Egileak: **Marije Apodaka**
Gotzon Quintana
Bea Ugarte

PARTAIDETZA:

GUREKIN BADA,

IZANGO DA

AURKIBIDEA


	orrialdea
1. SARRERA	3
2. IBILBIDE DIDAKTIKOA	11
3. I. MODULUA	16
4. II. MODULUA	53
5. III. MODULUA	81
6. KONTSULTAKO MATERIALAK, DOKUMENTUAK ETA LOTURAK	115

1. SARRERA

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleei zuzentzen zaien material honetan, **giza eskubideetarako hezkuntzaren ikuspegitik diseinatutako** hainbat tresna biltzen dira, ikasleei beharrezkoak dituzten gaitasunak garatzen laguntzeko eta, gaitasun horien bidez, errealitatea aldatzeko, ongizate pertsonala hobetzeko eta pertsonarteko harremanak sustatzeko, betiere, bizikidetasun positibo bat garatzeko konpromisoa hartuta.

Ondorengo koadro honetan, giza eskubideetarako erreferentzia-esparru bat izan daitekeena proposatzen dizuegu, eta esparru horretan txertatu dugu gure proposamena, hain zuzen. Ikusiko duzue, hezkuntza-etapa guztiak hartzeko ahalegina egin da, eta prozesu bat gauzatzeko halako irimotasun edo jarraikitasun bat eskatzen du, zenbait interesguneetan, aukeratutako balioen sustapenean eta proposatutako aldagai sozioekonomikoen lanketan oinarrituta; horretarako, hiru modulu prestatu dira, eta baita horiei dagozkien entrenamendu-prozesuak, emozioen lanketa eta proiektu parte-hartzailea ere. Ondorengo orriotan dituzu horiek guztiak, xeheago garatuta.

Ez da koadro itxi bat, ez; areago, asmoen adierazpen bat da, eta koherentzia eta sistematizaziorako aldarrikapen bat, interesgune hauetatik edo beste batzuetatik gai hori lantzerakoan kontuan hartuko dena.





Planteamenduaren barnean sartzen da eskolan gertatzen diren esperientziez, bizipenez eta interakzioez baliatzea, bai eta gure hezkuntza-asmoak, indarrak eta intentzioak autoebaluatzea ere; horrez gain, **proiektu parte-hartzaile txiki baten bidez** sustatuko dugu gure burua, **batez ere, herritartasun globalaren¹ dimentsioak eta norberaren autonomiari eta ekimenari egindako ekarpenak kontuan hartuta.**

Gai horri hezkuntzaren esparrutik erantzun bat emateko modua da, ikasleei bizi-proiektuak diseinatzen, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzen, erabaki egokiak hartzen eta lankidetzaren ikuspegitik harremanak hobetzen laguntzea hartuta helburutzat. Asmo horiei begira, neska-mutiloi beren hezkuntza prozesuetan parte hartzeko modua ematea da koherenteena, hau da, hezkuntza-proiektu parte-hartzaileagoa egiten saiatzea.

Gauzak eraikitzeko eta aldatzeko eskura ditugun estrategia ahaltsuen artean, hauek ditugu: gure **gaitasun eraldatzaileaz** jabetzea, bidegabekerietan parte ez hartzeko erabakia hartzea, eta konpromisoaren alde egitea. Baina hori guztia landu egin behar da, "trebatu" egin behar da, "entrenatu", gure harremanak eta, nola ez, eskola bera ideiak alderatuz eta eragile guztien parte-hartzea sustatuz demokratizatu beharra dagoela jabetuta.

Parte hartzea eragitea da, erabakitzea, esku hartzea, iritzia ematea, iradokitzea, proposatzea, gure gogoz eta modu kontzientean prozesu ireki batean sartzea, eraldaketa eta autonomia pertsonala eta soziala sakontzeko eta horretarako aukera zabaltzeko.

- *Zuen ikastetxeko errealitatea ezagutzen duzue; horretan oinarrituta, pentsatu zer prozesu aldatu nahi zenuketen, parte-hartzaileagoa izan dadin.*

Prozesu horrek harremanak demokratizatzen ditu, eta funtzioen, erantzukizunen, esperientzien, boterearen, baliabideen eta abarren banaketa sustatzen du, gaitasun pertsonalak, sozialak eta herritartasunari dagozkionak garatzeko bidea erraztuz.

- *Beraz, beharrezkoa litzateke prozesu parte-hartzaile bat abian jartzea?*

¹ Intermon-Oxfam (2009). Hegoa/UPV-EHU (2011)

Parte-hartzearen definizio baterantz

Lehenengo, *parte-hartze* hitzaren definizio hau eskaini nahi dizuegu: *Parte Hartuz*² elkarteak dioskunez, **“pertsonen komunitate bat antolatzeko eta mobilizatzekeo prozesua da, eta, berorren bidez, eragile- edo subjektu-funtzioa hartzen dute pertsona horiek beren gain, kolektibo horren etorkizunari begira”**. Jarduera pertsonal bat da, eta taldeko prozesu bat, eta hezitzailea, berdintasunean oinarritua, sortzailea eta eraldatzailea da, edo hala izan nahi du. Egiturazko desberdintasunak eta gatazka sozialak eta politikoak zokoratzeko edo leuntzeko tresna izan daiteke partaidetza. Ildo horretan, sistematikoki eta modu jarraituan egiturazko harreman asimetrikoetan eta gizartearen eta politikaren ikuspegitik gatazkatsuak izan daitezkeenetan presente egotea da parte-hartzea; kontrajarrita dauden ideiak, balioak edo interesak adierazten dituzten eragileen eta gizarte-sektoreen arteko harremanez ari gara. Partaidetza horretan, alde batetik, beste aldeek beren boterea erabiltzea onartzen da, berori berriro banatuz eta eliteen eskuetan biltzea saihestuz; eta, bestetik, tradizioz gizartean kalte egin zaien edo baztertuta egon diren gizarte-sektoreek boterean sarbidea izatea onartzen da.

Horregatik, parte-hartzea **eraldatzailea** da, parte-hartze horren bidez kontzientziak esnarazi nahi direlako eta protagonistak aktibatu eta egoerak eta botere-harremanak aldatu nahi direlako; aldi berean, proiektuak eta gatazkak aldatu nahi ditu. Parte-hartzea **hezitzailea** da, eragileen gaitasunak eta ahalmenak gararazten dituelako. **Berdintasuna** sustatzen du, kolektiboak, sektoreak eta pertsonak parekatu nahi dituelako (ekitatez), abiapuntua kontuan hartuta. Azkenik, parte-hartzea **sortzailea** da, berriro egiten duelako, bila ibilarazten gaituelako eta agertoki desberdinetara eramango gaituzten irtenbideak bilatzen dituelako.

Parte hartzeko baldintzak

Equipo Claves (1994) taldearen proposamena erreferentziazat hartuta, bateratu beharreko hiru jarduera-ildo hitz egin dezakegu:

- **Parte hartzen jakitea;** beharrezko prestakuntzan lan egitea, antolamenduarekin lotutako aldaketak egiteko ez ezik, *maila sinbolikoan, gramatika kulturean eta harremanak eta gizarte-*


² Parte Hartuz demokrazia parte-hartzailean oinarritutako ikerketa- eta prestakuntza-talde sendoa da, eta Euskal

Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoak, Soziologia eta Hezkuntza sailetako kideek parte hartzen dute bertan

□ irakasleak, ikertzaileak, bekadunak, eta kolaboratzaileak □. Euskal Herrian, demokrazia parte-hartzailean oinarritutako prozesuak eta esperientziak sustatzen ditu, gainera, Parte Hartuz elkarteak.

interakzioak egituratzen dituen arau-sisteman trukeak eginarazteko (I. MODULUA).

- **Parte hartu ahal izatea;** parte hartzean oinarritutako diagnostikoaren eta plangintzaren ikuspegietatik eraikitzeko, erabakiak hartzeko eta horiek kudeatzeko aukera emango duten foroak sortzea (II. MODULUA).
- **Parte hartu nahi izatea;** prozesuan sartzeko motibazio gisa hartuta nahi hori (III. MODULUA).



Iturria: EQUIPO CLAVESen lanetik egokitua (1994)

Parte hartu nahi eta ahal izate horretan nahiz parte hartzen jakite horretan, oinarri-oinarrizkoa da **genero-analisiak** dakarzkigun aldagaiak kontuan hartzea, parte-hartze hori benetakoa eta berdintasunean oinarritua izan dadin; besteak beste, aldagai hauek:

- Parte-hartzaile bakoitzaren autoritate pertsonalaren ezagutza.
- Komunikazio-estilo desberdinak.

- Errespetuan oinarritutako protagonismo eraikitzailea.
- Norberaren eta besteen emozioen ezagutza.
- Neska-mutilen artean partekatutako lidergoa.

Azaldu dugunak zera iradokitzen digu: ikasgelan eta parte hartzeko gaitasuna sustatzeko esperientziak antolatzen ditugunean, alde batetik, animatuta egon behar dugu, **ikas daitekeen zerbait** delako, hobetu daitekeelako, pauso egokiak emanez gero; eta, bestetik, pazientzia handiz jokatu behar dugu, lor ditzakegun xedeak zehaztuz, parte-hartze mailak askotarikoak direlako eta, gainera, ikasgelako errutinek irakatsi eta ikasteko estilo pasiboagoa helarazi dietelako ikasleei.

Gure zeregin hezitzailean, parte hartzeko lehen maila landu dugu, eta gure ikasleak adi egon daitezen ahalegintzen gara, **entzun dezaten**, garrantzitsuena idatziz jaso dezaten edota, areago, guri begira diezaguten eta une horri ez dagokion beste ezer egin ez dezan. Batzuetan, ez zaigu erraza gertatzen maila hori lortzea ere.

Hurrengo urratsa ikasleek beren ekarpenak egitea litzateke, ikasleek esku hartzea, errespetuz eta jakiteko gogoz galdetzea, talde osoari entzuten jakitea, ikaskideen ekarpenak jasotzea, beren iritziak adierazteko aske eta eroso sentitzea, etab. Lankidetzan lortu dugula esango genuke, edota, areago, **kooperazioa**. Puntu horretan jada zeregin komunaren zentzua agertuko zaigula azpimarratu behar dugu: taldean lan egin nahi duten pertsona guztien eta bakoitzaren protagonismo eztabaidaezina eta, horrekin batera, taldeko lan hori banakakoa baino eraginkorra eta atseginagoa den susmoa.

Proposamenaren garapenak, gaiak duen interesak edo bizipenaren ahalmenak, batzuetan, **aldaketarekin konpromisoa hartzeko** eta banaka edo taldean hobetzeko aukera emango digute; neure buruarekin eta guztiekin; eskolaren barnean edo eskolatik irten eta komunitatean sartzean. Ez dauka zertan izan izugarria beti. Parte-hartze eraldatzailea lortu dugu, eta balio handiko inplikazioa eta ikaskuntza.

Adierazitako helburu hori lortzeko, arazoak edo beharrak helburu bihurtzen ikastea geldituko litzaiguke, **planifikatzen**, helburua geure egiten, prozesua bizitzen eta nola gauden eta noraino iritsi garen ebaluatzen ikastea. Plangintzan parte hartzen ariko ginatke horrela. Protagonistak ginatke, eta **erantzunkideak**; eta horrek berak ere motibazioa, inplikazioa eta konpromisoa elikatzen ditu.

Hezitzaile naizen aldetik, zer izan daiteke niretzat neketsuena, kontuan hartuta interesa dudala eta prest nagoela, baina irakasteko beste estilo batean eta zuzendaritzari gehiago lotzen zaion eskola-kultura batean errotuta nagoela?

- *Bada, egia esateko, egiten uztea, boterea banatzea, negoziatzeko, interes kontrajarriak ezagutzeko, beste behar batzuei erantzuteko eta animatzeko prest egotea, positiboa izatea. Ulertu dut, eta parte hartzen ikasi egin daitekeela ikusi dut, eta soilik parte hartuz ikasten dela parte hartzen.*

Ibilbide didaktikoaren inguruko gogoeta metodologikoak

Parte-hartzean eta elkartasunean oinarritutako proiektu bat denez, **zehaztutako helburuen eta erabilitako prozeduren artean koherentzia** izan dadin arduratuko gara; ildo horretatik, lan egiteko modua, gauzak egiteko dugun era edota parte-hartzeari eskaintzen dizkiogun espazioak eta denborak xede izango dira beren baitan prozesu didaktikoan, eta, are gehiago, proposatzen dugun lan honetan. Ikasleak, irakasleak, familiak eta beste eragileak protagonista dira, maila berean, baina zeregin eta funtzio desberdinak dituzte, ondo definituta dauden eta ezagunak diren zereginak.

Zeregin zaila da, baina unitate didaktiko hau beste aukera bat izan daiteke eskolak duen **komunitate-zentzu eraldatzailea** finkatzeko. Berrito diogu: eskolaren eta gertuko eragileen artean babes-sare bat sortzea komeni da, zentzu globalago bat lortzeko; ikastetxea ingurunera zabaltzeak ikaskuntzari ekarriko dizkion onurak sustatuko ditu horrek, eta, aldi berean, ingurunea ere aberastu egingo da eskolaren ekarpenekin, kulturaren sorgune den neurrian eta bizi-kalitatea eta inguru horretako bizilagunen prestakuntza hobetzeko proiektuen sarean halako oinarritzko topagune bat den neurrian.

Hezkuntza-elkarte osoak ezagutu behar du proiektua, baina, horretaz gain, oso interesgarria da ikastetxean gauzatzen ari diren **beste ekimenekin koordinatuta** aritzea, baliabideak optimizatzeko, sinergiak batzeko eta, zehatz aztertuz gero, antzeko helburuak dituzten proiektuen inflazioa mugatzeko.

Banakako eta taldeko **ikerketak**, proiektu batean eta irakasteko eta ikasteko prozesuan **lan egiteak** nahiz **inplikazio** parte-hartzaileak helburu argi bat dute: ikasleak izatea prozesu horren protagonista.

Garatzen den fase bakoitzean **produktuak lantzea** da beste gakoetako bat. Ekoizpen horiek biltzeak, amaierako forma emateak, bistaratzeak eta hezkuntza-elkarteko edo inguruko eragileei komunikatzeak orientatuko gaitu gure jardunean, eta ikasleen gaitasunak garatzen lagunduko digu horrek guztiak.

Une oro ikasleak **prozesuan ondo orientatuta** edukitzea eta proiektuaren une eta faseetan ondo kokatuta egotea komeni da. Saio bakoitzaren hasieran helburuak eta adierazleak aurkezteak eta jarduera eta modulu bakoitzaren amaieran proposatu eta lortu dena jasotzeak proiektu parte-hartzaile bateko etapak egiten ari garela ulertzen lagun diezaiekete ikasleei, eta, horrela, ibilbidea bera azken emaitza bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dela jabetuko dira. Etengabe lanean zertarako ari garen azpimarratu behar dugu, zergatik ari garen egiten

jarduera bat, eta prozesu globalari nola lotzen zaion hori. Horri begira, hauek dira gure iradokizunak:

- Prozesuan zehar pertsona bakoitzak egiten dituen jardueren taula bat osatzea, eta koadro batean egindako zereginak, datak, fase bakoitzean egile izan direnak eta balioespen orokorra biltzea.
- Banakako karpeta batean fitxak eta ekoizpenak biltzea.
- Egindako lanaren berri ematea ikasgelatik kanpo.

Daukagun denboraren arabera eta beti ikasleen aniztasuna kontuan hartuta, **hiru moduluko ibilbide** bat eskaintzen da (jakin - nahi - ahal), etapa bakoitzean oinarritzko bost ideia edo mugarri bilduta. Hiru atal horietako bakoitzean, hamar jarduera daude, eta, binaka, deskribatutako oinarritzko ideia horietako bakoitzarekin lotzen dira (5X2); gainera, bi zailtasun maila zabaletan daude ordenatuta. Zalantzarik gabe, ezinbestekoa izango da, proiektuari ekiten dion taldearen errealitatea kontuan hartuta, jarduera horien aukeraketa bat egitea eta egokitzea. Batez ere parte hartzen ari diren ikasleen eta irakasleen interesaren eta esku-hartze mailaren arabera, kasuren batean gerta daiteke zailagotzat jo dugun jarduera bat uste baino errazagoa iruditzea. Horrek ez du modulua garatzeko oztopo izan behar, eta, guri egoki irudituz gero edo baliabiderik edo denborarik ez badugu, modulu bateko etaparen bat ken daiteke. Egiten dugun aukera egiten dugula, garrantzitsuena prozesu-izaera horri eustea izango da.

Modulu bakoitzak aipatzen ari garen jarduera horiek ditu, entrenamendu izenaren barnean bildu eta zirkulu baten bidez sinbolizatu ditugunak, hain zuzen. Baina oinarri-oinarritzkoa da modulu bakoitzean, **entrenamenduari (E)** dagokion ibilbidearekin batera, beste bi ibilbide ere egitea: **lan emozionala (LE)**, eta **proiektu parte-hartzaile (PP)** baten diseinua eta abian jartzea.

Komunikazioarekin, dinamismoarekin, parte-hartzearekin eta emozioen adierazpenarekin eta lanketarekin lotutako jarduera guztiak ez ezabatzea iradokitzen dizuegu, Giza Eskubideetarako Hezkuntzako lan-prozesua, batez ere jarrerekin lotuta dagoena, eduki kontzeptualez gainkargatzea adieraziko bailuke horrek. Balioekin busti nahi badugu ezaguera eta balio horiek jokabideetan eta jarrerazko joeretan isla daitezen nahi badugu, **jarrera horiek lantzeko entrenamendua** egin behar dugu, horiek gelan garatzeko estrategietara joz, nahiz eta, kasuren batean, egunerokotik aldentzen direlako konplikatuak iruditu edo gure taldearen kontrola galtzen dugula iruditu.

Motibazioan oinarritutako ikaskuntza baterako giro soziala sortzeko **taldea osatzeak duen garrantziaz** ari gara, taldearen kohesioaz, taldearen identitateaz. Horretarako, lankidetzan oinarritutako dinamikak eta estrategiak hartuko ditugu ardatz, besteak beste, jolasak, elkarrizketa, talde txikietan oinarritutako lana, kasuen azterketa, etab.

Proposatutako jardueren aukerak taldea hainbat esparrutan murgilarazi nahi du: autokontrolaren dinamikan, elkarrenganako errespetuan, besteen sentimendu eta beharren bizipen partekatuan, pertsona bakoitzaren eta guztien balioaren ezagutzan, eta proiektuei ekiteko eta jarraitzeko inplikazioan, indarrean eta gogoan. **Jarrerren esparruko lan** horixe proposatzen da, eta hautatutako aukera metodologikoarekin lotuta dago hori zuzenean; lankidetzako uneak eta taldean alderatzeko eta eztabaidatzeko uneak lehenetsiko lituzke metodologia horrek. Finean, metodologia guztiek ez dute berdin laguntzen proposatutako helburuak garatzen eta lortzen.

Pertsona bakoitzak taldeari bere ekarpena egin diezaion, materialak bere koadernoan ordena ditzan eta pertsona bakoitzaren ikaskuntza autonomia izatea errealagoa izan dadin, interesgarria litzateke jardueretan tarte bat uztea, **gogoeta pertsonalerako** eta bakoitzak bere ondorioak ateratzeko eta biltzeko. Bide horretatik, bakoitzak bere materiala izango du, bai autoebaluatzeko eta bai proiektuaren jarraipena eta garapenaren ebaluazioa egiteko; oinarrizko alderdia da hori ahalduntze-prozesu batean, talde-lanean gerta baitaiteke norbaitek bere erantzukizunak besteen bizkar uztea.










Pixkana adin horietako ikasleengan markatuta ageri diren sexu-estereotipoak hausteko, lantaldeko **rolen eta funtzioen banaketari** erreparatuko diogu, eta jarduera bakoitzean erantzukizunak txandaka daitezen ahaleginduko gara; gainera, norberaren taldeak eta gainerakoek ateratako ondorioak ezagut eta idatziz jaso ditzaten saiatu behar dugu.


Ebaluazioa prozesu horren zati da, eta uste dugu autoebaluaziora eta ebaluazio partekatura bideratu behar dela; horretarako, proposatzen diren ebaluazio-irizpideetara eta lorpen-adierazleetara egokitutako tresnak erabiliko dira.

Ondoren adierazten dugun ibilbidea, jardueri dagokienez, maximoetan oinarritutako proposamen bat da, eta, beraz, beharrezkoa izango da **egokitzea**, moztea edo hobetzea, ikasleen, irakasleen edo sortzen den dinamikaren arabera eta ikasgelatik haratagoko sostenguaren arabera.

2. IBILBIDE DIDAKTIKOA

Lehen ere esan dugunez, jarduerak sekuentzia logiko baten arabera daude ordenatuta, berorren bidez ibilbide didaktikoan aurrera egiteko. Hiru modulu desberdin dira, eta, horietako bakoitzean, parte hartzeko entrenamendu-jarduerak (E), lan emozionala (LE) lantzeko jarduerak eta, azkenik, proiektu parte-hartzaile bat (PP) abian jartzeko jarduerak proposatzen dira. Ondoren, grafikoki adierazita duzue hori guztia, ibilbide horren prozesu-izaera azpimarratuz, betiere.

	I. modula Badakit parte hartzten: ezaguera	II. modula Parte har dezaket: ahalduntzea	III. modula Parte hartu nahi dut: konpromisoa
Entrenamendua (E)			
Lan emozionala (LE)			
Proiektu parte- hartzailea (PP)			



IBILBIDEAREN HELBURUAK

1. Unitate didaktiko hau DBHko curriculumaren testuinguruan kokatzea, oinarrizko gaitasunen garapenerako zati den neurrian.
2. Harremanez eta taldeaz gozatzeko giro egokia sortzea, errespetua eta umorea hartuta abiapuntutzat.
3. Ikasleen esku-hartzea sustatzea, ikasteko baldintzak eta ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dituen harremanak hobetzeko.
4. Parte-hartzearen bidez, taldeko proiektu bateko faseak antolatzea eta garatzea, lankidetzak eraginkorrago egiten gaituela eta elkartasun handiagoz jokatzeko irakasten digula kontuan hartuta.
5. Neska-mutilen interesek eta beharrek inguru hurbilean garapen-aukera berak eta tratua izan ditzaten saiatzeko, eta horiek defendatzeko, aldarrikatzeko eta praktikatzeko konpromisoa hartzea, egunerokotasunetik eta guk esku hartzen dugun tokitik.
6. Parte hartzeko benetako aukerak eta jarduera eta harremanetarako esparru berriak aurkitzeko, ingurune seguruak eta azterketarako eta iritziak emateko uneak eskaintzea, araua, errutina, pasibotasuna edota inposizioa kritikatzeko bideak zabalduz.
7. Curriculum-arloetan lankidetzak txertatzea.







Ebaluazio-irizpideak




- Curriculumean duen eragina.
- Lankidetzak irakasle taldean.
- Esku hartzen duten arloak.
- Segurtasun-sentimendua taldean (irakasleak edota ikasgela).
- Prestakuntza/berrikuntza hartutako konpromisoak.
- Beste arlo batzuetara hedatutako aldaketa metodologikoak.
- Errespetua eta umorea harremanetan.
- Adostasuna erabakiak hartzerakoan.
- Hezkuntzako beste eragile batzuei irekitzea.
- Genero-azterketa.

Lorpen-adierazleak

- Sekuentzia didaktikoa *modu koordinatu* batean gauzatu ahal izateko, irakasle talde bat osatu da.
- Proiektuan parte hartzeko proposamenaren helburuak, igurikimenak eta gako metodologikoak partekatu eta negoziatu dira (bai irakasleen koordinazio-taldean eta bai ikasgelan).
- Interesa eta motibazioa indartu dira, pasibotasunetik eta inhibiziotik inplikaziora eta parte-hartzerara igarotzeko (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean).
- Lankidetzako dinamiketako eta egituretako elementurik garrantzitsuenak landu dira, eta prozesuaren ondorioak atera dira.
- Komunikatzeko eta parte hartzeko gune bihurtu da ikasgela, eta ikastetxeko bizikidetzak-arauek ezagutzari, lanketari eta aplikazioari ekarpenak egin zaizkio bertatik.
- Kideen arteko ezaguera eta konfiantza indartu dira (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean).
- Jarduerak garatzerakoan, kontuan hartu dira genero-analisiak eskaintzen dizkigun jarraibideak.
- Talde batek ondo lan egin dezan, adostutako arauak izan behar dituela ikusi da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean).
- Erabakiak hartzeko prozesuetan, ados jartzeko ahalegina egin da (bai irakasleen artean eta bai ikasleena artean).
- Guztien protagonismo orekatuaren alde egin da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean).
- Jarrera eta jokabide eraikitzaileak, egokiak eta erabilgarriak indartu dira (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean).


	<ul style="list-style-type: none"> ● Zereginen eta arduren banaketa orekatua izan da (bai irakasleen artean eta bai ikasleen artean). ● Isilpekotasuna errespetatu da, batez ere ikasgelako lan emozionalean. ● Ikasgelan jardueren garapenaz arduratu behar zuen irakasle bakoitza seguru senti dadin, kontu handia izan du taldeak, horretarako beharrezkoa zuen informazioa eta laguntza emanaz. ● Ikasgelan taldea osatzeko eta lankidetzan aritzeko irizpideak definitu dira aurrez, eta aniztasuna balioetsi da. ● Sekuentzia didaktikoa arlo batean baino gehiagotan gauzatu da. ● Egindako lanak eragina izan du ikastetxean, prestakuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren esparruan landu beharreko gaiak hautematerakoan. ● Jarduera batzuek aukera eman dute ikasgelatik kanpoko hezkuntza-eragileekin komunikatzeko (famiIiarekin, GKEekin, auzoarekin...) ● Sekuentzia didaktikoak curriculumean zer leku beteko duen zehaztu da.
--	--

Ibilbideko jardueren laburpen-koadroa			
Modulua		Jarduerak	Tresnak eta baliabideak
I. modulua BADAKIT PARTE HARTZEN: EZAGUERA	Entrenamendua (E) 	Oinarrizkoa I.1 Taldea egiten I.2 Arauak edonon! I.3. Parte-hartze kontzeptua I.4 Inkesta: gure inguru parte-hartzailea I.5 Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.	Tresnak: I.2 Arauak edonon! I.3. Eta..., zure iritziz, zer da parte hartzea? I.4.1 Inkestarako jarraibideak I.4.2 Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta I.4.3 Inkesten analisia I.5. Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.
		Sakontzekoa I.6 Talde osasuntsua / talde gaixoa I.7 Taldean arauak proposatzen I.8 Parte hartzeko elementuak I.9 Ikastetxeko parte-hartze egoerari buruzko diagnostikoa: parte hartzen dugu benetan? I.10 Adostasuna bozketarik gabe	Tresnak: I.7 Taldean arauak proposatzen I.9.1: Eskolako mapa I.9.2: Eskolaren erabilera parte-hartzaileari buruzko gogoeta I.10 Adostasuna bozketarik gabe Baliabideak: I.6.1: Lantaldea I.6.2: Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak I.6.3. Taldearen lankidetzta-egitura vs taldearen egitura lehiakorra I.9: Elkarriketarako eta behaketarako teknika
	Lan emozionala (LE) Beldurra I 	LE/I.1: Beldur gara?	Tresnak: LE/I.1: Hori beldurra! Baliabideak: LE/i.1: Adimen emozionala
	Proiektu parte-hartzailea I (PP) 	PP/I.1: Egin amets! Gure proiektua	Tresnak: PP/I.1: Proiektu parte-hartzailea Baliabideak: PPI.1: Prozesu parte-hartzaile baterako metodologia
II. modulua PARTE HAR DEZAKET: :AHALDUNTZEA	Entrenamendua (E) 	Oinarrizkoa II.1 Lesbofobiari, homofobiari eta transfobiari buruzko azterketa II.2 Zertan da gure autoestimua? II.3 Nork lagundu didate erabakiak hartzen? II.4 Internet: intimitaterako mundua? II.5 Ikasgelako batzarra	Tresnak: II.2: Zertan da gure autoestimua? II.3: Nork lagundu didate erabakiak hartzen? II.5: Ikasgelako batzarra
		Sakontzekoa II.6 Mundu hobe baten aldeko manifestua II.7 Nik egin dezaket..., bizi naizelako eta pertsona naizelako II.8 Botere-abusua eta diskriminazioa II.9 Intimitaterako eskubidea II.10 World Cafe foroa	Tresnak: II.9.1: Kasuen azterketa II.9.2: Estilo asertiboa Baliabideak: II.7: Ahalduntzea II.9: Intimitaterako eskubidea
	Lan emozionala Beldurra II (TE) 	LE/II.1: Beldur berak ditugu?	Tresnak: LE/II.1: Beldurraren horma-irudia Baliabideak: http://www.radialistas.net/clip.php?id=1700036 (beldurrari beldurra)
	Proiektu parte-hartzailea II(PP) 	PP/II.1: Zer aukera ditu gure ideiak?	Tresnak: PP/II.1.1 PP/II.1.2

Ibilbideko jardueren laburpen-koadroa			
Modulua		Jarduerak	Tresnak eta baliabideak
III. modulua PARTE HARTU NAHI DUT: KONPRMISOA	Entrenamendua (E) 	Oinarrizkoa III.1: Begiradak elkarri III.2: Labezomorro bat eta ni: zer-nolako harremanak izan ditzakegu? III.3: Zer behar dut taldearengandik? III.4: Barre-terapia III.5: Taldeko ekoizpena: kalidozikloa	Tresnak: III.2: Bioaniztasuna III.3: Zer behar dut taldearengandik? Baliabideak: III.3: Talderako musika III.5: Kalidozikloen txantiloak
		Sakontzekoa III.6: Gustatzen zait eta ez zait gustatzen niri begiratzea III.7: Sarrera mugatua? III.8: Mendekoa eta independentea III.9: Nik eman..., nik eskatu III.10: Bidezkoa dena eta ez dena: organoak ematea	Tresnak: III.7: Stop, sarrera mugatua! III.10: Bidezkoa dena eta ez dena
	Lan emozionala (LE) Beldurra III 	LE/III.1: Filmetarako moduko gidoia LE/III.2: Beldurrari abestuko diogu	Tresnak: LE/III.1: Filmetarako moduko gidoia LE/III.2: Beldurraren inguruko abestiak
Proiektu parte-hartzailea III (PP) 	PP/III.1: Ametsetatik errealitatera	Tresnak: PP/III.1: Proiektu parte-hartzailea PP/III.2: Ametsen saskia PP/III.3: Nondik hasiko gara? PP/III.4: Nola eta norekin egingo dugu? PP/III.5: Zer moduz joan da gure proiektua?	

3. I. MODULUA

PARTAIDETZA: gurekin bada, izango da



HELBURUAK

- Proiektu batean parte hartzeko oinarrizko alderdiak partekatzea eta negoziatzea.
- Talde bateko kide izatea balioestea eta horretaz gozatzea.
- Bizikidetzara-arauak lantzeko konpromisoa hartzea eta autoerregulazioa balioestea.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko parte-hartzeari buruzko diagnostiko bat egitea eta aztertzea, sexu eta genero aldagaiak kontuan hartuta.
- Genero-azterketa kontuan izatea, proiektua garatzeko funtsezko eta esangura handiko irizpidea den heinean.
- Erabakiak elkarrizketan eta adostasunean oinarrituta hartzeko ohitura lantzea.
- Beldurraren botere sinboliko bikoitza identifikatzea, alerta egoteko eta defentsarako mekanismoa nahiz ekimen berrietarako oztopo izan daitekeela kontuan hartuta.
- Proiektu baten diseinua abiaraztea, berori osatzen duten faseak kontuan hartuta.

OINARRIZKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> ● Taldekide sentimendua ● Adostasuna lortzeko erabilitako prozeduren egokitasuna ● Partaidetza aktiboaren ezaugarrien ezagutza ● Taldekideen arteko errespetua ● Taldekideekin konpromisoa ● Proiektuan genero-azterketa ● Bizikidetzara-arauak lantzeko konpromisoa 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasle bakoitzak ikaskide bakoitzaren zerbait berri ezagutu du. ● Dagoeneko ikaslea taldekoa sentitzen da. ● Umorea beti errespetuz erabili du. ● Orokorrean gustura sentitu da. ● Sentimenduak adierazi ditu. ● Barneraketa-jardueraren bitartean isiltasuna eta giro erlaxatua errespetatu ditu. ● Jarduerak egiteko emandako jarraibideak beti bete ditu. ● Nork bere buruari jar diezazkiokeen arauak eta inposatutakoak direnak bereizi ditu. ● Ondorio positiboak dituzten arauak identifikatu ditu ● Eztabaidetan askatasuna erantzukizunik gabe erabiltzeak dituen muga nagusiak laburtu ditu. ● Badaki azaltzen zer den partaidetza aktiboa eta haren tipologiak. ● Balioetsi ditu norberaren iritziak eta besteenak.

	<ul style="list-style-type: none"> ● Emandako iritzi guztiak laburtu ditu. ● Beharrak eta proposamenak, generoaren, taldearen eta adinaren arabera aztertu ditu. ● Jolasean sormenez parte hartu du, eta moduluan landutako ideien eta sinbolikoa denaren artean antzekotasunak ezarri ditu. ● Adostasunak harremanen hobekuntzari ematen dionari buruz argudioak eman ditu.
SAKONTZEKOA	
Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> ● Taldekide izateak dakarren asebetetzea ● Adostasuna lortzeko erabilitako prozeduren egokitasuna ● Partaidetza aktiboaren ezaugarrien ezagutza ● Taldekideen arteko errespetua ● Taldekideekiko konpromisoa ● Bizikidetzaren arauak lantzeko konpromisoa ● Beldurraren ezaugarrien ezagutza ● Proiektu baten osagarrien ezagutza ● Erabakitzeko adostasuna 	<ul style="list-style-type: none"> ● Umorea beti errespetuz erabili du. ● Orokorrean, gustura sentitu da. ● Jarduerak egiteko emandako jarraibideak beti bete ditu. ● Taldea ondo ibil dadin elementu positiboak edo oztupoak izan daitezkeenak identifikatzen ditu ● Taldekideen artean lanaren, rolen eta protagonismoaren banaketa parekidea izan da. ● Arauak jartzean parte hartu du ● Banakako eskubideak eta taldekoak defendatu eta bultzatu egiten ditu, betebeharrekin konpromisoa kontuan izanik. ● Talde-lanean parte hartu du eta erantzukizunen bat hartu du ● "Partaidetza"ren osagaiak ezagutzen ditu eta badaki definitzen ● Elkarrizketa era egokian egiteko emandako jarraibideak kontuan izan ditu. <ul style="list-style-type: none"> ● Adostasunak harremanen hobekuntzari ematen dionari buruz argudioak eman ditu ● Beldurraren fase fisiologikoa eta fase psiko-soziala bereizten ditu ● Barneraketa-jarduerak irauten duen bitartean isiltasuna eta giro erlaxatua errespetatu ditu ● Proiektuaren faseak bereizten ditu ● Talde bateko kidea da eta aukeratutako gaiarekin gustura dago ● Arauak taldekideekin landu ditu, adostasunean oinarrituta

I. MODULUA. BADAKIT PARTE HARTZEN: EZAGUERA. JARDUEREN KOADROA ENTRENAMENDUA		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
Oinarritzkoa	I.1 Taldea egiten	
	I.2 Arauak edonon!	Tresnak: I.2 Arauak edonon!
	I.3. Parte-hartze kontzeptua	Tresnak: I.3. Eta..., zure iritziz, zer da parte hartzea?
	I.4 Inkesta: gure inguru parte-hartzailea	Tresnak: I.4.1 Inkestarako jarraibideak I.4.2 Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta I.4.3 Inkesten analisia
	I.5 Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.	Tresnak: I.5. Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.
Sakontzekoa	I.6 Talde osasuntsua / talde gaixoa	Baliabideak: I.6.1: Lantaldea I.6.2: Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak I.6.3. Taldearen lankidetzeta-egitura vs taldearen egitura lehiakorra
	I.7 Taldean arauak proposatzen	Tresnak: I.7 Taldean arauak proposatzen
	I.8 Parte hartzeko elementuak	
	I.9 Ikastetxeko parte-hartze egoerari buruzko diagnostikoa: parte hartzen dugu benetan?	Tresnak: I.9.1: Eskolako mapa I.9.2: Eskolaren erabilera parte-hartzaileari buruzko gogoeta Baliabideak: I.9: Elkarrizketarako eta behaketarako teknika
	I.10 Adostasuna bozketarik gabe	Tresnak: I.10 Adostasuna bozketarik gabe
I. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: LE/LAN EMOZIONALA+Beldurra I		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak)
LE/I.1: Beldur gara?		Tresnak: LE/I.1: Hori beldurra!
I. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: PP/PROIEKTU PARTE-HARTZAILEA I. Proiektu baten lehen urratsa		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
PP/I.1: Egin amets! Gure proiektua		Tresnak: PP/I.1: Proiektu parte-hartzailea Baliabideak: PPI.1: Prozesu parte-hartzaile baterako metodologia




I.1 zk.	Taldea egiten
Deskribapena	Jolas honen bitartez, elkarrekin jolas egingo dugu, elkar hobeto ezagutzeko eta taldean konfiantza-giroa sortzeko.
Teknika	Konfiantza lantzeko jolasa
Materialak	----
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Hasi baino lehen, jarraibideak ondo ulertu dituztela eta erantzunkidetasunari esker proposatutako erronka lortuko dugula bermatuko dugu: konfiantza eta lan egiteko giro egokia sortuko ditugu.- Ezaguna ez den ezaugarriren bat denon aurrean adieraztea sustatuko dugu, taldeko eragin-trukea eta elkarrekikotasunaren zentzua indartzeko.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">-- Biribilean jarrita, taldekide guztiek eskutik helduko diote elkarri. Zenbakiak ipiniko dituzte: 1-2-3-1-2-3-1-2-3-1... Dinamizatzaileak (irakaslea edo ikaskideetako bat izan daitezke) 1 esaten duenean, 1 zenbakia duten guztiek gorputza aurrerantz botako dute, oinak mugitu gabe; 2 zenbakia dutenek eskutik tinko helduko diete, eror edo mugi ez daitezen. Zenbakia aldatzen denean, alderantziz egingo dute.- Pertsonaren bat tokitik mugitzen bada, inork ezagutzen ez duen gauza pertsonal bat kontatuko du (ez dauka kontatu nahi ez duen zerbait kontatu beharrik), esate baterako: zergatik jarri zioten izen hori, txikitan beste nonbaiten bizi izan ote zen, atzerrian senideren bat duen, janariren bat asko gustatzen zaion eta behin eta berriro jaten duen... Norbaitek tokitik ez mugitzea lortzen badu, jolasa amaituko da, eta bizitzan gertatu zaion gertaera barregarri bat kontatzeko eskatuko diogu.- Jarduera amaitzen denean, irakasleak, egoki iruditzen zaizkion heterogeneotasun- edo inklusio-irizpideak kontuan hartuta aurrez pentsatu dituen oinarritzko lan-taldeak proposatuko ditu.	



I.2 zk.	Arauk edonon!
Deskribapena	Gure inguruko arau-kopuru handia hauteman nahi dugu, horien beharrari eta onurei buruz gogoeta egiteko eta autoerregulaziorako gaitasuna garatzen joateko
Teknika	<ul style="list-style-type: none">- Collagea- Elkarlana
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- Paper zuria eta arkatz markatzaileak irudiak egiteko- Collagea egiteko argazkiak eta materialak- 1.2 tresnaren 4 kopia lau pertsonako talde bakoitzeko
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Inguruko hesiak eta babesgarriak (arauak) sinbolikoki hautematea, eta collage batean jasotzea.- Arauen beharra.- Parte-hartzearen eta arauen inguruko elkarrizketaren garrantzia.- Autoerregulazioa da garapen moralaren xedea eta erronka eskolan, diziplinaren eta elkarbizitza positiboaren gako delako kontuan hartuta.- Hautatutako jokabideen ondorioen aurreko erantzukizuna.- Errefortzua eta saria arauak errespetatzen direnean.- Ez dugu ahaztu behar debatean adierazitako askatasunaren erabilera arduragabearen muga nagusiak laburtzeaz.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Zoruan, paperean, bi pertsonen irudiak marraztuko ditugu, jarrera desberdinean.- Irudi horien barruko aldean collage bat egingo dugu hesiak, babesgarriak, barandak, segurtasun- eta kontrol-elementuak, debekuak, mugak, hormak, trafiko-seinaleak, arriskuak, etab. erakusten dituzten argazkiekin, hitzekin, marrazkiekin, etab.- Lau pertsonako taldeetan bilduta, pertsona bakoitzak bere fitxa izango duen arren, bi txandatan lan egingo dute, binaka. A zatia beteko dute eta beste biei pasako diete, fitxaren B zatia bete dezaten. Laurak batera, arau horiek betetzen ez ditugunean sortzen diren ondorio negatiboak eta positiboak bilatuko dituzte, eta amaitu gabeko esaldi hau osatuko dute: NAHI DUDANA EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE, BAINA...- Talde handian, collageak aztertuko ditugu eta "BAINA" guztiak kopiatuko ditugu, elkarbizitzarako beharrezko hesiei eta babesei buruzko ideiak jasotzeko. Askatasunaren erabilera arduragabeak dituen mugak dira.- Ondoren, helburuen funtsezko ideiei eta ebaluazio-adierazleei buruzko ondorioak aterako ditugu.	



I.2 tresna. Arauak edonon!

A	B	EKINTZA horien EMAITZA POSITIBOAK ETA NEGATIBOAK
Nire buruari  jartzen diodan arau bat:	Kasu hauetan ez dut beteko:	
Nahitaez bete behar dudan arau bat 	Kasu hauetan ez dut beteko:	
NAHI DUDAN GUZTIA EGIN NAHI NUKE, baina...		
DEBATEAREN ONDORIOAK:		



I.3 zk.	Parte-hartze kontzeptua
Deskribapena	Guztion gogoetaren bitartez eta talde txikietan egindako debatearen bidez pertsona guztiek parte-hartzeari buruz duten iritzia ezagutuko dugu, eta kontzeptu hori ikasleek egindako ekarpenekin eta irakasleen azalpen teorikoekin eraikiko dugu.
Teknika	Philips 6/6
Materialak	I.3 tresna: Eta..., zure iritziz, zer da parte hartzea?
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Genero-rolak zaindu behar dira: neskak beti idazkariak izatea eta mutilak bozeramaileak izatea saihestu behar dugu. Honako hauek landu behar dira gutxika: rolen aldaketaren gaia, bileretako giroa segurtasuna lortzeko eta ideiak eta iritzia trukatzeko autokontrola izatea.- Funtsezkoa da pertsona guztiek beren ideiak adierazteko aukera izatea, minutu bakoitzak balio du, eta pertsona bakoitzak denbora hori arduraz erabiltzeko erantzukizuna du.- Taldeetan ez dugu inoiz neska bat bakarrik jarriko, bi neska edo gehiago egotea bultzatuko dugu, hala neskak baztertzeko dituzten mutilen jarrerak neutralizatzeko, eta haien protagonismoa eta hitz egiteko joera kontrolatzeko.- Irakasleak erreferentziatzen dituzten parte-hartzearen definizioak arlo teorikoan jasota daude.- Azken laburpen idatzi bat egiten saiatuko gara, eta talde handian adierazitako ideia batzuk jasoko ditugu laburpen horretan.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Taldea talde txikiagoetan zatituko dugu; sei kideko taldeak izango dira gehienez ere, eta sei minutu izango dituzte irakasleak I.3 tresnan egindako galdera bati eman beharreko erantzuna eztabaidatzeko. Talde osoaren parte-hartze azkarra sustatu nahi da, denbora gutxian iritzi asko lortu nahi dira, eta planteatutako galderen aurrean desadostasunak dauden egiaztatu nahi da.- Taldeak bereiziko dira, tresnan agertzen diren alderdiei buruz eztabaidatzeko. Ikasle bakoitzak bere iritzia adieraziko du minutu batean. Debatea hasi aurretik, idazkari bat eta bozeramailea izendatuko dira, guztion onespenerekin (guztion artean hartutako erabakia da).- Idazkariak guztion ekarpenak jasoko ditu eta, azkeneko minutuan, taldearen iritzia laburtuko du. Bozeramaileak taldearen emaitzak adieraziko ditu bukaeran talde handiaren aurrean (edo batzarrean), eta gainerako talde txikiek emandako iritziekin erkatu ondoren, moderatzaile batek laburtuko ditu eta arbelean idatziko ditu.- Egindako lanaren laburpena idatziz jasoko da.	



I.3 tresna. Eta..., zure iritziz, zer da parte hartzea?

Elkarte batean, eskolan, lagun taldean, etab. parte hartzea zer den azaltzeko **iritzi** asko dago. Batzuen ustez, **egotea** nahikoa da parte hartzeko. Beste batzuen ustez, berriz, gauden lekuan gaudela, egon behar duen **jendeak** egon behar du. Beste batzuen iritziz, aldiz, ez da horrela, eta garrantzitsuena **ordezkariak** izatea dela esaten dute (legebiltzarrean edo eskolako ordezkariaren kasuan, adibidez). Baina, bestalde, **ideiarik** edo **helbururik** gabe, parte hartzeak zentzurik ez duela ere esaten da.

Zuk zer uste duzu? Zerbaitetan parte hartzera gonbidatzen zaituztenean (jolas batean, kirol batean, talde batean, lagun talde batean...), zer egin dezakezula edo egin behar duzula pentsatzen duzu?, nor egotea espero duzu, eta nor ez egotea?, zergatik gonbidatuko zaituzte?, ...

PARTE HARTZEN DUGU:

...PERTSONEKIN	...INTERES eta BEHAR batzuekin	...HELBURUAK lortzeko



I.4 zk.	<i>Inkesta: gure inguru parte-hartzailea</i>
Deskribapena	Eskola-elkarteko pertsonak ikastetxeko parte-hartzeari buruz duten iritzia ezagutzen saiatuko gara, eta, inkesta baten bitartez, parte-hartze hori hobetzeko proposamenak jasoko ditugu. Ikasleek entzute aktiboa eta askotariko iritzia jasotzeko eta tratatzeko zeregina landuko dituzte.
Teknika	Inkesta
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- I.4.1 tresna. Inkestarako jarraibideak- I.4.2 tresna. Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta- I.4.3 tresna. Inkesten analisia- Aukerako tresna: http://www.encuestafacil.com/. Eta http://es.surveymonkey.com/ Web-orri horietan inkesta egiteko ereduak dituzue.
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Inkesta metodo ez-esperimental da, eta psikologia sozialean erabiltzen da pertsonen lagin baten jarrerak, iritzia edo esperientziak ezagutzeko, eta, horretarako, galdeketa erabiltzen da. Abantaila asko ditu, egiteko erraza baita, baina desabantailak ere baditu, esate baterako, pertsonak edo egoerak erantzunean duten eragina edo erantzun duen pertsonak komeni zaion iritzia ematea, benetan pentsatzen duena esan gabe. Dena den, teknika egokia da ikasleek besteen iritzia entzuten ikas dezaten, iritzi horiek bilatzen saia daitezten, taldeko lana antolatzen ikas dezaten eta hurbileko ingurua hobeto ezagut dezaten.- Inkesta egiteko hautatutako pertsonak ikastetxeko kolektibo guztiak ordezkatu behar dituzte, adina eta sexua barne (ikasleak, irakasleak, familiak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak).- Beharrak eta proposamenak jasotzen saiatuko gara, ikastetxeko pertsona eta talde guztien parte-hartzea hobetzeko.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- 3 lagunez osatutako talde txikiak egingo dira (inoiz ez neska bat bakarrik) inkesta, laburpena eta batzarreko bateratze-lana egiteko.- Inkestaren dinamika zehatz-mehatz azalduko diegu, eta 1.4.1 <i>Inkestarako jarraibideak</i> tresna landuko da.- I.4.2 <i>Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta</i> tresna erabiliko dute egokitu zaien taldeko (ikasleak, irakasleak, familiak, jangelako langileak eta administrazioko langileak) 3/4 pertsonari galdetzeko.- Iritziak bildu ondoren, laburpen bat egingo dute eta talde handiaren aurrean edo batzarrean aurkeztuko dute; horretarako, I.4.3 tresna erabiliko dute.	



I.4.1 tresna. Inkestarako jarraibideak

Iritzia eskatuko diegun pertsonengana hurbildu aurretik, honako hauek egingo ditugu:

1. Nori galdetuko diogun eta pertsona horiek nola aurkituko ditugun zehaztuko dugu.
2. Inkesta eta berorren helburuak ondo ezagutu behar ditugu (I.4.2 tresna)
3. Taldeko pertsona bakoitzaren zereginak banatuko ditugu.
4. Lan guztia nola egingo dugun erabakiko dugu.
5. Beharrezko material guztiak prestatuko ditugu: inkestaren fotokopia, bolaluma...

Inkesta egiten dugun bitartean:

1. Galdera egingo diogun pertsonarengana jendetasunez hurbilduko gara, eta gure burua aurkeztuko diogu.
2. Berarengana hurbiltzeko arrazoia azalduko diogu, eta inkestari une horretan erantzun diezaiokeen galdetuko diogu; bestela, beste uneren baterako egingo dugu hitzordua.
3. Lanaren helburua eta inkestaren dinamika erakutsiko dizkiogu (galdera motak, eskainiko diogun denbora, izango duen erabilpena, etab.).
4. Interesa agertuko dugu inkesta egingo diogun pertsonaren iritziaren aurrean.
5. Galderekin hasiko gara: argi irakurriko ditugu, arretaz entzungo ditugu erantzunak, inkesta egiten diogun pertsonari begiratuko diogu eta irribarre egingo diogu, esaten duena jasoko dugu, ulertzen edo ezagutzen ez duguna galdetuko diogu...
6. Amaitutakoan, eskerrak emango dizkiogu eskainitako denboragatik eta emandako iritziengatik, hurrengo baterako hitzordua eskatuko diogu emaitza orokorrak emateko, eta adeitasunez agurtuko dugu.

Inkesta egin ondoren:

1. I.4.3 tresnarekin, emaitzak landuko ditugu.
2. Emaitzak eskuratutakoan, inkesta egin diegun pertsonari emaitzen berri emango duen agiri bat helaraziko diegu, eta parte hartu izana eskertuko diegu.



I.4.2 tresna. Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta

Gizon batek erantzuten du:

Emakume batek erantzuten du:

1. Zure ustez, ikastetxe honetan parte hartzeko aukera berdinak dituzte guztiek?
(jardueretan, erabakietan, debateetan...)
 - a. Bai
 - b. Ez
2. Nork parte hartzen du gehiago ikastetxeko jardueretan?
 - a. Emakumeek edo gizonak?
 - b. Zergatik?
3. Gehiago parte hartu behar dugula uste duzu?
 - a. Bai...
 - i. Nork?...
 - ii. Zertarako?
 - b. Ez...
 - i. Zergatik?...
4. Zure ustez, zerbait hobetu behar da parte-hartzea sustatzeko?
 - a. Bai...
 - i. Zer?
 - b. Ez...
5. Zerbaitetan parte hartu nahiko zenuke?
 - a. Bai
 - i. Zertan?
 - b. Ez
 - i. Zergatik?

I.4.3 tresna. Inkesten analisia

Taldean, tresna hau erabil dezakezue lortutako erantzunak laburtzeko eta aztertzeko

Erantzun duten gizonen kopurua

Erantzun duten emakumeen kopurua

Ikastetxe honetan guztiak berdin parte har dezaketela
uste duten emakumeen kopurua

Ikastetxe honetan guztiak ezin dutela berdin parte hartu
uste duten emakumeen kopurua

Ikastetxe honetan guztiak berdin parte har dezaketela
uste duten gizonen kopurua

Ikastetxe honetan guztiak ezin dutela berdin parte hartu
uste duten gizonen kopurua

Emakumeek gehiago parte hartzen dutela uste duten
pertsonek kopurua

Gizonek gehiago parte hartzen dutela uste duten
pertsonek kopurua

Emakumeek parte hartzen duten esparruak

Gizonek parte hartzen duten esparruak

Gehiago parte hartu behar dela uste duten pertsonen
kopurua

Gehiago parte hartu behar ez dela uste duten pertsonen
kopurua

Gehiago parte hartu behar duten pertsonak edo taldeak

Parte-hartzea areagotu behar den esparruak

Inkestan parte hartu duten pertsonen parte-hartzea
hobetzeko egindako proposamenak

Parte hartu nahiko luketen esparruak

Adierazi inkestaren 5 ondorio garrantzitsu:

1.

2.

3.

4.

5.

Adierazi parte-hartzea hobetzeko taldean sortutako 5 proposamen:

1.

2.

3.

4.

5.



I.5 zk.	Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.
Deskribapena	Jolas honetan, honako hau landu nahi dugu: aginduak betetzeak zer dakarren, hainbat norabidetan mugitzea, talde batean zentzu eta helburu berberak izatea, edo modu aleatorioan edo irizpide desberdinekin mugitzea. Langintza horretatik ondorioak aterako ditugu, elkarrizketa eta adostasuna aldarrikatzeko.
Teknika	Jolasa: robotak izango gara, kontrolatzen gaituzten pertsonen agindura
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- I.5 tresna: aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.- Aginduen taula eta gertatutakoaren analisisia.- Koloretako kartoi meheen zatietan aginduak idatziko ditugu: horia - etzan lurrean / urdina - jarri hormaren kontra eta besoak gurutzatuta / berdea: erdira - bizkarrak bizkarren kontra.
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Arauek egin beharreko mugimenduak, hartu beharreko erabakiak eta harremanak gidatzen dituzte. Aginduekin jolas egingo dugu, arauaren aurrean hartzen dugun jarrera barneratzeko.- Zaila gertatzen zaigu gure arauari jarraitzea eta erabaki pertsonalak hartzea.- Adostasuna lortzea erraza ez bada ere, baliagarria da harremanetan eta erabakiak hartzeko orduan. Ulertzen eta onartzen ditugun arauak eta mugak daude.- Ezarpenaren sentimenduak gure autonomia garatzea eragozten digu.- Adostasuna lagungarri izango zaigu gure harremanetan.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Lauko taldeak egingo ditugu, kideetako bat arduraduna izango da eta gainerakoak robotak izango dira, eta gelan batera eta bestera ibiliko dira. Taldeko koordinatzaileak araua betearazi behar du, eta bere taldeko pertsonen noranzkoa aldatzen lagunduko die oztopo bat aurkitzen dutenean eta alarma jotzen dutenean, izan ere, robotak zuzen eta aurrerantz baino ez dira ibiliko.- Gogoan izan: pertsona guztiak berdin mugitzen dira, roboten antzera ibiltzen dira eta taldeko arduradunak laguntzen badie soilik aldatuko dute noranzkoa. Oztopo bat aurkitzen badute gelditu egiten dira, eta, alarma joz, dauden tokian itxarongo dute arduraduna laguntzera etorri arte.- Dinamizatzaileak aginduak emango ditu, ikasleak gelan roboten moduan batera eta bestera mugitu daitezten eta arduradunek lagun diezaieten.- Pertsona batzuek BESTE AGINDU BAT jasoko dute koloretako kartoi mehe batean. Agindu hori beteko dute, eta gainerakoengandik bereiziko ditu horrek. Esan dieten jarreran geldi-geldi egongo dira eta ez dira gehiago mugituko. Begira geldituko dira.- Aginduak bete ondoren, eseri egingo gara eta gogoeta egingo dugu. Lehenik eta behin, zer moduz sentitu diren galdetuko diegu, eta ea sentimendu, bizipen edo arazoren bat partekatu nahi duten.- Ondoren, egoera bakoitzari dagozkion galderak aztertuko ditugu.	

I.5 tresna. Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.

Mugitzeko aginduak	Gogoetarako proposamenak
<i>Begiak irekita ditugula mugituko gara guztiak</i>	Erraza al da araua betetzea?
<i>Begiak irekita ditugula mugituko gara berriro guztiak</i>	Laguntzailea edo robota izatea nahiago duzu?, nork pasatu du hobeto?, noranzkoa aldatzen lagundu didate edo ez didate jaramonik egin? Araua hausteko gogorik izan al dut?
(Horiak banatu- Etzan lurrean) <i>Oso-oso poliki mugituko gara, oztopoa bilatzen azkenak izan gaitezen</i>	Pertsona batzuek desberdin pentsatzen eta jokatzten dute. Eskatutakoa egin dute: nola sentitu dira, hobeto izango litzateke araua ez betetzea eta besteek egiten zutena egitea? Erraza al da ADOS EZ EGOTEA?
<i>Begiak itxita ditugula mugituko gara</i>	Zer sentitzen dugu begiak itxita ditugunean? Polikiago ibiltzen naiz? Tranpa asko egin ditugu?
(Urdinak banatu - Jarri hormaren kontra eta besoak gurutzatuta) <i>Begiak irekita ditugula mugituko gara</i>	Pertsona desberdinak daude. GURE IRITZIA ETA ERABAKIA DEFENDATZEA merezi du gehiengoak beste gauza bat pentsatzen eta egiten duen talde batean?
<i>Begiak itxita ditugula mugituko gara</i>	Begiak ixteak " <i>besteei eramaten uztea, nahi dutena egin dezaten uztea, berdin zaidala, paso egiten dudala...</i> " esan nahi du?
(Berdeak banatu - Erdira, bizkarrak bizkarren kontra) <i>Begiak irekita ditugula mugituko gara</i>	Desberdintasunak daudenean, norbait ROBOT sentitzen al da?, nola hartzen da erabaki bat?, nork erabakitzen du?, inor haserretzen al da?, norbaitek amore ematen al du?

BILATU ADOS JARTZEA ZAILA DEN EGOERA ERREALAK ETA AZTERTU

Identifikatu elkarrizketa, adostasuna edo partekatutako erabakia erabiltzen diren egoerak pertsonarentzat eta taldearentzat duen abantailaren edo onuraren bat.

Gauza guztietan ados ez egoteak erabaki partziala hartzea eragozten du? Zure ustez, harreman baten edo interes edo behar desberdinen bi muturren erdigune geometrikoan, erdian, dago adostasuna?

Adostasunik ez badago inposaketa gertatzen da; nola sentitzen gara horrelako egoeretan?



I.6 zk.	Talde osasuntsua / talde gaixoa
Deskribapena	Jarduera honetan, talde batek zeregin bat, debate bat ondo edo gaizki egiteko edo erabaki egokiak edo desegokiak hartzeko ezaugarriak eta elementuak identifikatuko ditugu. Antzezpen txiki baten bitartez egingo dugu.
Teknika	Role-playing
Materialak	I.6.1 baliabidea. Lantaldea I.6.2 baliabidea. Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak I.6.3 baliabidea. Taldearen lankidetzaren egitura vs taldearen egitura lehiakorra
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Garrantzitsua da pertsona guztiok zeregin bat izatea antzezpenean: aurkezlea, aktore nagusia, kamera... Mutilen eta nesken protagonismoak orekatua izan behar du denborari, paper nagusiei eta abarri dagokienez.- Talde batek modu egokian lan egiteko elementu positiboak eta lantaldeen lana eragozten duten alderdi negatiboak bereiziko ditugu.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Bi talde egingo ditugu: osasuntsua eta gaixoa. Ez diegu ikasleei inolako azalpenik emango, ondo lan egiten duen talde bat eta gaizki lan egiten duen beste bat antzeztu behar dituztela esango diegu soilik. Lantaldeak izango dira. Honako hauek antzez ditzakete: debate bat, erabaki bat hartzeko une bat, jarduera bat egiteko une bat, zereginen eta arduren banaketa, sortu den gatazka bat konpontzeko une bat, jolasean dabilzan une bat, etab.- Antzezpen bakoitzean, talde bakoitzak bere aldetik, egokitu zaion taldearen gidioa antzeztuko du, eta beste taldearen aurrean aurkezteko "sketch" bat prestatuko du.- Antzezten ari ez den taldeak antzezten ari den taldea "osasuntsu" edo "gaixo" dagoen adierazten duten ezaugarriak idatziz jaso behar ditu. Jaso dutena bateratuko dute eta, beharrezkoa bada, azalpena osatuko dugu.- Zer balioetsi behar duten azalduko diegu: pertsona guztien parte-hartzeak orekatua izan behar du, taldearen ezaugarriek egokiak izan behar dute (osasuntsu edo gaixo dagoen kontuan hartuta), umorea errespetuz erabili behar da, gidioak koherentea izan behar du.	
Sakontzeko: PAC Proiektua – VICeko Unibertsitatea, Pere Pujolas, José Ramón Lago http://www.cife-ei-caac.com http://www.educacion.gob.es/dctm/ministerio/educacion/actividad-internacional/cooperacion-educativa/2009-ponencia-20-pere-pujolas.pdf?documentId=0901e72b8008ba70 http://www.revistaeducacion.mec.es/re349/re349_11.pdf http://www.slideshare.net/bgune20/pere-pujols-lan-kooperatibo http://b06elkarbizitzamintegia.wikispaces.com/Lan+kooperatiboa	

I.6.1 baliabidea. Lantaldea

Parte-hartzea sustatzeko jarduera taldekideen arteko harremanaren bidez garatzen da. Berorren oinarrizko zereginetako bat helburuak elkarreraginean garatzeko eta garapen hori sustatzeko bidea emango duten lantaldeak osatzea da.

Taldeek errealitate dinamiko eta aldakorra izango dute, eta beroriek osatzeko eta eraikitzeko prozesuan, hainbat une eta **etapa** biziko dituzte:

- Hasieran, taldea eratuko da.
- Horren ondoren, konfrontaziorako eta taldean rolak hartzeko mugimenduak etorriko dira.
- Gero, konpromisorako eta harmoniarako joera nagusituko da, arauak (esplizituak eta implizituak) onartuz.
- Eta azkenik, lana betetzea, eraginkortasuna, produkzioa eta emaitzak etorriko dira.

Hauek dira **talde on** batek izan behar dituen ezaugarriak:

- Giro informala, eroso eta tentsiorik gabekoa izatea. Laneko giroak pizgarri izan behar du. EZ dago aspermenaren arrastorik.
- Etabaidak edota desadostasunak badaude, baina taldea garatzen ari den zereginaren esparruan beti, inoiz ez eraso pertsonal gisa.
- Taldearen zeregina eta helburuak ondo ulertu eta onartu dira. Horietaz nahikoa hitz egin da eta nahiko zehatza dira, eta, beraz, taldeko kide guztiek partekatzen dituzte.
- Erabaki gehienak aho batez edo halako adostasun batez hartzen dira; argi uzten da oro har guztiak ados eta aurrera egiteko prest daudela.
- Kritikak maiz baina zintzotasunez egiten dira, eta, normalean, ez diote inori enbarazu egiten edo tentsiorik sortzen. Zeharkako edo zuzeneko eraso pertsonalen aztarna gutxi daude. Kritikak eraikitzaileak izan ohi dira, taldeari eragiten dioten eta egin nahi duena egiteko eragozpen diren oztopoak kentzera zuzentzen baitira.
- Guztiek askatasun osoz adieraz ditzakete beren iritzia, sentimenduak edota ideiak taldearen alderdi guztiei buruz: funtzionamendua, proiektuak, askotariko gaiak... Ez dago beldurrik edota oinarririk gabeko presiorik. Guztiek adi entzuten diote elkarri.
- Ekintza bat garatzen hasten direnean, egin beharrekoak definitzen eta egokiro banatzen dira. Guztiek dakite zer egin behar duten, eta zertarako.
- Ez da beti taldearen koordinatzailea edo dinamizatzailea nagusitzen, eta taldea ez da mugatzen besterik gabe hark esana betetzera. Inguruabarren arabera eta emaitzak ebaluatu ondoren, rolak aldatu egiten dira.
- Taldeak ezagutzen du jarduketa-plana, eta badaki garatzen ari diren jardueren zergatia. Askotan, nola ari diren ebaluatzeko eta beren lana zerk oztopatzen duen aztertzeko, geldiuneak egiten dituzte.

Parte-hartzean oinarritutako talde horien jarduerak aurrera egiten du konfiantzari, lankidetzari, komunikazioari, taldearen eraginari eta bertako kide izan nahiari esker. Berdintasun-balioak eta parte-hartzea sustatzeko bidea irekitzen dute prozesu horiek:

- Lankidetzak
- Elkarren arteko mendetasuna
- Adiskidetasuna
- Ikaskuntza
- Norberaren ezagutza eta inguruaren ezagutza (pertsonek eta bitartekoak)
- Komunikazioa
- ...

Taldeko kide diren pertsonak bizitzen ari diren harremanetan, ezinbesteko garrantzia dute alderdi hauek:

- Aurretiko bizipen motak.
- Elkarreaginean harremanetan dauden pertsona horien balioak eta bakoitzak bere buruaz egiten duen balioespena.
- Garatzen ari diren bilakaera-unea.
- Erabiltzen ari diren jarduerak eta metodologia.
- Taldekideekin eta beste talde batzuekin elkartzeko moduak.
- Taldean lan egiteak ematen dien gogobetetasuna.

Talde-lana sustatuko duten balioak garatzeak (lan horren alderdi onenei lehenetasuna emanaz eta hautematen diren zailtasunak gaindituz) gizartean okerren dauden pertsonen parte-hartze soziala sustatzen lagunduko du, harreman sozialetarako zailtasunak eragotziz eta trebetasun sozialak indartzen lagunduz; norberaren burua ezagutzen, lagunak egiten, bakoitzaren alderdi onak identifikatzen, balioesten eta erabiltzen, besteak ezagutzen eta, azkenik, taldearen helburua lortzen lagunduko du gainera.

Horregatik guztiagatik, askotan, ezinbestekoa da **entrenatzea** eta **ikastea**; izan ere, banakakotasuna, lehia, mendetasuna, otzantasuna... taldetik kanpo dauden eguneroko jarduerak dira, eta nahitaezkoa da eskarmentu horri aurre egitea. Azken hori gatazka eta aurrez aurretarako arrazoi izan daiteke, batik bat interesik ez badago edo oso desberdinak badira. Ez gaitu geldiarazi behar gatazkak izateko beldurrak; badakigu hori bera positiboa izan daitekeela aurrera egiteko, ikasteko, elkarreaginean jarduteko. Badakigu nola konpondu gatazkak, eta badakigu, gainera, kasurik gehienetan irtenbidea edo askotariko irtenbideak daudela.

I.6.2 baliabidea. Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak

TALDE GAIXOA

TALDE OSASUNTSUA

1. Eztabaidan: tolerantzia eta abegia

- ❖ Soilik taldeko kide batzuek adierazten dituzte berez beren iritziak, nekezago adierazten dituzte beren sentimenduak, eta are nekezago beren proiektuak.
- ❖ Kideek ez dituzte entzuten beste batzuek proposatutakoak, eta une oro eragozpenak ematen edo beren burua defendatzen ari dira.
- ❖ Garrantzi handirik gabeko puntuak edo puntu orokorrek hartzen dute denboraren zatirik handiena, eta erabaki garrantzitsuenak edo zehatzak hartzea saihestu egiten da, presaka hartzen dira, edo lehenbailehen batzorde baten esku uzten dira.
- ❖ Kide guztiek beren borondatez pentsatzen eta sentitzen dutena esaten dute, edo beren asmoen berri ematen dute.
- ❖ Taldekideek besteek proposatutakoa entzuten eta ulertzen dute (gai dira entzun berri dutena errepikatzeko, adibidez).
- ❖ Iritzi zailak edo garrantzitsuak luze eta zehatz eztabaidatzen dira, eta eskumena duten arduradunei helarazten zaizkie, haiei dagozkienean.

2. Erabakitzerakoan: objektibotasuna eta progresibotasuna

- ❖ Gaitasuna duten kideek ez dute beren iritzia ematen aztertzen ari diren gaiak.
- ❖ Kide baten iritzia taldearen ohituren arabera, azpitalde baten erantzunen arabera edo zuzendari lanean ari denaren iritzien arabera epaitzen da.
- ❖ Oro har, erabakiak tradizioen, teoria abstraktuena, aurreiritzi sentimentalen eta ikuspegi mugatuena arabera hartzen dira.
- ❖ Aztergai duten arazoari dagokionez, gaitasuna duten kideen iritziak arreta handiagoz entzuten dira.
- ❖ Kide baten iritzia berorren balioaren arabera hartzen da, edo, eztabaidatu ondoren, baztertu egiten da.
- ❖ Errutinarekin edo konformismoarekin hautsiz hartzen dira erabakiak, betiere, taldearen printzipio edo xedeetatik erator daitezkeen datu positiboaren arabera, eta irismen handiko ikuspegia hartuta kontuan.

3- Ekintzan: sormena eta pertsonenganako errespetua

- ❖ Ekimen berriak babes gabe edo ez egiteko aholkuekin datoz.
- ❖ Huts egin duen kidea deskalifikatu egiten da, isilik egotera behartzen da, edo bazterrean uzten da.
- ❖ Taldeko pertsona batzuekin gehiegikeriaz jokatzeko du taldeak, edo bere onurarako erabiltzen ditu pertsona horien akats batzuk.
- ❖ Taldeak bere barnean batasuna presio moralaren bidez indartzen du (mehatxuak, adibidez) edo oldarkortasunez jokatzeko (lehia sortuz, adibidez), barruko taldearen aurka nahiz kanpokoaren aurka.
- ❖ Jarduera berri eta sortzaileak sustatzen eta bultzatzen dira.
- ❖ Taldekide batek zeregin berri batean edo lan zail batean huts egin badu, babesa ematen zaio, intentzio onez ari zela jabetuta, eta bitartekoan erabilera zuzena egiten laguntzen zaio.
- ❖ Taldeak uko egiten dio taldekide batzuek izan ditzaketen ahuleziak edo akatsak ustiatzeari.
- ❖ Pertsonen parte-hartzea indartzen du taldeak, irudipenak elkarrekin trukatzeko eta sinpatian oinarrituta (baita kanpoko taldeekikoa ere).



I.6.3 baliabidea. Taldearen lankidetz-egitura vs taldearen egitura lehiakorra

Taldearen lankidetz-egitura	Taldearen egitura lehiakorra
<ul style="list-style-type: none">- Interakzio handia. Ahalegin partekatua.- Komunikazio eraginkorra. Dinamika pertsonala eta soziala.- Besteei helburuak lortzeko bidea erraztea: lagunduz, partekatuz edo irakatsiz. Helburu komunak, inklusiboak.- Kideen eragina, helburuari begira.- Gatazka arazoan konponbidera zuzentzea.- Oso pentsamendu dibergentea eta arriskutsua.- Konfiantza handia.- Aldeen onarpen eta babes sakona.- Inplikazio emozional handia eta ikasteko konpromisoa, taldekide guztien aldetik. Giza baliabideen erabilera handia.- Zereginen banaketa posiblea.- Porrotari beldur txikiagoa.- Guztiek irabazten dute, edo guztiek galtzen dute.	<ul style="list-style-type: none">- Interakzio txikia. Ahalegin paraleloa.- Komunikazio falta edo komunikazio engainagarria edo mehatxagarria. Dinamika indibidualista.- Besteen helburuei oztopoak jartzeko joera. Bakarkako helburu baztertzailak.- Taldekideen eragina, helburuen kontra.- Gatazka irabazi/galdu dimentsiora zuzentzea.- Pentsamendu ez oso dibergentea eta ez oso arriskutsua.- Konfiantza gutxi.- Onarpen eta babes gutxi taldekideen artean.- Ezinezkoa zereginak banatzea.- Porrotari beldur handiagoa.- Batzuek irabazi egiten dute, eta besteek galdu.



I.7 zk.	Taldean arauak proposatzen
Deskribapena	Proiektuaren helburuak argi ditugula, talde-lanerako funtzionamendu-arauak adostuko ditugu, lana antolatzeke eta garatzeko. Gainera, ardurak banatuko ditugu, eta kontrol-mekanismoak, taldea hobetzeko neurri zuzentzaileak eta elementu indargarriak ezarriko ditugu, eta baita ondo egindakoak azpimarratuko dituzten neurri positibo eta motibatzaileak ere.
Teknika	Arauen lanketa
Materialak	- Bi kaxa, txartelak, arbela, talde-lanerako fitxak - I.7 tresna: arauak proposatzen
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Betebeharren eta eskubideen arteko dependentzia, eta korrelazio horri eusteko konpromisoa sustatzea.- Arauen zentzu positiboa, berorien xumetasuna. Koherentziak, malgutasunak eta elkarri laguntzeak duten garrantzia.- Arauen jarraipena eta aplikazioa, eta neurri zuzentzaile orekatuak eta eraikitzaileak ezartzea. Arauak ez betetzeak ondorioak ditu.- Jarrera eta jokabide eraikitzaile, egoki eta onuragarrien sustapen positiboa.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Hasteko, azalduko zaie helburua talde bakoitzak arauen zerrenda bat idaztea dela, eta arau horiek lagungarri izan behar dutela taldean ondo lan egiteko eta taldekideak gustura sentitzeko. Ondo ikusten den toki batean, bi kaxa kokatuko dira: helburua lortzeko eta elkarri gauzak hobeto egiten laguntzeko betebeharrei dagokiena, eta eskubideei dagokiena. Bakoitzak betebehar bat eta eskubide bat proposatuko ditu, eta kaxan sartuko ditu. Oharra: saiatu EZ hitza gutxi, ahalik eta gutxien, erabiltzen. Pentsatu egitea komeni den gauzez.- Guztien proposamenak aterako dira pixkana, eta arbelean idatziko dira, antzeko esanahia dutenak multzo beretan biltzen eta laburtzen saiatuz. Bi zutabe egongo dira: bata, eskubideetarako, eta bestea, betebeharretarako.- Bigarren pausuan, sailkapen-irizpide hau aplikatuko dut: niri dagozkidan betebeharrak eta eskubideak, edo guri dagozkionak, markatuko ditugu, onar, kontrola eta kudea daitezkeenak. "Guri ez dagokiguna", gure erantzukizuna ez dena, kanpoan utziko dut.- Taldeetan bilduta, bakoitzak garrantzi handienekotzat jotzen dituen betebeharra eta eskubidea aukeratuko ditu, eta guztiak bilduko dira (begiratu talde-lanerako fitxa). Ordenatu eta erlazionatu egingo dira, betebehar asko beste hainbat eskubideren beste alderdia baitira. Nahi ditugun guztiak erantsiko ditugu, baina, oso zerrenda luzea egiten badugu, bizimodua eta lana dezente konplikatuko zaizkigula hartu behar dugu kontuan:<ul style="list-style-type: none">• Ez ditugu arau asko nahi!• Zer arau betetzeko konpromisoa hartzen dugun, horiexek bakarrik jarriko ditugu!- Arauak idatziko dira: gutxi, xumeak eta ikuspegi positibotik.- Neurri zuzentzaile bat adostuko da: zer egingo dugu erabakitakoa betetzen ez dugunean?- Eta, batez ere, ondo egindakoak eta jarrera eta jokabide errespetagarriak, sortzaileak eta onuragarriak nola indartuko ditugun zehaztuko dugu.	

I.7. tresna. Taldean arauak proposatzen

- Eskubide garrantzitsuenak aukeratuko ditugu.
- Betebehar garrantzitsuenak bilduko ditugu.
- Multzokatu (erabili zenbakiak) eta laburtu egingo ditugu.
- Eskubideak eta betebeharrak erlazionatuko ditugu (erabili geziak).
- Arauak idatziko ditugu (ez gehiegi!).

Gure taldearen ESKUBIDEAK		Gure taldearen BETEBEHARRAK		arauak
				1
				2
				3
				4
				5
				6

	Gure taldearen ARAUAK
1	
2	
3	
4	
...	
...	

Zer egingo dugu ondo egindakoa eta positiboa dena saritzeko?

--

Zer egingo dugu erabakitakoa betetzen ez dugunean?

--

I.8 zk.	Parte hartzeko elementuak
Deskribapena	Jarduera honetan, parte-hartzea zer den aztertzeko, gogoeta egingo dugu, talde txikietan lehenengo eta talde handian gero, sormen- eta analisi-teknika bat erabiliz.
Teknika	Mahai-zapia
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Mahai-zapi baten neurriko paper-zati bat talde bakoitzeko. - Arkatz markatzaile bat pertsonako. - Guraizeak
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Hobe litzateke irakasleok, aurrez, parte-hartzearen inguruko zenbait alderdiri buruz zerbait irakurtzea, horrela, azken ondorioak aberasteko. - Ikuspegi metodologikotik, talde bakoitzean neska bat bakarrik egon ez dadin saiatuko gara; bi edo gehiago egongo direla bermatuko dugu. - Partaidetzan generoaren ikuspegiak duen eragina nabarmenduko dugu. - Definizioak idatziko ditugu. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Talde handian, bost laguneko taldeak egingo dira; talde bakoitzeko mahai bat izango da, eta, zutik eta mahai horren inguruan, planteatuko zaien galdera landuko dute. - Mahaiaren gainean paper-zati bat ezarriko da, mahai-zapi bat balitz bezala (talde bakoitzeko bat). Paper-zati horretan, honako galdera hau agertuko da, zirkulu batean sartuta: "Zein dira partaidetzarekin lotuta dauden alderdiak?"; eta bost gezi aterako dira zirkulu horretatik. - Bakoitzak arkatx markatzailearekin eta ahalik eta naturaltasun handienez burura datorkiona idatziko du, dagokion geziaren muturrean. - Guztiek zerbait idatzi eta gero, aldi berean eskuinera mugituko dira, eta, beraz, taldekide batek egindako ekarpena izango dute aurrez aurre. Ekarpene horri berorrekina eta "partaidetzarekin" lotuta dagoen zerbait erantsiko diote. - Idatzi dutenean, hurrengo ekarpena joko dute, eta aurrekoarekin lotuta dagoen ekarpen bat erantsiko diote. Horrela jarraituko dute, berriro bakoitza bere tokira itzuli arte. Bakoitzak bere ekarpena eta beste lau ekarpen aurkituko ditu. - Bakoitzaren zatia ebakiko da, irakurri egingo dute, eta talde txikietan beroriei buruz hitz egingo dute. Txandaka hitz egingo dute, idatzi dutenarekin ados dauden edo ez dauden azalduz. - Idatzi, irakurri eta eztabaidatu duten hori guztia kontuan hartuta, partaidetzaz bakoitzaren definizioa eta taldearena idazteko esango diegu, eta talde osoaren aurrean nork irakurriko duen erabakiko dute. - Definizio guztiak irakurriko dira, eta irakasleak, alderdi teorikoetan oinarrituta eta beharrezkoa dela ikusten badu, osatu egingo ditu, partaidetzarako oinarritzko elementuak eta baldintzak zein diren argi eta garbi uzteko. 	
Sakontzeko	
<p>Murguialday, Clara (1999): <i>Guía metodológica para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo</i>. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza. Bilbo</p> <p>Guerra Santos, Miguel Angel (koord.) (2000): <i>El harén pedagógico</i>. Graó. Bartzelona.</p> <p>Espiau, Mireia; Saillard, Dominique; Ajangiz, Rafa (2005): <i>Género en la participación. Un camino por recorrer</i>. Cuadernos Bakeaz, 67 zk. Bilbo</p> <p>Askoren artean (2009): <i>Guía de participación en los centros docentes</i>. Hezkuntza eta Zientzia Saila. Hezkuntza Politiken, Ikasketen Antolakuntzaren eta Lanbide Prestakuntzaren Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntzako Partaidetza eta Orientazio Zerbitzua.</p> <p>http://www.educastur.es/media/publicaciones/apoyo/guia_participacion.pdf</p> <p>Jurado, Carmen (2009): <i>La participación educativa del alumnado</i></p> <p>http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_23/CARMEN JURADO GOMEZ02.pdf</p>	




I.9 zk.	<i>Ikastetxeko parte-hartze egoerari buruzko diagnostikoa: parte hartzen dugu benetan?</i>
Deskribapena	Eskolan esku hartzen duten eragile guztien parte-hartze motari buruzko azterketa egitea da kontua, elkarrizketen teknika erabiliz eta eskolako espazioen erabilera hartuta abiapuntuztat.
Teknika	Diagnostiko parte-hartzailea
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- I.9.1 tresna: eskolako mapa, gune bakoitzean garatzen diren jarduerak ageri dituen.- I.9.2 tresna: erantzuteko galde-sorta.- I.9 baliabidea: elkarrizketarako eta behaketarako teknika
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Elkarrizketak neskek nahiz mutilek egin behar dituzte, lanak eta ardurak berdintasunez banatuz.- Ikastetxeari behatuko diogu une batez, parte-hartzearen ikuspegitik.- Parte-hartzearen inguruan, pertsonak, espazioak eta gogobetetasun mailak identifikatuko ditugu.- Azken ekoizpena zainduko dugu, aldeko elementuak eta kontrakoak kontuan hartuta.	
Garapena	
1. saioa: <ul style="list-style-type: none">- Eskolaren mapa egingo da, bertako gune guztiak kontuan hartuta, eta nork erabiltzen duten eta zer jarduera motatarako adieraziko da mapa horretan (eginda eraman daiteke saiora, edo ikasleek egin dezakete saioan, baina gune guztiek azaldu behar dute).- Gune horiek taldeen artean banatuko dira. Talde bakoitzak horietako bat aztertuko du.- Azterketarako, inkesta bat emango zaie, baina inkesta hori hobetu edo osa dezakete, beharrezko irudituz gero. Aztertu egingo dute, eta behar izango dituzten baliabide guztiak aurreratuko dituzte.- Hauei buruzko jarraibide teorikoak emango zaizkei: "elkarrizketetarako teknika", "behaketa" eta "espazioaren erabilera eta parte-hartzea" Saioen artean: <ul style="list-style-type: none">- Ikasleek elkarrizketak egingo dituzte beraiei egokitutako guneetan, informazioa bilduko dute, ondo ordenatuta eta ulertzeko eta komunikatzeko modu egoki batean. 2. saioa: <ul style="list-style-type: none">- Talde bakoitzari denbora pixka bat utziko zaio, taldeari emango dion informazioa ordenatzeko. Laburtu eta interpretatu egingo du.- Egindakoa bateratuko da.- Bi horma-irudi egingo dira:<ul style="list-style-type: none">a. Gure eskolan modu demokratikoan parte hartzeko elementu egokiak.b. Gure eskolan "parte-hartze demokratikoa" gauzatzeko hobetu daitezkeen elementuak.<ul style="list-style-type: none">- Jarduera balioetsiko da.	
Sakontzeko	
<ul style="list-style-type: none">- Subirats, Marina; Tomé, Amparo(2007): <i>Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación</i>. Octaedro. Bartzelona.- Espinar, Eva eta Ruiz, José Antonio (2002): <i>Producción del espacio y desigualdad de género. El ejemplo del campus universitario de Alicante</i>. Espagrafic (edizio elektronikoa). Alacant.	

I.9.1 tresna: eskolako mapa

Gure eskolaren egoera demokratikoaren taldeko diagnostikoa: ariketa honen bidez ikastetxe bat imajinatu behar dugu, bertako kolektiboek gogotsu parte hartzen duten ikastetxe bat; eta, horretarako, gure inguruan zer ari den gertatzen aztertuko dugu.

AZTERTU BEHARREKO ESPAZIOAK

ZURE AUZOA / ZURE HERRIA





I.9.2 tresna:

ESKOLAREN ERABILERA PARTE-HARTZAILEARI BURUZKO GOGOETA KOLEKTIBOA

ESPAZIOA:

1.- Zergatik erabiltzen duzu espazio hau?

2.- Zer hobetuko zenuke parte-hartze demokratikoa sustatzeko?

3.- Honetaz gain, zentroan dauden lekuak eta jarduerak ezagutzen dituzu?

4.- Honetaz gain, beste zerbait erabiltzen duzu?

5.- Zer ez dago zentroan, egon behar lukeena?

7.- Hemen neskek eta mutilek, emakumeek eta gizonek berdin parte hartzen dute?

8.- Beste zerbait erantsiko al zenuke?

Izena:

Adina:

Sexua:

Kolektiboa:

Mila esker!!



ELKARRIZKETARAKO TEKNIKA

Kontzeptua: *aurrez planifikatutako elkarrizketa formalean informazioa lortzeko teknika; elkarrizketa pertsona batek edo gehiagok egin dezakete, eta pertsona bat edo gehiago elkarrizketa dezakete. Elkarrizketatuek duten informazioa eraldatzen edo sistematizatzen da, proiektu bat garatzeko elementu baliagarria izan dadin.*

Elkarrizketa motak

- Egituratua: aurrez aztertutako eta ondo zehaztutako galderak egitean datza; erantzunak honelakoak izan daitezke:
 - Erantzun irekiak: elkarrizketatutako pertsonak askatasunez erantzuten die elkarrizketatzaileak egindako galderei.
 - Erantzun itxiak: elkarrizketatutako pertsonak aurrez zehaztutako erantzunen artean hautatzen du.
- Egituratu gabea: galderak nahiz erantzunak libreak dira.
- Mistoa: bi motatako galderak egiten dira.

Elkarrizketa prestatzea:

1. Solaskideak identifikatzea
2. Elkarrizketa egin aurreko harremanak
3. Elkarrizketa bera prestatzea
 - arazoei aurre egiteko estrategia bat zehaztea
 - elkarrizketaren gaia ondo ezagutzea
 - galdera-multzo egokia prestatzea

Elkarrizketa

Orduan heltzea

Hasieran:

- Gure burua aurkeztu.
- Zenbat denbora dugun galdetu, adeitasunez.
- Oharrak jasoko ditugula adierazi.
- Laburpen bat emango diogula jakinarazi.
- Elkarrizketaren xedea gogoratu eta testuingurua mugatu.
- Galdera orokor bat egin, elkarrizketa sustatzeko eta elkarrizketaren garapen-esparrua zehazteko.

Elkarrizketaren garapena.

Elkarrizketaren amaiera:

- Izan ditzakeen jarraipenak prestatu
- Laburpena emateko epe bat zehaztu
- Laburpena berrikusteko epe bat adostu
- Eskainitako arreta eskertu.

Elkarrizketaren garapena

- Ez egin galdera zuzenegiak.
- Pertsona elkarrizketatua gaitik alden ez dadin saiatu, baina eten gabe.
- Arreta erakutsi: pertsona elkarrizketatuak balioetsi egingo du.
- Elkarrizketa zuzendu, baina oso modu malguan.
- Erantzunak berak eman behar ditu (ez guk geuk).

- Giroa lasaitzeko uneak sortu.
- Aldian-aldian, gogoratutako arazoan balantzea egin buruz.
- Terminologia tekniko gehiegi ez erabili.
- Diskrezioz jokatu oharrak hartzerakoan, elkarrizketatuaren arreta galarazi gabe.
- Ez gainditu elkarrizketarako zehaztutako denbora (inoiz ez ordubete baino gehiago)

Elkarrizketaren ondoren

- Memoria edo txostena bidaltzeko epea errespetatu.
- Agindutako dokumentuak zehaztutako epean bidali.
- Elkarrizketan hartutako oharrak osatu eta laburtu.
- Elkarrizketatutako pertsonak berrikusitako txostena helarazi.

BEHAKETA

(Lizaso, Izarne eta Apodaka, Marije, 2008. *Giza garapen psikologikoaren ereduak I*. Bilbo: UEU. Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko V. poltsaria (2006). ISBN: 978-84-8438-169-3)

"Behaketa" terminoak zera esan nahi du: "fenomeno baten obserbatze-ekintza, bere ezagutza zehatza jasotzeko metodo jakin batzuk erabiliz" (Larousse, 1981). Behaketan, ikertzaileak ez ditu fenomenoak aldatzen, agertzen diren bezala hartzen ditu.

Behaketa ekintza zientifiko gisa kontsideratua izango da ondorengo baldintzak betetzen dituenean:

- a. Ikerketako helburu bati erreferentzia egiten dionean.
- b. Fidagarritasun eta baliozkotasun-frogak gainditzen dituenean.
- c. Sistematikoki planifikatzen denean eta kontrolatua dagoenean.

Behaketa sistematizatu edo kontrolatuan prozedura bat jarraitu behar da, honen baitan (Fraissee-ren arabera), lau fase bereiz daitezkeelarik:

- I. Aztertzekeo interesgarriak izan daitezkeen gertaerak aurkitu.
- II. Gertaeren artean egon daitezkeen harremani buruzko hipotesiak ezarri.
- III. Hipotesien egiaztapena.
- IV. Emaizten lanketa eta interpretazioa.

Behaketa sistematizatuaren barnean, zenbait mota daude; aipagarrienak, behaketa naturala eta laborategiko behaketa direlarik.

- a. **Behaketa naturalean**, eguneroko bizitzako egoeretan -eskolan,...-, banakoen portaera aztertzen da, portaera alda dezakeen aldagairik sartu gabe.
- b. **Laborategiko behaketan**, berriz, kontrolatutako egoera batean behatzen du portaera (laborategian, baldintza jakin batzuetan). Adibidez, egoera arrotza.

Behaketa sistematikoak baditu bere hutsuneak: ez du portaera azaltzen, ezta kausa-efektu harremana ere. Gainera, behatzailearen presentziak portaera aldarazi dezake (nahiz eta ispilu baten atzean ezkutaturik egon, umeak suma dezake behatua izaten ari dela). Azkenik, behatzailearen presentzia duten egoera kontrolatuak artifizialeki izan daitezke.



I.10 zk.	Adostasuna bozketarik gabe
Deskribapena	Lau pertsonaz osatutako taldeetan, egoera gatazkatsu bat planteatuko dugu: taldeak erabaki bat hartu behar du, pisuzko bi argudio edo egiaztapenetan oinarrituta.
Teknika	Balioespen pertsonala, elkarrizketan oinarritutako eztabaida eta adostasuna
Materialak	Bi kaxa, txartelak, arbela I.10 tresna: adostasuna bozketarik gabe
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Eztabaidak ez du oso negatiboa izan behar; elementu positibo bat bilatu behar da, jarrera desberdinak azaltzeko pisuzko arrazoiren bat, beste pertsonen jarrera ulertzen lagunduko diguna.- Egoeren arrazoi-ugaritasuna landuko dugu.- Gatazkaren prozesua, negoziazioa eta aukeren proposamena esperimendatuko ditugu.- Prozesuan sortzen diren sentimenduen garapenean jarriko dugu arreta.- Bat etortzea bilatuko dugu, eta adostasuna defendatuko.- Gure jarrera arrazoituko duten argudioak bilatuko ditugu.- Deskalifikazioak saihestuko ditugu.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Deskribatutako egoera planteatuko dugu: ikastetxeko irakasleek ez dute etapa amaierako bidaia antolatuko, eta ez diete ikasleei lagunduko.- Pertsona bakoitzak bere balioespenak egingo ditu, eta irtenbide bat pentsatuko du.- Bi pertsonen elementuren bat duen proposamen bat adostuko dute beste pertsona batekin.- Launaka, irtenbide bidezkoena eta eraginkorra iruditzen zaiena aukeratuko dute, eta bi arrazoi emango dituzte irtenbide hori defendatzeko. Bozeramaile bat aukeratuko dute.- Bozeramaileak irtenbidea planteatuko du. Dinamizatzaileak taldeko beste edozeini taldean eman dituzten bi arrazoiak buruz galdetuko dio.- Eman daitezkeen irtenbideak jasoko dira, eta aurrera eraman daitezkeen edo egokiak diren eztabaidatuko da. Horrela utziko ditugu; EZ DUGU BOZKETARIK EGINGO.- Fitxan agertzen diren prozesuari buruzko galderak aztertuko ditugu. Hiru une garrantzitsuenak bereiziko dira, eta zabaldu edo aldatu egin daitezke. Oso garrantzitsua da gogoeta egitea eta sentimenduen zutabeetan nola sentitu zareten adieraztea. Jaso ditugun esaldiak adibide hutsak dira, eta ez du esan nahi zuen taldean hori gertatu denik.- Prozesua beste bi aldiz errepikatuko dugu, beste egoera gatazkatsu batzuekin. Adibidez:<ul style="list-style-type: none">• Miranda de Ebrora goaz bizitzera lan-kontuengatik, eta guztiok elkarrekin joan behar dugu!• Uda honetan Irlandara joango zara udalekuetara, eta bakarrik joango zara, gehiago ikas dezazun!• Ez dugu nahi zu gurekin gehiago etortzea, huts egin diguzu!• Institutua aldatu behar duzu eta zure neba joaten den institutura joango zara, zure lagunak hemen gelditu arren!	

I.10 tresna. Adostasuna bozketarik gabe

Egoera gatazkatsu bat

Ikastetxeko zuzendaritzak jakinarazi du, irakasleen klaustroan planteatu ondoren, ikasturte honetan ez dela antolatuko ikasturte amaierako bidaia, taldeari laguntzeko pertsona boluntariorik ez dagoelako.

Balioespen pertsonala

Zure ustez, zer arrazoi izan dituzte erabaki hori hartzeko?

Zer eskatuko zenioke ikastetxeko zuzendaritza-taldeari zure interesak defendatzeko?

Zure ustez, hezkuntza-elkarteko pertsona guztiak izan dituzte kontuan erabaki hori hartzeko garaian?

Negoziatzeko aukerarik dagoela uste duzu?

Gatazkaren aurrean egiten dudan proposamena:

Gaia binaka aztertu ondoren, irtenbidea honako hau litzatekeela uste dugu:

Taldearen ustez, irtenbiderik egokiena honako hau izango litzateke:

Eta arrazoibide hauek ematen ditu:

--	--

I.10 tresna. Adostasuna bozketarik gabe (jarraipena)

Prozesuari buruzko gogoeta:

uneak		sentimenduak	ekintzak
1	Egoera ezagutzean	<i>Horixe besterik ez genuen behar!</i>	Lehenengo erantzuna
			Apur bat gehiago pentsatutako erantzuna
2	Arrazoiak bilatzea, irtenbideak proposatzea	<i>Ez dago eskubiderik!</i>	Arazoa azaltzen duen arrazoi edo zio bakar bat al dago?
			Jarrera eta iritzi desberdinak sortu al dira taldeko kideen artean?
			Norbaitek bere proposamena eta arrazoibidea inposatu al du? Nola iritsi zarete "taldeko irtenbidera"?
3	Proposatutako irtenbidea	<i>Ikusiko dute!</i>	Jarrerak hurbiltzeko amore eman duzuela uste al duzue?
			Proposamena negoziagarria dela eta gaiari buruz eztabaidatu daitekeela pentsatzen duzue?



LE/I.1	Beldur gara?
Deskribapena	Jarduera honetan, beldur izatera jolastuko gara, eta geure beldurretara hurbilduko gara. Beldurra defentsarako tresna bat noiz den eta oztopo bat noiz den –beldur sinbolikoetan oinarrituta dagoelako eta nire ekintza blokeatzen duelako– bereizi nahi dugu.
Teknika	Tunel beldurgarria
Materialak	- LE/I.1 tresna: Hori beldurra!
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Irakasleok taldearen emozioetan erreparatuko dugu, bai eta emozio pertsonaletan ere.- Beldurraren oinarri fisiologikoa eta psikosoziala bereiziko ditugu.- Genero-rolari erreparatuko diogu jarduera osoan: barrura begiratzeko eta emozioak adierazteko erritmoak desberdinak izango dira nesken eta mutilen kasuan; horregatik, bai neskek eta bai mutilek emango duten urrats bakoitzean, errefortzu positiboak etengabea izan behar du.- Nahitaezkoa da errespetua eskatzea beste pertsonak egingo dituzten ekarpenen aurrean. Entzuteko eta azaltzeko arauak "hitzartuko" dira.- Beldurrak adierazterakoan, konfidentziasuna bermatu behar da; segurtasuna eta intimitatea bilatuko ditugu, <i>inork ez du minduta sentitu behar</i>. Hori da emozioei buruzko jardueren arau garrantzitsuena.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Irakasleak emozioei buruzko lana zertan datzan azalduko dio ikasgelako taldeari, beldurrera nola hurbilduko garen.- Beldurraren gaia planteatuko diegu, eta parte-hartzearekin duen erlazioa.- Jolas bat proposatuko diegu: tunel beldurgarria. <i>Beldurrezko film batean egongo bagina bezala, giro "beldurgarria" sortuko dugu. Izuaren institutua sortu beharko bagenu, zer aurkituko genuke? Nolakoa izango litzateke? Nor egongo litzateke? Nola usainduko luke? Zer soinu entzungo lirateke? Zer gertatuko litzateke? Ausartzen al zarete hori imajinatzen?</i>- Ikasleek bururatzen zaien gauzak esango dituzte, eta kontakizun beldurgarri bat osatuko dugu... ahalik eta beldurgarriena...- Saioa amaitzeko, LE/I.1 tresna emango diegu, eta isilik eta banaka beteko dute; nahi izanez gero, eraman egingo dute eta ez diote inori erakutsiko.- Amaitu dutenean, oro har, beldurra onuragarria noiz izan daitekeen eta oztopo noiz bihur daitekeen azaltzeko eskatuko diegu.	
Sakontzeko	
<ul style="list-style-type: none">- Blog bat: http://blog.eitb24.com/adimenemozionala/- Rafael Bisquerra, Competencias Emocionales http://www.uned.es/educacionXX1/pdfs/10-03.pdf http://www.um.es/depmede/RIE/completa/documentos/21-1/21_1_art1.pdf- Elsa Punset, <i>Guía para navegantes emocionales</i>, http://www.elsapunset.com/articulos/info/libros-5-a/- http://www.emozioak.net/- http://www.hikhasi.com/fitx/fitxategiaJeitsi.php?id=193&emota=2&dmota=pdf- http://www.argia.com/multimedia/dokumentala/por-beldurra- http://www.youtube.com/watch?v=twajsQFti28&feature=youtu.be- http://www.rtve.es/alacarta/videos/archivos-tema/archivos-antologia-vida-calcerin-roto/1230248/	



LE/I.1 tresna: Hori beldurra!	
Hauek dira nire beldurrak:	
Baina hau da beldur gehien ematen didana:	
Nire ustez, beldur horrek honetatik babesten nau:	
Baina, beste alde batetik, hau egitea eragozten dit:	
Honako kasuetan agertzen dut beldurra:	
Eta honakoetan ezkutatu egiten dut:	

Parte-hartzea eta beldurra:
Eskua jasotzen dut eta ausartzen naiz...
Hitz egin nahi dut, baina...
Zertarako esango nuen hori! Orain,...
Horretan sartzen banaiz, gero...
Hobe ezer ez egitea, bestela...
Beldurra gainditzen dut... (Nola?)




PP/I.1	Egin amets!, gure proiektua
Deskribapena	<i>Jarduera honekin, parte-hartzean oinarritutako proiektu baten diseinuari ekingo diogu. Fase honetan, proiektua aukeratzea eta bizikidetza-arauak ezartzea dira zeregin nagusiak.</i>
Teknika	Talde-lana
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- PP/I.1 tresna- PP/I.1 baliabidea- Proiektuen gaiak idazteko papera, horman itsasteko zelo papera
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Irakasleak parte-hartzean oinarritutako prozesu baten plangintza egiteko faseak zehaztuko ditu, baina ikasleak izango dira protagonistak.- Lan-taldeek lan egiteko arauak gogoratu behar dituzte, taldeko konpromisoak bete ahal izateko.- Sor daitezkeen edo iradoki daitezkeen proiektuak:<ol style="list-style-type: none">1. Kuadrillen jaia2. Gazte-eguna3. Gelako bloga4. Bideoklip-lantegia5. Graffiti-lantegia6. Irteera-eguna7. Kanpaldia8. Auzotarrentzako aste kulturala9. Gela hornitzea10. Gaztegune panela11. Udarako ekintzen informaziogunea (udalekuak, elkartrukeak, bidaiak...)12. Etxerako lanak egiteko laguntza-taldea13. Txikiei zuzendutako laguntza-taldea14. Nagusientzako informatika-lantegia15. Kirol anitzen eguna16. Dantzaldiak17. Tortilla-eguna18. Gazteentzako baliabideen gida19. Herriko taldeekin kontzertua20. ... II/10 jarduera ikusi	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Lehenengo saio honetan, parte-hartzean oinarritutako proiektu baten plangintza egiten hasiko gara. Hasteko, prozesu osoa zertan datzan azalduko diegu ikasleei. PP/I.1 tresna lagungarria izan daiteke fase bakoitza ulertzeko.- Ulertu denean, ikasleek proposatutako proiektuen zerrenda bat egingo dugu, eta irakasleen proposamenekin osatuko dugu. Proiektuek egingarriak eta ikasleek garatzeko modukoak izan behar dute.- Ikasgelako hainbat tokitan idatziko ditugu, eta zenbakitu egingo ditugu (1-2-3-4...). Ikasleek irakurri egingo dituzte, eta, dituzten interesen arabera, garatu nahi duten gaia aukeratuko dute (aukeraketa egiteko arrazoi nagusia gaia izango da, ez da bultzatuko bestelako interesik).- Taldeak bilduko dira (berdin dio ikasle-kopurua desberdina bada), eta taldean positiboki lan egin ahal izateko bizikidetza-arauak zehaztuko dira. Arau horiek funtsezkoak izango dira taldearen eta lanaren garapenerako, eta, beraz, beharrezkoa denean gogoratuko dira.	



PP/I.1 tresna: parte-hartzean oinarritutako proiektua

Eskailera honen bitartez, proiektu honetan parte-hartzean oinarritutako proiektu bat eraikitzeko egingo dugun plangintza-prozesua adierazi nahi dugu. Maila bakoitzean hainbat jarduera, gogoeta, ahalegin, esperientzia etab. ageri dira, eta hurrengo mailara igotzen lagunduko digute. Zer egingo dugun pentsatuko dugu, maila bakoitzean zer lortu behar dugun, nola antolatu behar dugun, etab. Eta, aurrerago, gure proiektua abiaraziko dugu.



Hauxe da gure proiektua:



PP I.1 baliabidea: parte-hartzean oinarritutako prozesurako metodologia. PARTE HARTUZ (UPV/EHU). Abusu-La Peña, Arrigorriagan. *Hacia una definición participativa de un horizonte de futuro común para el barrio.* Guggenheim txostena, 2008ko ekaina (Lejona, Izaskun eta Apodaka, Marije)

Eskolan parte-hartzea garatzeko oinarriak:

- ❑ **IEP (Ikerketa-ekintza parte-hartzailea) metodologia,** errealitatearen ezagutzaren eta horren gain egindako esku-hartzearen **eraikuntza kolektiboa:** metodologia honen helburua parte-hartzean oinarritutako prozesuak bultzatzea eta abiaraztea da, komunitate berbera osatzen duten eragileek eta pertsonak eguneroko zereginean eragiten dieten gaien inguruan gogoeta egin dezaten eta eztabaida dezaten, eta, halaber, euren errealitateari buruzko diagnostikoa egin dezaten eta identifikatutako beharrei erantzuteko ekintzak abiaraz ditzaten.
- ❑ **Herritarrek parte-hartzean oinarritutako prozesua zehazten eta garatzen laguntzea:** honelako prozesuetan, beraz, ikerketan inplikaturako pertsonak ez dira objektutzat hartzen, baizik eta abiarazitako prozesuaren zati aktibotzat. Aztertua izatetik (objektua), lantzen ari garen ekintzan eta ikerketan parte hartzera (subjektua) igarotzen dira. Dinamika horrek etengabe gogoeta egitea eta ekintza kolektiboak garatzea eskatzen dio komunitateari.
- ❑ **Hainbat eragileren artean partekatutako diagnostikoa,** ingurua aztertzeko eta lehentasunak eta jarduketako-ildoak ezartzeko: garrantzitsua da metodologia honen bitartez komunitate bereko pertsonen artean harremanak ezartzeko modu berriak lantzen direla azpimarratzea, lotura eta gizarte-sare berriak berreraikiz eta lotuz.

Tresnak eta teknikak:


- ❑ Elkarrizketa pertsonalak eta zuzeneko lana.
- ❑ Gogoetarako eta ebaluaziorako lantegiak.
- ❑ Eztabaida-foroak eta jarraipen-batzordeak.
- ❑ Prestakuntzarako ekimenak eta inguruko inpaktua: hitzaldiak, kaleko animazioa, jardunaldiak,...



Eskolan parte-hartzea garatzeko oinarriak:


- Estamentu guztien protagonismoa eta ordezkaritza bermatzea erabakitzeko foroetan
- Parte hartzeko egiturak berriz pentsatzea; baliagarriak direnak sustatzea eta organigrama gehiegi ez nahastea.
- Lan-talde bakoitzaren zereginak zehaztea
- Komunikatzeko uneak eta espazioak irekitzea ikasgelan eta ikastetxean. Elkarrekin egotea eta partekatzea.
- Produktu komunak sortzea eta apur bat aurrera egitea erabakietan.
- Gogoeta egitea eta egindakoa parte-hartzearen ikuspegitik ebaluatzea
- Informazioa transmititzeko bideak zaintzea
- Koherentzia eta adostasun maila ebaluatzea jarduketetan eta ikastetxeko erabakietan
- Harreman-ereduak lantzea, aukera-berdintasuna bilatuz eta boterearen kudeaketa demokratikoa sustatuz.
- Ikasgela kanpoko ekarpenekin aberastea eta ikasgelan lantzen denak inguruan eragina izatea.

- ...



4. II. MODULUA

PARTAIDETZA: gu gabe, ezta!



HELBURUAK

1. Gure bizitzako eta inguruko erabakietan eta etorkizunean eragiteko dugun botere pertsonalaz jabetzea.
2. Dogmatismoak zalantzan jartzen dituzten jokaera kritikoetan trebatzea.
3. Kritikari aurre egitea eta onartzea (desadostasuna...).
4. Ohiko erabaki-esparruen ezaugarriak eta egitura horietara iristeko nahiz berorietan parte hartzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea.
5. Testuinguruaren aniztasuna adieraziko duten talde guztien prozesuetan eta erabakietan parte hartzea eta eragitea erraztuko duten beste egitura batzuk proposatzea (denborak, taldeak, estiloak...).
6. Gazteek parte hartzen duten espazioak edo gazteen interesa pizten dutenak aztertzea (teknologia berriak, gazte-guneak, administrazioa, eskola, elkarateak, txokoak, ekipamenduak eta zerbitzuak –kiroldegia, gazte-bulegoa, sexualitate-bulegoa...).
7. Foroetan eta batzarretan parte hartzea.
8. Beldur pertsonalak eta sozialak identifikatzea, eta horien eta generoaren eraikuntzaren arteko lotura ezartzea.
9. Proiektu errealista bat garatu ahal izateko aukerak aztertzea.
10. Gazteen parte hartzea beharrezko duten eta eredu gisa erabil daitezkeen ekipamenduak eta proiektuak ezagutzea, hala, proiektu bat garatzeko orduan kudeaketa-modu jakin bat hautatu ahal izateko (autogestioa, kudeaketa partekatua, kudeaketa administratiboa, etab.).

OINARRIZKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> ● Erantzukizuna eta konpromisoa banakako nahiz taldeko lanean ● Desberdina denarenganako errespetua ● Jasotako laguntza aitortzea ● Arrazoi sendoetan eta errespetuan oinarritutako arrazoibidea ● Taldeko jarduerekin ondo pasatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ● Argi identifikatzen ditu tratu txarren egoerak nahiz horiek sustatzen dituzten jarrerak. ● Desberdintasunaren aurrean entzuteko jarrera eta interesa agertzen ditu. ● Banakako lana isilik egin du. ● Autoestimu orekatua bultzatzen duten elementu positiboak eta autoestimu positiboa eragozten dutenak bereizten ditu. ● Erabakiak hartzeak funtsezko tokia bete duen autobiografiako une kritikoak identifikatzen ditu,

<ul style="list-style-type: none"> ● Autonomia erabakiak hartzeko orduan 	<p>eta argazki-album batean adierazten ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Garapen sozialean eta pertsonalean beste pertsona batzuek eman dioten laguntza aitortzen du. ● Erabaki-prozesuetako funtsezko elementuak eta kontzeptuak bereizten ditu. ● Taldeko jardueretan ondo pasatzen du. ● Lasaitasun osoz erabili ohi dituzten Interneteko sareak izendatzen ditu. ● Autokontrolaren aldeko eta kontrako elementuak bereizten ditu. ● Debateetan eta bere jarrera defendatzerakoan zentzuzko arrazoibideak ematen ditu. ● Taldean planteatutako lan kooperatiboan parte hartzen du, eta arauak errespetatzen ditu.
---	--

SAKONTZEKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> ● Erantzukizuna eta konpromisoa taldeko lanean ● Arrazoi sendoetan eta errespetuan oinarritutako arrazoibidea ● Boterea eta botere-abusua bereiztea ● Nork bere buruan botere pertsonalaren adierazleak identifikatzea ● Giza eskubideak erabiltzea hainbat talderen aldarrikapenen interpretazioa egiterakoan ● Taldeko jarduerekin ondo pasatzea ● Norberaren beldurrak adieraztea ● Beldurraren arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, eta baita generoak horietan duen eragina ere. ● Egindako lana argi eta zehatz adieraztea 	<ul style="list-style-type: none"> ● Manifestu bat zer den eta zer gizarte-erabilera duen ulertzen du. ● Inguruko gizarte-taldeak bereizten ditu. ● Gizarte-izaerako elkarteak eta zerbitzuak bisitatzen ditu, eta aztertuko duen taldeari buruzko informazio ugari jasotzen du. ● Giza eskubide bat bere lanerako aukeratutako kolektiboaren aldarrikapenekin lotzen du. ● Bere bizitzako esparruak bereizten ditu, eta esparru horietako bakoitzean konpromisoa duela sentitzen du. ● Bere bizitzako esparru horietan eragiten duten pertsonak identifikatzen ditu, zer nolako eragina duten jabetzen da, eta bere boterea kalkulatzeko duen esparru horietako bakoitzean. ● Landutako kontzeptuak lotzen ditu eta kausa-ondoriozko loturak ezartzen ditu ● Gure helburuak lortzeko boterea eta indar pertsonala beharrezkoak direla esaten du. ● Eguneroko harremanetan botere-abusuaren ondorio negatiboren bat identifikatzen du. ● Pertsona ahulak babesteko taldearen laguntzaren beharra arrazoitzen eta balioesten du, umiliazio-egoeretan eta tratu txarretan. ● Esku hartzea eta boterea kritikatzeko posible den esparruren bat aurkitu du, eta egoera horretarako irtenbideren bat proposatzen du. ● Intimitaterako eskubidea balioesten eta defendatzen du, eskubide unibertuala den heinean. ● Lankidetzan oinarrituta ebazten du kasua. ● Izan ohi dituen beldurrak adierazten ditu. ● Iturria generoan duen beldurra bereizten du ● Beldurrak pertsonengan izan ditzakeen ondorio positiboak eta negatiboak ahoz adierazten ditu. ● Landuko duen gaiarekin lotutako errealitateari buruzko informazioa ematen du. ● Ideia hobetzeko ondorioak eta gomendioak idazten ditu. ● Talde-lan garbi eta argia prestatzen du.

II. MODULUKO JARDUEREN KOADROA
Parte har dezaket: ahalduntzea
ENTRENAMENDUA

Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
Oinarrizkoa	II.1 Lesbofobiari, homofobiari eta transfobiari buruzko azterketa	
	II.2 Zertan da gure autoestimua?	Tresnak: II.2: Zertan da gure autoestimua?
	II.3 Nork lagundu didate erabakiak hartzen?	Tresnak: II.3: Nork lagundu didate erabakiak hartzen?
	II.4 Internet: intimitaterako mundua?	
	II.5 Ikasgelako batzarra	Tresnak: II.5: Ikasgelako batzarra
Sakontzeko	II.6 Mundu hobea baten aldeko manifestua	
	II.7 Nik egin dezaket..., bizi naizelako eta pertsona naizelako	Tresnak: II.7: Nire mundua eta ni Baliabidea: II.7 Ahalduntzea
	II.8 Botere-abusua eta diskriminazioa	Tresnak: II.8: Botere-abusua eta diskriminazioa
	II.9 Intimitaterako eskubidea	Tresnak: II.9.1: Kasuen azterketa II.9.2: Estilo asertiboa Baliabideak: II.9: Intimitaterako eskubidea
	II.10 World Cafe foroa	Tresnak: World cafe karpeta
II. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: LE/LAN EMOZIONALA: beldurra II		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
LE/II.1: Beldur berak ditugu?		Tresnak: LE/II.1: Beldurraren horma-irudia Baliabideak: http://www.radialistas.net/clip.php?id=1700036 (beldurrari beldurra)
II. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: PP/PROIEKTU PARTE-HARTZAILEA II Proiektu baten 2. urratsa		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
PP/II.1: Zer aukera ditu gure ideiak?		Tresnak: PP/II.1.1 PP/II.1.2

II.1 zk.	<i>Lesbofobiari, homofobiari eta transfobiari buruzko azterketa</i>
Deskribapena	Gazteen sexu-aniztasunari buruzko dokumental baten bitartez, hainbat kasu erreal eta horien protagonistak ezagutuko ditugu (sentimenduak, sortutako gatazkak konpontzeko moduak, hartzen dituzten erabakiak, laguntza-sareak, maitatzeko modua,...). Maitasunaren eta gure grina sexuala edo maitasun-grina adierazteko benetako aukeren inguruko mitoei buruzko debata sustatuko dugu. Askotan ezkutuan geratzen diren edo baztertu egiten diren errealitateen aurrean jarrera jakin bat hartu behar dugu.
Teknika	Hautatutako dokumentala ikustea Debatea
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Maitasuna: maitasunari buruzko mitoak hausteko, sexu-aniztasuna ezagutu behar da. Garrantzitsua da jarduera hau dinamizatuko duten pertsonen gai hauen inguruko edukiak landuta izatea: <ul style="list-style-type: none"> - Sexu-orientazioa: hetero-homo-trans - Sexu- eta genero-nortasuna - Indarkeriaren zantzuak - Mitoak (azukre koxkorra, printze urdina, maitasun erromantikoa, maitasun unibertsala...) - Subjektibotasuna, nor bere burua ezagutzea eta autoestimua - Maskulinitatea eta maitasuna - Feminitatea eta maitasuna - Indarkeriazko ezkongai-harremanak - Bullyinga: dokumentalean nabarmendu beharreko bullying kasuak ikusten dira; oso aukera ona da gai hori lantzeko. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleek dokumental egokia aurkituko dute sakontzeko materialen arteko materialetan. - Parte-hartzaileak prestatuko ditugu ikusi eta landuko ditugun gaietan: sexu-aniztasunean, hainbat kontzepturen azalpenean, hala nola homofobia, sexu-orientazioa, homosexualitatea, heterosexualitatea... - Sexu-aniztasunari buruzko dokumentala emango dugu, eta ezagutzen dituzten kontzeptuak edo deigarri gertatu zaizkien datuak jasoko dituzte. - Iritziak trukatzeko une bat sortuko dugu. - Taldeka, adierazpen-askatasunarekin eta sexu-aniztasunarekin lotutako dekalogo bat prestatuko dute. - Dekalogo hori ikastetxean argitara daiteke (iragarkien taulan, blog batean, karteletan...) 	
Sakontzeko	
<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriari aurrea hartzeko gida. Emakume Gazteen Federazioa. Jaitsi hemendik: http://www.muheresjovenes.org/quienes_somos.php - Indarkeriari aurrea hartzeko gida. Urtxintxa Eskola. Jaitsi hemendik: www.urtxintxaeskola.org - Aldarte: http://www.aldarte.org/cas/site/default.asp - Euskal Herriko gay-les askapenerako mugimendua: http://www.ehgam.org/ - Deskonekta zaitetz tratu txarretatik: http://www.minoviomecontrola.blogspot.com/ - www.gehitu.net 	

II.2 zk.	Zertan da gure autoestimua?
Deskribapena	Intimitateari, erlaxazioari eta nork bere burua ezagutzeari buruzko jarduera da.
Teknika	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako lana: galdeketa - Talde-lana: debatea
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - II.2 tresna: zertan da gure autoestimua? - Erelaxatzeko musika eta musika entzuteko tresna
Funtsezkoa alderdiak	
<p>Gure baliabide pertsonalak ezagutzen baditugu eta modu eraginkorrean erabiltzen baditugu, parte-hartzea egingarriagoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzientzia handiagoa izango dugulako. - Erabakitze ahalmen handiagoa izango dugulako. - Eragiteko ahalmen handiagoa izango dugulako. - Konpromiso maila handiagoa izango delako. <p>Alderdi metodologikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Segurtasun-giroa bilatzen dugu, norberak inguruaren presiorik gabe gogoeta egin ahal dezan bere buruari buruz. Horretarako, une egokia zein den pentsatu behar dugu, edozein ordu ez da ona, ezta edozein egun ere. Irakasleok horretarako egunik egokiena zein den pentsatuko dugu aurrez. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Autoestimuari buruzko galdeketa banatuko diegu ikasleei. Lan pertsonala dela eta erantzunak ez direla bateratuko esango diegu. Lasai eta segurtasunez egin dezakete. - Giro lasaia sortuko dugu, musika lasaigarria eta isiltasuna erabiliz. Komenigarria bada, beste toki egokiagoren bat bilatuko dugu ikasgelatik kanpo. - Galdeketa egingo dugu. - Lan hori egin ondoren, ikasleei galdetuko diegu ea euren ustez zer alderdi landu beharko genituzkeen autoestimu positiboa lortzeko, eta zer alderdik oztopatzen duten autoestimu hori lortzea. - Genero-indarkeriari aurre egiteko Gidako 3. kapituluaren teoria azalduko dugu. Emakume Gazteen Federazioa. 	
Sakontzeko	
<p>Emakunde aldizkaria, Procesos de empoderamiento de la adolescencia vasca. Martxo, 2009 Emakume Gazteen Federazioa (2005). <i>Guía de prevención de violencia de género</i>. Madril. Jaitsi hemendik: http://www.mujeresjovenes.org/quienes_somos.php</p>	



II.2 tresna. Zertan da gure autoestimua?

Eskaini une bat zure buruari eta egin galdera hauek. Erantzun honela:
1 = Bai, beti
2 = Bai, gehienetan bai
3 = Bai, batzuetan
4 = Ez, gehienetan ez
5 = Ez, inoiz ez

Emandako erantzunen arabera, zure autoestimua nola dagoen erabaki dezakezu	1	2	3	4	5
Bizitzan bizi izandakoak nire burua maitatzen eta balioesten erakutsi al dit?					
Iritzi ona al dut nire buruaz?					
Nire burua ondo tratatzen dut eta nire burua zaintzen dut?					
Gustuko dut nire burua?					
Nire nolakotasune, abileziei eta alde sendoei nire ahuleziei eta akatsei ematen diedan garrantzi bera ematen diet?					
Ondo sentitzen naiz nire buruarekin?					
Uste dut eskubidea dudala gainerako pertsonen entzun diezadaten eta denbora eskain diezadaten?					
Gauza onak gertatzeko eskubidea dudala uste dut?					
Nire buruarekin ditudan itxaropenak gainerako pertsonetikiko ditudanak baino zorrotzagoak edo perfekzionistagoak dira?					
Nire buruarekiko harremanetan atsegina eta bihoztuna naiz, edo autokritika nagusitzen da gehiago?					

Eta... horrek guztiak indarra ematen dit:

Iturria: Emakume Gazteen Federaziotik egokitua (2005). *Guía de prevención de violencia de género*. Madril.



II.3 zk.	<i>Nork lagundu didate erabakiak hartzen?</i>
Deskribapena	Gure bizitzaz pentsatuko dugu, eta norbaitek erabakiren bat hartzen lagundu digun uneren bat edo gure ordeztu erabaki duen uneren bat azpimarratuko dugu, gero eta autonomia eta erantzukizun handiagoa hartu behar dugula jabetzeko.
Teknika	<ul style="list-style-type: none">- Banaka.- Talde handian.
Materialak	II.3 tresna: nork lagundu didate erabakiak hartzen? Argazkiak Album autobiografikoa osatzeko aplikazio digital bat
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Autonomia maila handiagoa lortzeak erantzukizunaz jokatzeko eskatuko diguten eremu zabalagoak onartu beharra ekarriko du.- Erabakiak hartzerakoan orientabideak ematea eta lagun egitea balioesteko eta eskerrak emateko moduko elementuak dira.- Hezkuntza-prozesuaren arrakasta zuzen-zuzenean lotzen zaio autonomia pertsonalerako gaitasuna gartzeari.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Datu autobiografikoak eta argazkiak bilduko ditugu, zuzenean edo zeharka une erabakigarri horietara eta prozesuan lagun izan ditugun pertsonengana hurbiltzen lagunduko baitigute.- Boterearekin, erabakiguneekin eta eraginarekin lotutako alderdi eta kontzeptuak erlazionatzeko lagungarri izango zaizkigun analisi-fitxa eta kalifikazioak osatuko dira.- Duela gutxi bizitako gertuko esperientzia bat, erabakiak hartzen ari garela sentiarazi digun eta horretarako aukera eman digun bizipen bat, balioetsiko da.- Amaierako elkarrizketa labur batean, moduluaren helburuekin lotutako ondorioak bilduko dira.	

II.3 tresna. Nork lagundu didate erabakiak hartzen?

Erabaki bat hartu behar izan dudan nire bizitzako zenbait une garrantzitsu aukeratuko ditut, eta aztertu egingo ditut, honako taula honen laguntzaz. Aukera desberdinak balioesteko inguruko laguntza izan arren erabaki bat hartu behar izan dudan beste egoera batean pentsatuko dut (laugarrena). Interesgarria izan daiteke nire biografiako une horiekin lotutako zenbait argazki bilatzea eta, horrela, halako collage edo album bat egitea lau egoera horiekin, ezagutzen dugun baliabide digitalen bat erabiliz horretarako (adibidez: <http://picasa.google.com/intl/es/>)

Egoera	hartu beharreko erabakia	Adierazleak (<i>aukeratu dagokizuna honako bi mutur hauen artean</i>)		
		ni	0-1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	beste batzuk
1		autonomia		
		erantzukizuna		
		txikia	0-1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	handia
		askatasuna		
		gogobetetasuna		
Nortzuk nituen inguruan une horretan?				
Aintzat hartu zuten nire iritzia? Zergatik?				
4	Erabaki hau hartu dut:			
	Aukera hauek nituen:			
	Honekin hitz egin dut horretaz:			
	Pertsona hauek lagundu didate gehien:			
Zer sentitzen da erabaki beharra eta erabakitzeko aukera dugunean?				

BATERATZE-LANA

II.4 zk.	Internet: intimitaterako mundua?
Deskribapena	Jarduera honetan, partaidetzarako gune gisa teknologia berriek duten erabilera aztertuko dugu; baina, aldi berean, norberak eta ez "besteek" kontrolatu beharreko mundu bat dela ikusi behar dugu. Harreman eta bizikidetzaren positiborako sare eta foroak sortzeko gune gisa Internetek zer balio duen aztertzea da kontua.
Teknika	Jolasa: "kontrolrik gabe" Taldea handian: debatea
Materialak	Ordenagailuak eta Internet
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Biribilean jarrita egingo den jolas honetan, inork ez duela minik hartuko, guztiak dibertituko direla eta helburua betetzen dela bermatu nahi da. Hala gertatzen ez bada, gogoeta egingo dugu, horrela zergatik ez den izan eta "porrotera" zer jokabidek eraman gaituzten aztertzeko. - Une egokia izan daiteke gazteen arteko bikote-harremanetan mutil askok nesken gain izaten duten kontrolaz hitz egiteko eta gai horretan sakontzeko. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - "Kontrolrik gabe" deritzon jolas honetarako, 5/6 laguneko taldeak osatuko dira. Parte-hartzaile guztiak biribil bat osatuko dute, eta bat biribilaren barrualdean kokatuko da. Azken horrek borondaterik gabe utziko du bere burua, eta alderik alde ibiliko dute biribilean batetik bestera. Biribilean daudenek beraiei bururatzeko zaien keinuren bat egiteko ere eska diezaizkete. Txandaka, rola alda ditzakete. - Jarduera egin ondoren, gogoeta egingo da talde handian: <ul style="list-style-type: none"> a. <i>Nola sentitu dira biribilaren barruan?</i> b. <i>Zer dira botere pertsonala eta autokontrola?</i> c. <i>Nola sentituko da botere pertsonalik erabili ezin duen pertsona bat?</i> d. <i>Nola sentitu dira biribilaren erdian beren burua borondaterik gabe utzi duten pertsonak?</i> e. <i>Nagusitasun/mendetasun eskemaren barnean, zer-nolako harremanak ezartzen dira pertsonen artean?</i> f. <i>Gure bizitzako zer unetan gerta daiteke horrelakorik? Gerta al daiteke Interneten? Nola?</i> - Azterketa hori egin ondoren, ezagutzen dituzten sare birtual guztiak (messenger, tuenti, facebook, myspace...) aipa ditzakete berriro ere taldean (eta sare horiek bisita ditzakete gelan, horretarako aukerarik izanez gero); eta partaidetzarako, botere pertsonalerako eta autokontrolerako lagungarri nahiz kaltegarri izan daitezkeen alderdiak azpimarra ditzakete: <ul style="list-style-type: none"> a. <i>Nork parte hartzen dute horrelako sareetan?</i> b. <i>Zer harreman mota ezartzen da sare horietan?</i> c. <i>Kontrolrik ba al dago? Nork kontrolatzen du nor?</i> d. <i>Nola kontrola dezakegu, kontrola ez gaitzan?</i> e. <i>Nola kontrola dezakegu ondo kontrolatzen ari garela?</i> 	
Sakontzeko	
<p>Cantera, Itziar; Estébanez, Ianire; Vázquez, Norma (2009). <i>Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo</i>. Deustu-San Ignazioko Arreta Psikosoziako Moduluko Emakume Zerbitzua.</p> <p>Cantera, Itziar; Estébanez, Ianire; Vázquez, Norma (2009) <i>Revista Desconecta del maltrato. Guía para jóvenes</i>. http://minoviomecontrola.blogspot.com</p> <p>"Kontuz Datos": http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuz00/eu/contenidos/informacion/udcd/eu_udcd/decides.html</p> <p>"Pantallas amigas": http://www.pantallasamigas.net/</p>	



II.5 zk.	<i>Ikasgelako batzarra</i>
Deskribapena	Lankidetzan oinarritutako dinamika honek ikasgelako batzarra elkarrizketarako eta lankidetzarako estrategia gisa egokia den ebaluatzen lagunduko digu, ikastetxearen antolamendu eta egituraren ezarri edo indartu dezakegun estrategia baita.
Helburuak	<ol style="list-style-type: none">1. Ikasgelako batzarraren aukerak eta izan ditzakeen erabilerak ebaluatzea.2. Berron ezagutza eta erabilera sustatzea, partaidetzarako estrategia den neurrian.3. Batzarraren eraginkortasuna eta arrakasta bultzatzen lagunduko duten mekanismoak indartzea.4. Batzarrak eraginkortasunez funtziona dezan beharrezkoak diren arauak eta karguak adostea.
Lorpenen adierazleak	<ul style="list-style-type: none">- Antolamenduaren eta zereginen banaketaren ikuspegitik, ardurak eta konpromisoak hartu dira, ikasgelan batzarrak egiteko.- Ikasgelaren dinamikan batzarrak parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko duen ahalmenari buruzko arrazoiak ematen ditu.- Taldeak bere buruari ezarritako arauak eta konpromisoak errespetatzen dira.- Parte hartzen du taldean planteatutako talde-lanetan.
Zenbat denbora beharko den	50´
Teknika	Arkatzak erdira (egokitua: Pere Pujolas, José Ramón Lago, Vic-eko Unibertsitatea) ³
Materialak	Elkarrekin lan egiteko fitxak (II.5 tresna)
Funtsezko alderdiak	
Jardueraren izaera kooperatiboa nabarmendu nahi dugu, eta, beraz, horregatik azpimarratu dugu proposatutako metodologia.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Dinamizatzaileak II.5 tresna jasotzen duen orria emango dio talde bakoitzari; orri horretan, taldekideak adina galdera izango dira (kasu honetan, lau). Parte-hartzaile bakoitza galdera baten erantzunaz arduratuko da: ozen irakurriko du, gainerako taldekideek informazioa ematen dutela ziurtatuko du, eta adostutako erantzuna guztiek ulertzen duten egiaztatuko du.- Hizketan ari direla eta taldeko erantzuna adosten duten bitartean, arkatzak mahaiaren erdian kokatuko dira. Talde osoak gauzak argi dituenean (galdera horren ardura duen pertsonak erantzuna guztiek dakitela ziurtatu behar du), bakoitzak bere arkatza hartuko du, eta adostutako erantzuna idatziko du fitxan. Jada ezin da hitz egin une horretan, idatzi baino ez dute egin behar.- Horrelaxe jarraituko dute galderaz galdera, jarduera osatu arte.	

³ <http://www.cife-ei-caac.com>

II.5 tresna. Ikasgelako batzarra

Taldeak duen eskubide bat da batzarra eta, eskubide horri esker, gauzak nola doazen azter dezakete, arazoez berriro pentsatu, taldekideen parte-hartzea eskatzen duten jarduerak proposatu eta antolatzeko eta adostutako proposamenak abian jarri eta jarraipena egiteko beharrezko neurriak aurkeztu.

Aldarrikapenetik taldeko konpromisora:

Zer ikuspegi dugu batzarrei buruz? Zuen iritziz, nola balioesten dituzte irakasleek? Eta nola balioesten ditugu guk?

Egin esaldi honen balorazioa: *antolatutako toki eta denbora tarte sistematizatu bat izateak elkarrizketa, lankidetzeta eta sormena sustatzen ditu, eta horixe da partaidetzarako oinarrizko estrategietako bat.*

Idatzi esaldi batean batzar bat egiteko izan daitezkeen zailtasunak, eta balioetsi batzarrak oso modu negatiboan.

Adostu batzar bat ondo joan dadin zuen iritziz beharrezkoa den arau bat, eta pentsatu batzarrak ondo funtziona dezan beharrezkoa den kargu edo ardura bat.

Proposamenetatik akordioetara, eta akordioetatik arduretara: proiektu eta erabakien jarraipena.

Talde handian, gai hauei buruz hitz egingo dugu:

- Zer ekarpen egiten dio akordioak taldearen funtzionamenduari?
- Zergatik izaten da zaila akordioak betetzea?
- Guztiok gaude behartuta batzarraren erabakia betetzera?
- Akordioak eta konpromisoak suntsi ditzake pertsonaren ekimena eta askatasuna?




II.6 zk.	Mundu hobe baten aldeko manifestua
Deskribapena	Gizarte-egoera ahulean dagoen kolektibo baten eskubideetan aurrera egiteko, hainbat hobekuntza aldarrikatzen dituen manifestu bat diseinatuko dugu, eta, horrela, guztiok izan behar genituzkeen oinarrizko eskubideak aztertuko ditugu.
Teknika	Talde txikitik: ikerketa, eta manifestua lantzea.
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- Ordenagailuak eta Internet.- Manifestua egiteko kartelak: kartoi mehea, arkatz markatzaileak, guraizeak...- Bilatu aztertuko den kolektiboarekin lotutako giza eskubide bat, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalekoa: http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Kolektibo horiei buruz informazioa biltzeko auzo-elkarteetara edota gizarte-izaerako elkarte eta zerbitzuetara bisitak egin nahi badira, aurrez prestatu beharko dira: nola hurbilduko diren, nola azalduko dieten zer lan egiten ari diren, zer galdetu, informazioa nola bildu, edota jaso duten erantzunagatik eskerrak nola eman.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- 4/5 laguneko taldeak osatuko dira, eta jarduera egiteko prozesua azalduko zaie. Oinarrizko eskubideen funtsezko agiri gisa, Giza Eskubideen Adierazpena emango zaie.- Hasteko, beraien ustez gure auzo eta herrietan gizarte-egoera ahulenean bizi diren kolektiboak identifikatu behar dituzte (gizon eta emakume etorkinen artean, emagalduen artean, homosexualen artean, mugikortasuna murriztuta duten pertsonen artean, lanik edo etxerik ez duten gazteen artean, ijitoen artean, familian ardurak dituzten pertsonen artean...). Kolektibo batzuek aukera gutxiago zergatik dituzten azalduko zaie, edo zerk eragozten dien beste kolektibo batzuek dituzten eskubideez edo egoerez gozatzea.- Kolektibo horiek apur bat ezagutu ondoren, bat aukeratuko dugu, taldean kolektibo horren ezaugarrietan sakontzeko. Interneten, inguruko elkarteetan, gizarte-zerbitzuetan eta abarretan bilduko dute informazioa.- Aukeratutako kolektibo hori ondo ezagutzen dutenean, "gizarte-egoera ahul" hori gainditzeko zer zailtasun dituzten ikertuko dute, eta kolektibo horretako kideen egoera hobetzeko egin daitezkeen ekintzak bilduko dituzte zerrenda batean. Bisita ditzaketen elkarte eta foroetan, argibide ugari aurkituko dituzte.- Zerrenda horrekin, manifestu bat prestatuko dute, eta ikastetxeko iragarki taulan, blogean, erakusketa batean, jolastokiko mitin batean, ikasgeletara egiten dituzten bisitetan eta abarretan erakuts dezakete.	



II.7 zk.	Nik egin dezaket...
Deskribapena	"Nik egin dezaket..." jarduerak norberaren bizi-proiektuan eta norberaren ahalmenean pentsa dezagun bultzatu nahi du, subjektibotasunaren ikuspegitik eraiki dezagun hori guztia, betiere kontuan hartuta besteekiko nahiz inguru hurbilarekiko interdependentzia.
Teknika	<ul style="list-style-type: none">- Talde txikietan: puzzle bat osatzea- Banakako lana: barne-behaketa- Talde handian: eztabaida
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- II.7 tresna- II.7 baliabidea: ahalduntzea- Puzzleak (proposamen honekin hasi behar bada)
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Xume eta argi azaldu behar diegu zer den ahalduntzea, subjektibotasunetik, taldearen jarduerak eta ahalmena aztertzeko.- Gure bizi-esparruetan besteek duten eragina hainbat modutara azal daiteke: zer mailatakoa den esanez (eragin handia, ertaina edo txikia), erabakiak nola hartze diren ikusiz (nire ordezt erabakitzen dute, elkarrekin erabakitzen dugu, erabakitzeko orduan ez diot inori galdetzen), nola komunikatzen garen aztertuz (gertatzen zaizkigun gauzez egunero hitz egiten dugu, soilik gertatzen zaizkien gauzez hitz egiten dugu, soilik niri gertatzen zaizkidanez hitz egiten dugu), afektu-harremanen arabera (txera, adiskidetasuna, maitasuna erakusten diogu elkarri; ez diogu elkarri inoiz afektuzko edo maitasunezko hitzik esaten, ez dugu inoiz erakusten gure afektibitatea), edo bururatzen zaizkigun beste hainbat itemen bidez.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Saioa hasteko, irakasleak galdetuko die ea zer den puzzle bat beren ustez: zer ezaugarri ditu puzzleak? (<i>Unitate bat da, eta hainbat azpiunitatek osatzen dute; beren izatea dute zati horiek, baina, zerbait logikoa osatzeko, besteen beharra dute. Batasun edo unitate hori ere azpiunitate horien mende dago, "osatu" ahal izateko guztiak baititu beharrezko</i>). Puzzleak eman diezazkiekegu, taldeka egin ditzaten eta jarduera jolas moduan has dezaten.- Jarduera honetako tresnekin lanean hasi aurretik, norberaren ahalmena edo ahalduntzea zer den azaldu beharko diegu.- Ikasle bakoitzak puzzle bat izango du, II.7 tresnan ageri dena bezalakoa. Puzzleak bezala, gure bizitzak ere piezak dituela esango diegu. Badirudi pieza bakoitza askea dela besteekiko, baina norberaren zati dira guztiak. Ariketan, horietako bakoitzean pentsatu behar dugu, eta horietako bakoitzak norberarengan (osotasuna) eta besteetan (azpiunitateen arteko interdependentzia) nola eragiten duen aztertu behar dugu.- Tresnari dagokion fitxan, zati horietako bakoitza norberak nola ikusten duen idatzi behar dute, eta beste zer piezarekin lotzen den (puzzlean bertan geziak eginez azal dezakete, edo maila zehaztuz, adibideak emanez....).- Amaitzeko, galdera hauxe egingo zaie: zuen ustez, zer piezatan dauka zuetako bakoitzak ahalmen handiena? Zeinetan sentitzen zarete "askeago" zuen erabakiak hartzeko orduan edo erabakietan eragiterakoan? Pribatutasunari eusteko, orokorrean erantzungo da.	

II.7 tresna. Nire mundua eta ni





II.7 tresna.Nire mundua eta ni (jarraipena)

Puzzlearen piezak elkarren mende daude, gure bizitzako piezak bezala. Agian, hemen ageri direnak baino pieza gehiago daude edo egongo dira zure bizitzan; horregatik, puzzle hau beste hainbat formaren bidez osatzen joan daiteke. Orain, egin dezagun gogoeta horietako batzuei buruz. Pentsatu eta idatzi (ez du zuk beste inork irakurriko):

- Nola dago edo nolakoa da zure bizitzako atal hori?
- Zer-nolako ahalmena duzu berorren gain?
- Zutaz gain, bada zure bizitzako atal horretan eragina duen beste inor? Zer egiten du horretarako? Nola sentitzen duzu hori?
- Pieza horietako bakoitzak beste zer piezarekin du harremana?

LAGUNAK	
FAMILIA	
IKASKETAK	
GAZTE-GUNEA	
NIRE IDEIAK	
NIRE OSASUNA	
INTERNET	
JARDUERA FISIKOA	

II.7 baliabidea. Ahalduntzea

Ahalduntzearen definizioak.
www.gizonduz.net

1. Ahalduntzea terminoa ingelesezko empowerment kontzeptuaren itzulpen literala da, eta pertsonak edo taldeek "ahalmen gehiago izatea" esan nahi du, hau da: posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea. Emakumeen eta gizonen berdintasuneran testuinguruan, emakumeek beren buruen eta taldearen kontzientzia hartzearen prozesuarekin dago lotuta; kontzientzia hartzeak aukera ematen die erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze handiagoa izateko, agintera errazago sartzeko eta eragin handiagoa izateko. (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, Emakunde)
2. Gizonak eta emakumeak beren bizitzaren kontrola izateko egiten duten prozesua adierazten du: beren agendak ezartzen dituzte eta gaitasunak lortzen dituzte (edo beren gaitasunengatik eta ezagutzagatik baloratzen dituzte), autoestimua hobetzeko, arazoak konpontzeko eta autogestioa garatzeko. Prozesua eta emaitza da. (INSTRAWetik hartua, IDRC 1998n dago oinarrituta)
3. Emakumeak beren bizitzetan aukeraketa estrategikoak egiteko gaitasun gehiago izatea gaitasun hori mugatuta egon ohi zen testuinguruetan; hori ere esan nahi du (INSTRAWetik hartuta. Kabeer, N. "Reflections on the Measurement of Women`s Empowerment"en dago oinarrituta)
4. Genero-ikuspegiaren kontzeptu nagusia. Emakumeen posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea hartzen du barne. Bere helburua sexuen arteko botere-harremanak gutxitu edo ezabatzea da. Garrantzitsua da botere terminoa "zerbaitetarako botere" gisa erabiltzen dela azpimarratzea –adibidez, gizarte-harreman batzuetan edo guztietan eragina, boterea eta buruzagitza izateko bakoitzaren gaitasun eta trebetasunak aintzat hartzea eta horren arabera aritzea–, eta ez beste pertsonengan izan dezakegun boterearen arabera. ("Aurrekontu Publikoak Genero Klabea", Emakunde)

II.8 zk.	Botere-abusua eta diskriminazioa
Deskribapena	Gure erantzunak taldeko gainerako kideei adieraziko dizkiegu eta haien erantzunekin alderatuko ditugu, boterearen, gerta daitekeen botere-abusuaren eta berorren ondorio negatiboen inguruan (umiliazioa eta diskriminazioa) gogoeta egiteko
Teknika	Zirkulu zentrokideak
Materialak	II.8 tresna
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Garrantzi handia du boterearekin eta ahultasunarekin lotutako irudiak lantzeak. - Hainbat sineskeria baztertu behar dira, besteak beste, "inork zuri eman aurretik, eman zuk lehenengo", "ez erakutsi ahuleziarik, "gizakia indartsua da", "ahulek partekatzen dute soilik", "akordioa ahulen kontua da"... - Norberaren erantzukizun mailak mugatzea komeni da, horrela, erruduntzat "botere handi eta kontrolaezinak" hartuta errua ez egozteko beti besteei eta inhibizio edo konformismorako joerak ez indartzeko. 	
Garapena (Juan de Vicente Abad, in J.C. Torrego (2008), <i>El Plan de Convivencia, Alianza</i>)	
<ul style="list-style-type: none"> - Binaka, gogoeta egingo dute eta jolasa prestatuko dute, fitxan proposatzen diren jarduerak osatuz. Fitxak ez dira eramango zirkuluetara, baina ondo osatu behar dira, dinamikan parte hartu ahal izateko gero. - Dinamikari ekingo diote. Ikasleen erdiek, zutik eta kanpoaldera begira jarrita, zirkulu bat osatuko dute; eta beste zirkulu zentrokide bat osatuko dute gainerakoek, barrura begira. Beraz, pertsona bakoitzak beste bat izango du aurrean, lanean bikotekide izan duena edo beste edonor. Ikasleen kopurua bikoitia ez bada, dinamizatzailea ere zirkuluan sartuko da, edo ikasle bat aterako da zirkulutik, jarduera zuzendu dezan. - Fitxetako galderak planteatuko dira, eta bikotekideek beren erantzunak komentatuko dizkiote elkarki. Handik pixka batera, agindu bat emango da, eta zirkuluaren kanpoaldean daudenak nahiz barruan daudenak aginduan adierazi adina toki harantzago mugituko dira, esaten zaien noranzkoan; horrela, beste pertsona bat izango dute aurrez aurre, eta hurrengo galdera planteatuko da. - Hauxe da mezurik garrantzitsuena: "gogoan hartu gehien gustatu zaizkizun erantzunak, amaieran komentatzeko". - Eseri egingo dira, jarduerari buruz hitz egingo dute, eta fitxa pertsonala osatuko dute, gauza berriak entzun direla kontuan hartuta. Bete gabe utzitako atalak beteko dituzte edo taldeak egindako ekarpena interesgarria iruditu zaielako aldatu nahi dutena aldatuko dute. 	



II.8 tresna. Botere-abusua eta diskriminazioa

Gero talde handian garatuko dugun dinamika prestatuko dugu, honako jarduera eta esaldi hauek osatuz. Ez badakizu zer esan, zoaz hurrengora, eta, prozesua amaitzean, eskatu laguntza puntu guztiak osatzen ahalegintzeko. Esaldiren batekin ados ez bazaude, azaldu zergatik eta aldatu proposamena.

Bilatu "pertsona ahaltzu" esapidearen sinonimo bat:

Eman "pertsona ahularen" adibide bat:

"Boterea" adierazten duen irudi edo objektu bat:

"Boterea" adierazten duen soinu bat, musika bat, zarata bat:

"Boterea" adierazten duen keinu bat, jarrera bat:

Pentsatu "pertsona ahaltzu" izanda egin dezakezun gauza bat:

Pentsatu "pertsona ahula" zarelako egin ezin duzun gauza bat:

Pertsona ahaltzu sentitzeak dakarren gauza on eta positibo bat:

Zeure burua pertsona ahul gisa ikusteak dakarren gauza txar bat:

Boterea positiboa da egoera honetan:

Nik botere gehiago izateko beste norbait zapaltzea.....litzateke

Adierazi zure hitzekin "botere-abusua":

Botere-abusua ikusten den egoera bat:

Umiliazio-egoera bat:

Eskolako tratu txarrekin lotutako egoera bat:

Etxeko tratu txarrekin lotutako egoera bat:

Munduan tratu txarrekin lotuta dagoen egoera bat:

Nire harremanetan, ez zait gustatzen:

Norbait tratu txarra ematen ari zaizkiola ikusten dudanean:

Nire taldean, "ahultzat" hartzen da norbait horrelako egoera batean:

Nire taldean, "gogorra" izan beharra dago, bestela...

Horrelako egoeretan laguntzea gustatzen zait:

Lagun ona da hau egiten duena:

Norbait umiliatzen ari direla jakingo banu, salatu egingo nuke, arrazoi honegatik:

Norbaitekin gehiegikeriaz jokatzeko ari direla ikusi arren, ez naiz ausartzen...

"Diskriminazioa" adierazten duen irudi bat, gauza bat:

"Diskriminazioa" adierazten duen soinu bat, musika bat, zarata bat:

"Diskriminazioa" adierazten duen keinu bat, jarrera bat:

Pentsatu "pertsona ahaltzu" izanda egin dezakezun gauza bat:

- **Zerbait erantsi nahi duzu?**

Orain, emaitzak talde handian partekatuko ditugu, bi zirkulu handi osatuz; ematen dizkiguten erantzunei erreparatuko diegu, eta gogoan hartuko ditugu harrigarrienak edo interesgarrienak iruditzen zaizkigunak.

II.9 zk.	Intimitaterako eskubidea: egunerokoa
Deskribapena	Kasuak ebatziz eta eguneroko bat irakurriz, gogoeta egingo dugu intimitateari buruz, pertsona guztiok beharrezkoa baitugu intimitatea.
Teknika	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezkoa ikustea - Egunerokoaren irakurketa - Talde txikitan: kasuei irtenbidea aurkitzea.
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubideak: http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq - II.9.1 eta II.9.2 tresnak - II.9 baliabidea - Rodríguez Sanchez, Sibisse (2008) <i>Las decisiones de Sandra</i>. Madril: Federación de Mujeres Jóvenes. Hemendik jaitsi daiteke: http://www.mujeresjovenes.org/quienes_somos.php
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Intimitaterako eskubidea, 12. Giza Eskubidea (II.9 baliabidea) - Bikote gazteen artean tratatu txar psikologikoak zer diren aztertu beharko dute irakasleek. Horretarako, Deustu-San Ignazioko Arreta Psikosoziako Moduluko Emakume Zerbitzuaren txosten hau erabil dezakezue: <i>Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo.</i> (2009) Harremanetarako: http://www.minoviomecontrola.blogspot.com/ - Estilo asertiboa (II.9.2 tresna) 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Pertsona guztien intimitaterako eskubideari buruzko film labur bat ikusiz hasiko dugu jarduera hau. Ondoren, elkarri zer sentitu duzuen kontatzeko denbora tarte bat utziko dugu: zer sentitu duzue?, zer iruditu zaizue?, ezagutzen al zenuten eskubide hori? - Iruzkina egin ondoren, hiruzpalau laguneko talde txikiak osatuko dira, II.9 tresnako kasuak aztertzeko. - Bi kasuetako bakoitzari zer irtenbide eman dieten adieraziko dute guztiak. - Irtenbide guztiak entzun ondoren, onena aukeratzen saiatuko dira, irizpide hauek oinarri hartuta: intimitaterako eskubidearen errespetatzen du, protagonista den pertsonaren desioak errespetatzen ditu, zer nahi duen modu asertiboan adierazten du. - Eguneroko bat zer den jakiteko, honako eguneroko hau irakurri dezake norberak: Rodríguez Sánchez, Sibisse (2008) <i>Las decisiones de Sandra</i>. Madril: Emakume Gazteen Federazioa. Irakurtzeko denbora pixka bat emanaz gero, saio bat eguneroko horren inpresioak eta edukiak aztertzeraz zuzendu daiteke. - Pujana, Ibai: Egunon printzesa! http://vimeo.com/32735173. Urtxintxa Eskola 	

II.9.1 tresna. Kasuen azterketa

Taldeka, irakurri bi kasu hauek, eta eman zuen iritzia. Gogoratu botere pertsonalari buruz egin dugun lanaz eta intimitaterako eskubideaz esan duguna.

1 kasua: neska-laguna kontrolatzen duen mutila

Neska bat mutil-lagunak sakelako telefonoko dei guztiak kontrolatzen dizkiola ohartzen da. Elkartzen direnean, mutilak galdetzen dio berarekin egon ez denean non eta norekin egon den. Ia beti egiten du hori, eta ez dio ezer gehiago galdetzen. Neskak ez daki mutilak zergatik egiten duen hori, kontrolatzeko edo soilik beragan interesa duelako. Apur bat nazkatzen hasita dago. Nola ulertaraziko dio intimitaterako eskubidea duela?

Gogoeta:

Aztertu kasua neskaren tokian jarrita. Haren egoeran imajinatu behar duzue zuen burua, baina ez ahaztu mutil horrek zerbait berezia sentiarazten diola, eta mutilak behin eta berriro esan diola oso gustuko duela eta berarekin maiteminduta dagoela. Zer egin behar luke? Zer esan behar lioke?

2. kasua: semea kontrolatzen duen ama

Zuen adineko mutil bat kalera irteten denean amak karpetak, jantziak eta tiraderak, guztia miatzen diola konturatzen da. Eta larritu egiten du horrek. Nazkatuta dago! Eztabaida ugari izan ditu amarekin, eta amak haren onerako ari dela esaten dio azkenean beti, ez duela nahi semea liskarretan sartzerik, edo drogak hartzen hasterik... Zer egin dezake mutilak amari intimitaterako eskubide osoa duela ulertarazteko?

Gogoeta:

Aztertu kasua mutilaren tokian jarrita. Imajinatu zuen burua haren tokian, baina ez ahaztu amak betetzen duen lekua ere, hura babestu eta ahalik eta ondoen hezi nahi baitu. Zer egin behar luke? Zer esan behar lioke?

Orain, talde handian aztertuko ditugu emaitzak; aukeratu zuen iritzia argi eta garbi azalduko dituen norbait.

II.9.2 tresna. Estilo asertiboa komunikazioan

Bada komunikatzeko modu bat pertsonari beren pertsonarteko helburuak lortzen laguntzen diena, etorkizuneko harremanetan kalterik eragin gabe: estilo asertiboa. Asertibotasunez jokatzean, zer nahi duzun adierazten duzu modu zuzen, zintzo eta egoki batean, eta argi eta garbi esaten duzu beste pertsonarengandik zer nahi duzun, baina errespetuz jokatzeko duzu beti. Zure nahiak eta beharrak beste pertsonari modu argi eta zehatzean adierazteko abilezia da asertibotasuna, haren ikuspuntua errespetatuz beti.

Hitzezko adierazpena:

- ⇒ Jokaera sendoa eta zuzena erakusten du, bere helburua adierazpen argia eta zuzena egitea baita, inor iraindu gabe.
- ⇒ Lehenengo pertsonan adierazitako mezuak erabiltzen ditu (nahi dut, pentsatzen dut...)

Hizketaz kanpoko adierazpena:

- ⇒ Keinu zintzoa erabiltzen du.
- ⇒ Jarrera erlaxatua erakusten du.
- ⇒ Ez du tentsiorik agertzen giharretan.
- ⇒ Burua goian izaten du eta aurrekoari begiratzen dio.
- ⇒ Beste pertsonari zuzendutako buru-mugimenduak eta begirada.
- ⇒ Pertsonen arteko espazio egokia.

Beste ezaugarri batzuk:

- ⇒ Bere eskubideak babesten ditu.
- ⇒ Inor iraindu gabe lortzen ditu bere helburuak.
- ⇒ Bere buruarekin gustura sentitzen da.
- ⇒ Bere kabuz hautatzen du.
- ⇒ Argi adierazten du bere jarrera zein den edo zer nahi duen.
- ⇒ Ahal denean azalpen bat ematen du.
- ⇒ Helburuak ditu orientabide, baina malgutasunez jokatzeko du.

II.9 baliabidea. Intimitaterako eskubidea

Intimitatea kanpotik behar ez den pertsonaren zatia da, pertsonari soilik dagokiona. Norbanakoaren eremu pribatuaren barnean txertatzen da pertsona horren datu pertsonalekin, harremanekin, osasunarekin, postarekin, komunikazio elektronikoko pribatuekin eta abarrekin lotutako edozein informazio.

Beste pertsonak beren bizitza pertsonala, hau da, beren sentimenduak eta jarrerak, ezagut ez ditzaten pertsonak duten eskubidea da. Pertsona batek eskubidea du kontrolatzeko bere pertsonaleko hainbat alderdi nork ezagutu ditzakeen eta noiz.

Pribatutasuna pertsona baten bizitzako alderdirik sakonena da, pertsona horren sentimenduak, familia-bizitza edo adiskidetasunezko harremanak hartzen dituena. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 12. artikulua hauxe dio: "Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatua, familia, etxean edo postan sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea". (<http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq>)

II.10 zk.	<i>World cafe: giza eskubideak ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean</i>
Deskribapena	Hezkuntza-elkarteko eta inguruko pertsona gehiago inplikatu nahi ditugu proiektuan, eta komunikazioa bistaratuko den gune bat sortu nahi dugu, iritziak eta proposamenak biltzeko eta egituratzeko; horregatik, jarduera honetan truke eta komunikazio aske eta sortzailerako eremu bat bultzatu nahi dugu, hainbat pertsonaren arteko ezagutzak, esperientziak eta iritziak trukatzeko.
Teknika	World cafe
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> -hainbat pertsonaren arteko komunikazioa bistaratzea; -giro atsegina; -denboraren eta berdintasunean oinarritutako komunikazioa eta elkarrizketa bultzatuko duen ororen kontrola; -ondorioak eta proposamenak eraginkortasunez jasotzea; -zereginak banatzerakoan, adibidez, taldeen dinamizazioan, sexuen arteko orekari eustea. 	
Garapena	
<p>Jarduera antolatzeko <u>batzorde bat</u> sortuko da; honako erronka nagusi hauek izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Jardueraren publizitatea egitea. -Parte-hartzaileen kopuru handi bat lau edo bost pertsonako taldeetan bildu ahal izango diren gune bat bilatzea. -Dinamika elkarrizketa-mahaian inguruan egituratzea: eskubide bat, eginbehar bat eta konpromiso bat. - Alderdi garrantzitsuak: <ul style="list-style-type: none"> -ikastetxeko eta inguruko hainbat pertsonarekin harremanetan jartzea, eta baita inguruan nolabaiteko garrantzia izan dezaketen pertsonekin ere, mahai bakoitza dinamiza dezaten; -dinamizatzailea mahaian jarriko da, eta hiru une horiek garatuko ditu; txantilo batean jasoko ditu parte-hartzaileen ekarpenak; -une bakoitzak funtsezko galdera bat izango du, galdera erraz bat. Gauza sinboliko bat erabiliko dugu, eta eskutik eskura ibiliko dugu, komunikazioa arina izan dadin eta berdintasunean oinarritu dadin; -lehenengo eta bigarren mahai-aldaketak egingo dira; -iritziak jasotzeko baliabideak zehaztuko dira; -ekarpenak egituratuko dira, eta denen aurrean adieraziko dira; -konpromisoen berri emango zaie beroriek aurrera eramateko ardura izan dezaketen taldeei. -Funtsezko hiru galderak prestatzea eta sakondu nahi ditugun eskubideak eta betebeharrak banatzea; horretarako, baliabideetan emandako materiala erabiliko dugu. -Ekarpenak jasotzea, eta parte hartu duten pertsona eta talde guztiei berorien berri ematea, eraginkortasunez. -Denborak, erritmoak eta giroa zaintzea. -Parte-hartzeari, asetasun mailari eta giroari buruzko ebaluazio-inkesta labur bat prestatzea. 	



LE/II.1	Beldur berak ditugu?
Deskribapena	<i>Jarduera honetan, beldurraren esperientzia generoen arteko alderik dagoen eta beldurraren ondorioak zein diren aztertuko dugu.</i>
Teknika	<ul style="list-style-type: none">- Taldeak sexuen arabera bereiziko dira: azterketa eta debatea.- Talde handian: ideiak trukatu ditugu.
Materialak	<ul style="list-style-type: none">- LE/II.1
Funtsezko alderdiak	
Alderdi teorikoak: <ul style="list-style-type: none">- Jarduera egin aurretik, interesgarria izango litzateke irakasleek beldurraren eta genero-desberdintasunaren gaiak aztertzea.	
Alderdi metodologikoak: <ul style="list-style-type: none">- Nesken eta mutilen arteko bereizketak generoaren zama arinduko du, eta bizipenetan eta esperientzietan genero-identifikazioa gertatzea erraztuko du. Sexuaren arabera bereizitako taldeetan lanean diharduten bitartean, beste taldean egingo dituzten gogoetei eta eztabaidei buruzko interesa sorraraziko diegu. Horrek entzute aktiboa eta ezagutza sustatuko ditu bateratze-lana egiten dugunean.- Genero-rolak kontuan izango ditugu jarduera osoan; barne-azterketa egiteko eta emozioak adierazteko erritmoak desberdinak izango dira nesken eta mutilen kasuan. Horregatik, neskek nahiz mutilek emango duten urrats bakoitzean etengabea izan behar du errefortzu positiboak.- Nahitaezkoa da beste taldearen azalpenen aurrean errespetua eskatzea. Entzuteko eta adierazteko arauak hitzartuko dira.- Beldurrak adierazterakoan, konfidentzialtasuna bermatu behar da, segurtasuna eta intimitatea bilatuko ditugu, <i>inor ezin da kaltetuta sentitu</i>. Hori da emozioei buruzko jardueren araurik garrantzitsuenak.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Irakasleak ikasgelako taldeari azalduko dio emozioei buruzko jarduera zertan datzan.- Talde handia bi talde txikitan banatuko dugu: nesken taldea eta mutilen taldea. Ahal bada, ikasgela edo eremu desberdinetan egongo dira.- Ondoko galdera hau egingo diogu nesken taldeari:<ul style="list-style-type: none">Zeren beldur gara neskek?, zergatik?, zer ondorio ditu nigan beldur horrek?- Ondoko galdera hau egingo diegu mutilen taldeari:<ul style="list-style-type: none">zeren beldur gara mutilak?, zergatik?, zer ondorio ditu nigan beldur horrek?- Talde bakoitzak bere aldetik landuko ditu beldur horiek, eta horma-irudi batean idatziko dituzte beldurrak, arrazoiak eta ondorioak (LE/II.1 tresna).- Nesken taldea eta mutilen taldea ikasgelan bilduko dira berrir, eta zer aurkitu duten azalduko diote elkarri (ez dute esan behar nork duen edo izan duen beldur hori, anonimotasuna errespetatu behar dugu).- Jarduerearen amaieran txandaka hitz egin dezakete, beste sexuaz ezagutzen ez zuten zerbaiteko adierazteko (ezin da iritzirik edo epairik eman, soilik ezagutzen ez zutena adierazi behar dute).	
<ul style="list-style-type: none">- Sakontzeko	
Lagarde, Marcela: <i>Identidad de género y derechos humanos. La construcción de las humanas</i> . http://200.4.48.30/SeminarioCETis/Documentos/Doc_basicos/5_biblioteca_virtual/3_d_h_mujeres/24.pdf Izquierdo, M ^a Jesús: <i>Construcción social del sexo y del género</i> . Online. Valle, Teresa del (1997) <i>Andamios para una nueva ciudad. Lecturas desde la antropología</i> . Cátedra. Madril. Valle, Teresa del (koord.) (2002) <i>Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género</i> . Edición Narcea. Madril. Valle, Teresa del. <i>Procesos de la memoria: cronotopos genéricos</i> . "La ventana" aldizkaria, 9. zk., 1999. Lindón, Alicia; Aguilar, Miguel Angel; Hiernaux, Daniel. <i>Lugares e Imaginarios en la metrópolis</i> . Anthropos Beldurrari beldurra: http://www.radialistas.net/clip.php?id=1700036 Beldurrari buruzko erreferentziak: http://inciclopedia.wikia.com/wiki/Miedo http://www.ciao.es/miedo__Opinion_1012929	

LE/II.1 tresna. Beldurraren horma-irudia


Gure beldurrak	Arrazoiak: zergatik?	Ondorioak: zer ondorio ditu nigan?

PP/II.1	Zer aukera ditu gure ideiak?
Deskribapena	Jarduera honetan, parte-hartzean oinarritutako proiektu bat lantzen jarraituko dugu. Hasierako zatian lantaldeak osatu dituzte, garatuko duten gaia hautatu dute eta bizikidetzeta-arauak zehaztu dituzte. Orain, proiektuaren egingarritasuna aztertuko dugu. Beste ideia eta esperientzia batzuk ezagutzeko, gazteek parte har dezaketen ekipamenduak eta espazioak ezagutuko dituzte. Horrela, gure gaia zer errealitatean kokatu nahi dugun aztertuko dugu, eta errealitate desberdinak interpretatzeko irizpideak erabiliko ditugu.
Teknika	Errealitatearen azterketa
Materialak	- PP/II.1.1 eta PP/II.1.2 tresnak
Funtsezkoa alderdiak	
- Irakasleek argi izan behar dute nola egin behar duten errealitatearen analisia eta zein diren informazioa biltzeko beharrezko elementuak.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Aurreko fasean zer egin genuen gogoratzeko eta orain zer unetan gauden pentsatzeko une bat eskainiko dugu (PP/II.1.1 tresna). - Bizi diren inguruan gazteei zuzendutako zer jarduera ezagutzen dituzten galdetuko diegu. Zerrenda bat egingo dugu, informazioa gehituko dugu eta aurrera begira egingo duten azterketa-lana gidatuko dugu. - Proiekturako lantaldeetan bilduko dira, eta PP/II.1.2 tresna banatuko diegu. Irakurri ondoren, sortzen joango diren zalantza guztiak argituko ditugu, eta helburua zein den eta ingurua aztertzeko lana nola egin behar duten azalduko diegu. - Lantaldeetan bilduta, azterketa egiteko modua antolatuko dute. 15 egun izango dituzte saio honetan bururatzen zaizkien nahiz ikerketan sortzen joango diren iturri guztietatik informazioa biltzeko. - Lehenengo saio hau amaitzeko, gazteen parte-hartzean oinarritutako esperientzien nahiz gazteekin lotutako ekipamenduen web-orrialdeak erakutsiko dizkiegu. - Fase honen azkeneko saioan, lanak aurkeztuko dira. 	
Sakontzeko	
Marcos, Alvaro: Gazteak eta gazteen parte-hartzea. UZTARO, 54 - 2005, 123 - 131 (online)	



PP/II.1.1 tresna. Parte-hartzean oinarritutako proiektua

Eskailera honen bitartez, parte-hartzean oinarritutako proiektua eraikitzeko egingo dugun plangintza-prozesua irudikatu nahi dugu. Maila bakoitzak jarduera, gogoeta, ahalegin eta esperientzia jakin batzuk eskatzen ditu, eta hurrengo mailara igotzen lagunduko dizute. Zer egin behar dugun, maila bakoitzean zer lortu behar dugun, nola antolatu behar dugun, etab. pentsatu behar dugu. Eta, aurrerago, gure proiektua abiaraziko dugu. Orain, bigarren mailan gaude, eta gure ideia zer testuingurutan garatu nahi dugun aztertzea dagokigu.



PP/II.1.2 tresna. Errealitatearen azterketa

Edozein proiektu abiarazi aurretik, esku hartuko dugun errealitatearen azterketa egin behar dugu. Proiektu hori interesgarria den, beharrezkoa den, aurrera eraman daitekeen, baliabideak edo laguntza non aurkituko ditugun, etab. jakiteko modu bat da. Fase honetan, toki askotara joan beharko dugu galderak egitera, eta jendea ezagutzeko eta gure ideia zabaltzeko aukera izango dugu (garrantzitsua da hori, gero jendea hurbil dadin eta gure proiektua onar dezan).

Aztertu beharreko alderdiak:

Inguru naturala: ideia garatu nahi den tokiaren ezaugarriak (toki irekia, itxia, ikastetxean, herriko beste tokiren batean, eskuragarri ditugun edo ez ditugun eta behar ditugun altzariak eta baliabideak...).

Gizarte-ingurua: inguruko pertsonen ezaugarriak, zer erakunde eta elkarte dauden, gizarteko gertaera garrantzitsuak (festak, gatazkak, aldarrikapenak...).

Gure ideia garatzeko beharrezko egitura:

- Ba al dago egin nahi dugunaren antzeko zerbait? Nolakoa da?
- Aurreko esperientziarik egon al da? Zertan egin zuen porrot? Edo zertan izan zuen arrakasta?
- Gurea bezalako ideiak abiarazteko laguntzarik ba al dago? (laguntza ekonomikoak, sareak, azpiegitura publikoak...).
- Norentzat da onuragarria edo nori interesatzen zaio gurea bezalako ideia bat?
- Zer baliabide mota behar ditugu? Baliabide horietatik, zein daude edo ez daude gure inguruan?


Ondorioak:

- Gure ideia interesgarria izan daiteke jendearentzat?
- Gure ideiak arrakasta izango luke? Edo behar den eta ez dagoen zerbait konponduko luke?
- Une honetan ditugun baliabideekin edo inguruan daudenekin gure ideia gara dezakegu?
- Lehenago pentsatu ez dugun zer izan behar dugu kontuan?
- Gure ideiak hobekuntzaren bat behar du? Zein?

Lortu duzuen informazio guztiarekin, idatzi aurreko puntuak jasoko dituen txosten bat. Txosten horiek erakargarriagoak izan ohi dira argazkiak, eskemak, marrazkiak, grafikoak, etab. txertatuz gero. Ez ahaztu azken helburua gure inguruan gure ideiarekin lotuta zer dagoen eta zer ez dagoen ezagutzea dela, eta gure ideiarentzat onuragarria izan daitekeen zerbait dagoen aztertzea.

5. III. MODULUA

PARTAIDETZA: gu gabe, ezta!!



III. modulua
Parte hartu nahi dut: konpromisoa

HELBURUAK

1. Norberaren nortasunaren ezaugarri diren elementuak balioestea, ezaugarriok beste pertsonen begiradatik ere eraikitzen direla jabetzeko.
2. NIa osatzen duten identitate askotarikoen eta berorren bilakaeraren inguruan hautatutako kontakizuna irakurtzea eta berorrek eskaintzen digun esperientzia barneratzea, izaki bakoitzaren aberastasunaz eta malgutasunaz jabetzeko.
3. Bioaniztasunaren eta aniztasun kulturalaren arteko erlazioak aurkitzea, bizi garen ingurunea hobeto ezagutzeko.
4. Gure ongizate-egoeran gizarte-garapenerako ditugun baldintzak eta aukerak identifikatzea, eta beste testuinguru batzuekin alderatzea, eskubideez guztiok elkarrekin gozatu behar dugula argudiatzeko.
5. Zenbait giza taldetako kide garena jabetzea, horrek egiten didan ekarpenagatik eskerrak emateko eta nik egiten dudana ematen didan poza sentitzeko, taldearen presioaren eta garapen pertsonaren artean oreka aurkitzen saiatuz.
6. Umorea, erlaxazioa eta jolas-jarduera taldea sendotzeko eta indartzeko elementu gisa erabiltzea, lantaldeen bizitza emozionala eta norbera desinhibitzeko aukera indartzeko.
7. Taldean lankidetzan aritzea eta laguntzea, lantaldearen aldekoak diren elementuak ezagutzeko eta aldekoak ez diren elementuak ezagutu eta birziklatzeko.
8. Eskuzabaltasunak eta trukeak garapen pertsonala eta soziala sustatzen dutela jabetzea.
9. Ezezagunarekiko beldurra egoera, pertsona eta bizipen berriak onartzea eragozten digun oztopoa dela jabetzea.
10. Talde parte-hartzaile baten proiektuaren diseinuko azken fasea egitea.

OINARRIZKOA

Ebaluazio-irizpideak

- Banakako eta taldeko zereginarekiko konpromisoa
- Taldearen behararen kontzientzia
- Enpatia

Lorpen-adierazleak

- Bakarka lan egiten du, eta isilean egin du.
- Argazkien izenburuek aniztasunaren balioa sustatzen dute.
- Desberdin eta aldakor egiten gaituzten elementuak bereizten ditu.

III. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: PARTE-HARTZEA ENTRENAMENDUA





<ul style="list-style-type: none"> ● Ondo oinarritutako errespetuzko arrazoibidea ● Taldeko jardueraz gozatzea ● Aniztasunaren ezagutza ● Talde-lanean lankidetzan aritzea 	<ul style="list-style-type: none"> ● Bioaniztasunarekin lotutako ariketak modu eraginkorrean ebatzen ditu. ● Inguruko kulturak eta kultura horietako adierazpideak identifikatzen ditu. ● Ingurukoek egin dioten ekarpenen batengatik esker ona adierazten du. ● Talde bat behar duela adierazten dioten motibazioak eta interesak ezagutzen eta adierazten ditu. ● Gainerako ikaskideekin jarduerak lantzerakoan, barre egin du eta gozatu du. ● Jarduerak egin ditu, berorien garapenean eta ebazpenean lagunduz eta parte hartuz. ● Besteak ere gogobeteta eta pozik senti daitezela lagundu du. ● Aukeratutako gaiaren inguruko lau alderdiak islatzen ditu kalidozikloaren aldeetako koloreetan eta kontzeptuetan.
--	---

SAKONTZEKOA

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> ● Ondo oinarritutako errespetuzko arrazoibidea ● Taldeko jardueraz gozatzea ● Giza eskubideen balioespen zuzena ● Aniztasunaren ezagutza ● Lankidetzan, taldean lan egiterakoan ● Taldearen mugen ezagutza ● Enpatia ● Argitasuna eta zehaztasuna aurkeztutako lanean ● Taldeko komunikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ● Aukeratutakoa arrazoitzeko argudioak ematen ditu. ● Pertsona guztientzako eskubideak identifikatzen ditu, eta zuzentasunez balioesten ditu. ● Eztabaidei elkartasunaren bidez ematen die irtenbidea. ● Kideen argumentuak entzuten ditu. ● Lankidetzan sustatzen duten elementuak zerrendatzen eta ulertzen ditu. ● Taldearekiko mendetasunaren mugak bereizten ditu. ● Neska gazteen protagonismoa balioesten du. ● Organoak emateko aukera bideratzen duen elkarte bat aurkitu du. ● Organoak emateari buruzko zenbait datu ezagutzen ditu. ● Aldaketa-egoera batean, beldur motak identifikatzen ditu. ● Atzerrira joan den jende gazterekiko ulermensentimenduak adierazi ditu. ● Agertzen den beldur bakoitzarekin lotutako emozioak eta egoerak ezagutzen ditu. ● Talde-lanean, desioak eta iritziak adierazten ditu. ● Proiektu parte-hartzailearen inguruan aurkeztutako txostena txukuna, ordenatua eta argia da.

Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
Oinarritzailea	III.1: Begiradak elkarri	
	III.2: Labezomorro bat eta ni: zer-nolako harremanak izan ditzakegu?	Tresnak: III.2: Bioaniztasuna

	III.3: Zer behar dut taldearengandik?	Tresnak: III.3: Zer behar dut taldearengandik? Baliabidea: III.3: Talderako musika
	III.4: Barre-terapia	
	III.5: Taldeko ekoizpena: kalidozikloa	Baliabidea: III.5: Kalidozikloen txantiloak
Sakontzeko	III.6: Gustatzen zait eta ez zait gustatzen niri begiratzea	
	III.7: Sarrera mugatua?	Tresnak: III.7: Stop, sarrera mugatua!
	III.8: Mendekoa eta independentea	
	III.9: Nik eman..., nik eskatu	
	III.10: Bidezkoa dena eta ez dena: organoak ematea	Baliabidea: III.10: Bidezkoa dena eta ez dena
III. MODULUKO JARDUEREN KOADROA: LE/LAN EMOZIONALA: BELDURRA III 		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
LE/III.1: Filmetarako moduko gidoia LE/III.2: Beldurrari abestuko diogu		Tresnak: LE/III.1: Filmetarako moduko gidoia LE/III.2: Beldurraren inguruko abestiak
III. MODULUKO JARDUEREN KOADROA : PP/PROIEKTU PARTE-HARTZAILEA III Proiektu baten azken urratsak 		
Jarduerak		Tresnak (ikasleak) Baliabideak (irakasleak)
PP/III.1: Ametsetatik errealtatera		Tresnak: PP/III.1: Proiektu parte-hartzailea PP/III.2: Ametsen saskia PP/III.3: Nondik hasiko gara? PP/III.4: Nola eta norekin egingo dugu? PP/III.5: Zer moduz joan da gure proiektua?



III.1 zk.	Begiradak elkarri
Deskribapena	Proiektu bat egiteko gonbita egingo diegu; proiektu horretan, gazteek nola islatzen dituzten balioetsiko dute, eta pertsona heldu baten argazkia egingo dute. Nire burua nola ikusten dudana, nola ikusten nauten eta nik besteak nola ikusten ditudan aztertzeke elkarrizketa bat egitea da asmoa; gainera, pertsonen eta bizitzako etepen aniztasuna bizitzea eta balioestea ere lortu nahi da.
Teknika	Argazkia eta elkarrizketa
Materialak	Ordenagailua eta kanoia
Funtsezko alderdiak	
– Argazkiak dinamismoaz, aldaketaz, identitatearen ikuspegiez mintzo zaizkigu.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">– Talde handian, beste saio batean azalduko den lana planteatuko zaie. Bideoak eta argazki ezagunen irudiak erabiliko dira, sarean aurki daitezkeenez gain, eta abestia entzungo da.– Ikasleei pertsona heldu baten argazkia eskatuko zaie. Interesgarria litzateke pertsona heldu horrek argazkia eskatu dion ikasleari ere argazki bat egitea. Gure ustez garrantzi berezia duelako islatu beharrekoa den edozein emozio adieraz dezakete argazkiek. Adibidez, mundu guztiak ez du zertan irribarrez azaldu, edo ez dugu zertan soilik aurpegia islatu argazkietan.– Aniztasunaren garrantzia eta balioa aintzat hartuta, argazkiari izenburu bat emateko eskatuko diegu ikasleei.– Ondorengo saio batean, argazkiak ikusgai jarriko dira, eta elkarrizketa bat egingo dugu, nola ikusten gaituzten eta guk pertsona helduen mundua nola ikusten dugun aztertzeke.– Izenak jarriko dizkiegu aurpegietan ageri diren emozioei.– Erakusketaren katalogoa egingo da.	



III.2 zk.	<i>Labezomorro bat eta ni: zer-nolako harremanak izan ditzakegu?</i>
Deskribapena	Kultura-aniztasuna lantzeko, bioaniztasun biologikoarekin lotutako ariketa bat egingo dugu. Espezieen arteko desberdintasunek aberastu egiten dute gure planeta. Espezieen arteko elementu komunak ez dira, besterik gabe, espezieak lotzeko elementuak. Aniztasuna landuko dugu, desberdinak garela onartzeko eta kulturaren eta ekonomiaren arloetako bazterketak gainditzeko, norberaren adierazpideei balioa emanez.
Teknika	Gogoeta egiteko ariketak
Materialak	III.2 tresna
Funtsezko alderdiak	
Honako hauek balioets ditzaten lortu nahi dugu: <ul style="list-style-type: none"> - Aniztasuna, espezieen berezko ezaugarria. - Gure inguruko kulturen elementu komunak eta komunak ez direnak. - Kolektibo bakoitzaren kultura-adierazpenak. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak jarduera aurkeztu ondoren, ikasleak, banaka, III.2 tresnako galderari erantzuten ahaleginduko dira. - Gero, sekuentzia baten arabera zenbakituko dira ikasleak (1-2-3-4-1-2-3-4-1-2-3...). 1 zenbakia dutenek lehen galderari buruzko gogoetak adieraziko dituzte ozen; 2 zenbakia dutenek bigarrenari buruz jardungo dute; 3 zenbakia dutenek, hirugarrenari buruz; eta 4 zenbakia dutenek beren erantzunen berri emango dute. 	
Sakontzeko	
Bideo osagarriak: Jokabide homosexualak animalien erreinuan: http://video.google.es/videosearch?hl=es&q=comportamientos%20de%20monos&um=1&ie=UTF-8&sa=N&tab=iv# http://video.google.es/videosearch?hl=es&q=comportamientos%20de%20monos&um=1&ie=UTF-8&sa=N&tab=iv#hl=es&emb=0&q=tximinoen+portaera	



III.2 tresna. Bioaniztasuna

Iturria: "Bioaniztasuna-Bigarren Hezkuntza. Ingurugiro hezkuntzako materialak saila". ARGIT. CEIDA-Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 1996

Dibertsitateak aniztasuna adierazten du; askotasuna, bariedadea, desberdintasuna, ugaritasuna edo uniformetasun eza. Bioaniztasuna, ondorioz, izadian dauden elementuen aniztasuna da. Baina ez soilik elementuen aniztasuna, baita funtzio-, egitura-, tamaina- edota egoera-aniztasuna ere. Bioaniztasunak, batik bat, izaki bizidunen konbinazio genetikoen aniztasuna eta aberastasuna adierazten du. Bioaniztasuna errespetatzeko, aintzat hartzeko eta bere balioa aztertzeko ezinbesteko baldintza da ondo ulertu eta ezagutzea.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Zer da bioaniztasuna?

Ziurrenik asper-asper eginda egongo zara bioaniztasuna hitza entzuteaz. Baina seguru al zaude hitz honen esanahia ondo ezagutzen duzula?

Adierazi gurutze batez hautatutako aukerak:

Bioaniztasuna...

Espezie baten barruan dauden banakoen aniztasuna da.

Izaki bizidunen komunitate batean dagoen espezie-aniztasuna da.

Ingurune batean dagoen ekosistema-aniztasuna da.

Aurreko edozein erantzun, edo denak batera. Hau da nahastea hau! Ongi da, adi egon, "bioaniztasunak" k zera esan nahi du:





III.2 tresna. Bioaniztasuna (jarraipena)

2. Nola neurtzen da bioaniztasuna?

Toki bateko bioaniztasuna neurtzeko modurik errazena bertan bizi den espezie kopurua, hau da, espezie-aberastasuna zenbatzea eta toki horren azaleraren artean zatitzea da. Modu honetan, azalera desberdineko bi lurralderen bioaniztasunak alderatu ahal izango ditugu.

a) Ikus dezagun adibide bat: bi ikertzaile talde Valderejo Natur Parkeko belardietan bizi diren kakalardo espezieak aztertzen ari dira. A taldeak altuera desberdinetan dauden hiru belardietan hartu ditu laginak. Emaitzak 1:1.000 eskalako eskema batean aurkezten dira. Zure ustez, hiruretatik zeinek du espezie-aberastasun handiena? Eta bioaniztasun handiena? Zergatik?



b) B taldeak altuera berdinean dauden hiru belarditan burutu ditu bere ikerkuntzak, eta ondoko emaitzak lortu ditu:

Zein belarditan dago aniztasun biologiko handiena? Zergatik?

							Guztira
Belardi 1	3	11	1	1	3	3	22
Belardi 2	3	4	5	3	2	4	21
Belardi 3	2	3	8	1	1	8	23

Erantzun zuzena: Bigarren belardia

3. Zergatik da hain garrantzitsua bioaniztasuna zaintzea?

Toki bateko bioaniztasuna neurtzeko modurik errazena bertan bizi den espezie kopurua, hau da, espezie-aberastasuna zenbatzea eta toki horren azaleraren artean zatitzea da. Modu honetan, azalera desberdineko bi lurralderen bioaniztasunak alderatu ahal izango ditugu. Ikasgelako lagun guztiei bururatzen zaizkizuen arrazoiak aipa itzazue. Ondoren, aipatu ideia horiek eztatidatu eta baliozta itzazue; zuen iritzien argudioak azaldu, horien adierazgarri diren adibideak bilatuz.



III.3 zk.	Zer behar dut taldearengandik?
Deskribapena	Naizena naiz, eta gustuko dut naizen hori. Naizena naiz, eta inguruan dudan jendearekin naiz naizena. Ondoan dudan talde horrek zer eskaintzen didan aurkitu nahi dut. Gainera, taldearekin bat egiteko izan dezakedan interesa eta motibazioa aurkitu eta hitzez adierazi nahi ditut.
Teknika	Abestien analisisa
Materialak	Ikus-entzunezkoak, ordenagailua III.3. tresna: zer behar dut taldearengandik? III.3 baliabidea. Honako abesti hauek: Tote King, "Yo soy" eta Arianna Puella, "Qué grande es ser mujer"
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Gure ustez gai hauek lantzerakoan gaizki senti daitezkeen pertsonak zainduko ditugu.- Kide izatea eta sentitzea: taldearen potentzialtasuna.- Taldearen bizipenek zentzu emozional handia dute.- Esker onekoa izateak atsegina ematen du, eta aberasgarria da.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Aipatutako abestiak entzungo dira, eta tresna landuko da; banaka gogoeta egiteko eta taldean adierazteko tarteak emango zaizkie.	



III.3 tresna. Zer behar dut taldearengandik?

Bi abestiak entzungo ditugu, eta abestien hitzetan interesgarriena iruditzen zaiguna azpimarratuko dugu. Iruzkinak egiten hasi aurretik, pentsatu une batez:

Zure zer alderdi duzu gustuko?

Zer ekarpen egiten diozu taldeari?

Zergatik izan nahi duzu taldeko kide, zer ematen dizu taldeak?

Orain, abestietan zer azpimarratu dugun adieraziko dugu, eta arrazoiak ere azalduko ditugu; zer iruditu zaigun harrigarriena adieraziko diogu taldeari.

Banaka gogoeta egiteko unea: seinalatu lau zati orri zuri batean, eta adierazi zure bizitzako lau une garrantzitsu; erreparatu batez ere une horietan inguruan zenituen pertsonen, eta gogoratu:

- Zer eman didate?
- Ondoan ditut oraindik?
- Zer sentitzen dut egoera eta pertsona horiek gogoratzean?

Norbaitek bere biografiaren edota ondoan izan dituen pertsonen berri eman nahi badie besteei, horretarako aukera izango dute. Bi abesti hauen inguruko elkarrizketa:

- Zerk sentiarazten dit taldeko kide naizela?
- Talde batekoa naiz, edo batzuetakoa?
- Zer sentitzen dut taldean ondo nagoenean, besteekin bat egiten dudanean eta entzuten, ulertzen eta onartzen nautenean?



III.3 baliabidea. Talderako musika

http://www.mtv.es/musica/actualidad/first_listen/118098--t-o-t-e-

http://www.letrasmania.com/letras/letras_de_canciones_tote_king_8703_letras_to_te_89571_letras_yo_soy_876293.html

Artista: Tote King

Albuma: T.O.T.E.

Izenburua: Yo Soy

Yo Soy

Yo soy toas las mezclas de formas
yo hago que no existan las normas
otros pueden, yo no te miento
yo controlo espacio y el tiempo

Mira, aquí este que ves soy yo
tu eres triste, no ves mi flow
no comprendo que estáis diciendo
tu argumento esta en extinción...

Soy Ronaldinho en el micro, un mito, el hospital, Doctor House
el chupito final que hace potar a Amy Winehouse
el rapero que no odia a los polis, la medida exacta
el que solo esta cegao por pasta si cocina raviolis
Wilt Chamberlain metiendo 100 puntos, dándole un curro a Conan
Ozzy Osbourne, colacao, decapitando palomas
la peor pesadilla pal chulo, la inspiración
Jim Kelly en su habitación con chinas en Operacion Dragon
El que nunca va con matones grandes por ahí
porque sabe que en verdad son chicos como Tom Hanks en Big
El que pasa de llantas, el de genes moriscos,
el que pilla la pasta del disco y se la gasta en marisco
soy otra fuga pa este mundo cabrón
soy las arrugas de Clint Eastwood y de Tommy Lee Jones
soy el padre obrero de una historia del Bronx, trabajando
la Bomba Navarro en la NBA, funcionando!
El joven sin futuro... comparto tu cruz, ósea...
el que tiene los mismos muebles que tu... de Ikea.
la vergüenza de veros, el icono anticlerico
el orgullo de MC que llevo aquí solo siendo un maquetero
soy la conquista, el tirano, os masacro
hipnotizo a las pitas como el encantador de perros de Cuatro
de mi nunca te esperes que diga: "en el nombre del padre"
soy del que respetan a las mujeres porque adora a su madre

[Estribillo]

Yo soy toas las mezclas de formas
yo hago que no existan las normas
otros pueden, yo no te miento
yo controlo espacio y el tiempo

Mira, aquí este que ves soy yo
tu eres triste, no ves mi flow
no comprendo que estáis diciendo
tu argumento esta en extinción...

Soy el poeta sin poesía, a merced de una ideología
El grito de angustias de ballenas estancás en bahías
soy una estrella de occidente, otro problema pa la gente
un fugitivo... Pablo Neruda con gorro y abrigo
un testigo vivo de otro cambio de formato
voy a ver como se entierra el CD y se mantiene el plato
yo voy a ver como este mundo se derrumba
cuando yankees y rusos den al botón que abran nuestras tumbas
soy el refugio, el bunker, la valquiria



el que se ve a sí mismo y se ríe en Padre de Familia
el Óscar de Barden, los Cohen con dos huevos
a Caótica Ana y a Medem que les peguen fuegos
soy la crítica más dura, la paz y la guerra
el mayor amante de literatura sobre la faz de la tierra
los comics de Lobo, la ropa y sus logos
las tropas de Estados Unidos acojonás por los moros
yo soy el cambio, la cresta de la ola del flow
la nueva forma de entender el puto rap español
el respeto, el rey y su cetro...os prometo
que vuestra fama va a ser efímera como la marca de 100 metros
yo soy la justicia pa to el que se cuelga
mentís como las noticias cuando decían que no había huelga
yo soy el Tote, de medallas no entiendo
soy la cara de Zach de la Rocha en un concierto escuchando

[Estribillo]

Yo soy toas las mezclas de formas
yo hago que no existan las normas
otros pueden, yo no te miento
yo controlo espacio y el tiempo

Mira, aquí este que ves soy yo
tu eres triste, no ves mi flow
no comprendo que estáis diciendo
tu argumento esta en extinción..

ARIANNA PUELLO - QUE GRANDE ES SER MUJER (DNOE taldearekin) (ASI LO SIENTO)

<http://www.youtube.com/watch?v=EFt6o3X4vfa>

Dondiridon don dari aquí con Ari Montando jari que grande ser mujer cari. Que sí mujer, soy mujer, sé mujer, ser mujer es amor amar es ofrecer... Amar es dar la vida a una persona, amar es proteger, amar es defender a muerte tu zona, son la reglas, llorando no se arregla na es así, no merecerá la pena. Tus penas máximas serán tus máximas penas, nena, dos en uno suenan. Así, en primera persona, París es acena,

Arianna sa gerona, Divina Dnoe amazona, desde Vallecas entrena, en escena, fuera de serie en ese día en serio, en Dolby Sorround en stereo, oro y plata negrata, entona!

Llevo un as en la manga y otro en el tanga, no me vengan no soy batanga, no se entretengan, tengan, no se anden por las ramas, hoy se estrenan, lunas más, este póquer de damas, la miss y la más, quien da más, yo siempre quiero más, no quiero ser más, que las demás, pero quiero mucho más, mucho mucho más. Por supuesto, molesto?

A ver que es esto.

Ai, el gusto es mío Dnoe (es un placer), nadie nos quita este don me encanta ser mujer!

Sobe, el gusto es mío Puello (es un placer), nadie nos quita este don

Que grande ser mujer!

Arianna Pue con Dnoe, como lo ves? E o no e? Vamos a ver, ten cuidao con lo que dices, hace tiempo que curé mis cicatrices, se hicieron fuertes todas mis raíces, no pudieron conmigo las lombrices; barrí, fregué, limpié, hasta que me cansé, me dije esto no puede ser, el mundo entero me lo puede comer, no pienso ceder, no me vais a joder.

Porque soy una mujer autosuficiente, me defiendo con uñas y dientes, si hace falta nado a contracorriente, no me importa lo que diga la gente. A mí que me respeten sino, mal rollete, ridículo machista, de mi lado vete. Dos en uno contigo a machete. Aquí tienes tu billete, premio!



Ai, el gusto es mío Dnoe (es un placer), nadie nos quita este don me encanta ser mujer!
Sobe, el gusto es mío Puello (es un placer), nadie nos quita este don
Que grande ser mujer!
Ai, el gusto es mío Dnoe (es un placer), nadie nos quita este don me encanta ser mujer!
Sobe, el gusto es mío Puello (es un placer), nadie nos quita este don
Que grande ser mujer!

A mi me llamas por mi nombre, hombre. No me mires por encima del hombro, suspendido y a septiembre, hombre. Olvídate de mi timbre, no te acostumbres, lárgate de aquí, pillas el saque, hombre. Bye bye como key key. Mi culo huele a bellaquee, no quiero chulos busco un jeque estás en jaque. Ridículo, encoge tus testículos, que grande ser mujer el título. Dame una razón pa no patearte el culo zorra, a las tías como tú yo les doy camorra, toma, fuera silicona, a que huelen las hostias directas de Gerona, me cago en tus hormonas, toma ejemplo de este par de leonas: Arianna Pue, con Dnoe, e o no e? Que grande ser mujer
Ai, el gusto es mío Dnoe (es un placer), nadie nos quita este don me encanta ser mujer!
Sobe, el gusto es mío Puello (es un placer), nadie nos quita este don
Que grande ser mujer!

Ai, el gusto es mío Dnoe (es un placer), nadie nos quita este don me encanta ser mujer!
Sobe, el gusto es mío Puello (es un placer), nadie nos quita este don
Que grande ser mujer!



III.4 zk.	Barre-terapia
Deskribapena	Saio honetan, hainbat ariketa egingo ditugu gogobetetasun sozial eta afektiboa lantzeko. Proiektu edo taldeko jarduera batean parte hartzera bultzatuko gaitu horrek. Gogobetetasunak taldearen identitatea eta kideen arteko konfiantza indartzen ditu. Barre egiteko eta dibertsiorako saio bat da.
Teknika	Barre-terapiako jolasak
Materialak	Bideoa: umeak ohean amarekin Puxikak Ordenagailua Kanoia
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Umoreak eta barreak gorputzari eta egoera psikikoari eragiten diete, eta onuragarriak dira bururako, arlo emozionalerako, arlo sozialerako, bizitzarako, prestakuntzarako... Pertsonarteko harremanak sustatzen dituzte, bai eta komunikazioa, gatazken prebentzioa eta talde-lana ere. Gogoetarako eta analisirako jarrera positiboa hartzera bultzatzen gaituzte, eta autoestimua positiboa gararazten dute.- Gure emozioak alde batera utzarazten dizkiguten "eskaera soziala" inposatuak zokoratzeak lagundu egingo digu harreman askiesgarriak izaten.- Ahal bada, hobe jarduera hau lastairak, ispiluak... dituen gela zabal batean garatzea.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Aurrez: hasi aurretik, barre-terapiako lantegi bat zer den azalduko dute irakasleek. Ondoren, biribilean jarrita, begiak itxiko ditugu, eta gure taldean zentratuko gara: nola dago?; tentsioren bat badago, non dago?; nire gorputzeko zein zatitan ditut kilima gehien?; noiz kilimatu ninduten azken aldiz, zer gertatu zitzaidan, nola erantzun zuen nire gorputzak?- 1. jarduera: aurpegiko giharrak landuko dira: "Begiak itxiko ditugu indar handiz, eta ahalik eta irribarrerik handiena egingo dugu; ahoa ahal beste zabalduko dugu, ogro batek bezala, eta mingaina aterako dugu sudurrerantz; ahalik eta imintzio "gogorrena" egingo dugu.- 2. jarduera: lau umeen eta amaren bideoa ikusiko dugu. Jarduera bakoitza amaitzean, taldean algara egingo dugu: "Barre egin behar da!"- 3. jarduera: binaka eta guztiak ikasgelaren ertz batean kokatuta, bikote bakoitzak puxika bat ezarriko du bien ipurdien artean, eta, puxikari horrela helduta, ikasgelan urrunen dagoen ertzerako eramatean saiatuko dira.- 4. jarduera: lauzpabost laguneko talde txikietan, biribilean jarriko dira, eta puzkar bat botatzeko imintzioa egingo dute. Puntuak emango dizkiote elkarri, 1etik 5era, "benetako" puzkar baten antz handiena eman dionari puntu gehien emanaz.- 5. jarduera: biribil handian eta pailazo musika jarrita, musika horren erritmora dantzatzeko dute, eta, aldi berean, aurrean duten pertsonari buruan hazka egingo diote leun-leun. Irakasleak esaten dienean, biratu egingo dira eta aurrean duten pertsonari egingo diote hazka buruan, biribilean dantzan jarraitzen duten bitartean.- 6. jarduera: biribil handian eta txandaka, aurrean duten pertsona imitatuko dute (neurritz gorako mugimenduak zangoekin, besoekin eta buruarekin).- 7. jarduera: lurtean beherantz begira etzanda, norbaiten bizkar gainean ezarriko dugu burua (bestea burkoa balitz bezala). Alfabetoa osorik esan behar dute, betiko ordenan (a-b-c-d-e...) eta atzekoz aurrera (z-y-x...)- 8. jarduera: zutitu aurretik, etzanda eta gorantz begira, gogoeta egingo dute: nola duten aurpegia, nola bularra, nola dituzten gorputz-adarrak, edota lepoa, bizkarra, zangoak..., eta burua eta aldarteak.- 9. jarduera: jardueraren balioespina. Modu informal batean eserita (agian lurtean bertan), galdera honetaz pentsatzeko dute, eta erantzun egingo dute: "Zer une izan da dibertigarriena?; talde gisa, zertarako balio dezake honek?"	
Sakontzeko	
<ul style="list-style-type: none">- Barre-terapia: http://www.metacafe.com/watch/yt-sTCbRCIpadA/risoterapia_laughing/ http://www.consumer.es/web/es/salud/investigacion_medica/2003/01/10/56279.php- Saioa dinamizatzeko, barre-terapiako bideoa: http://www.youtube.com/watch?v=X2Dx29mnm_s- Taldeko giro soziala: www.golden5.org	



III.5 zk.	Taldeko ekoizpena: kalidozikloa
Deskribapena	Elkarrekin lan egingo dugu jarduera honetan, eta gogoeta egingo dugu, elkarrekin lan egiterakoan nola sentitu garen aztertzeko. Horretarako, kalidoziklo bat muntatuko dugu, eta eraikuntza prozesuan taldeak izan duen eraginkortasunari eta emandako laguntzari buruz hausnartuko dugu.
Teknika	Kalidoziklo baten eraikuntza
Materialak	Kalidozikloaren txantiloia, kartoi mehea, kola, arkatz markatzaileak
Funtsezko alderdiak	
Garapenerako hezkuntzaren barneko oinarrizko kontzeptuak azpimarratzea gomendatzen dizuegu: iraunkortasuna, energia, lurraren berotzea, gosea, baliabideak, bidegabekeria sozial eta ekonomikoak...	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Nola lan egiten duten, zer zailtasun aurkitzen dituzten eta horrelako kontuei erreparatzeko eskatuko deigu: ea inork bere lan egiteko modua inposatzen duen, ea baden inor lan egiten ez duena, ea ondo eta eroso lan egin dugun, etab.- Talde bakoitzak txantiloia bat eta kalidozikloak egiteko beharrezko materialak izango ditu.- Lau apaingarri, lau kolore-eskala aukeratuko dira, ura, energia, klima eta pertsonak sinbolizatzeke, eta txantiloiko 1, 2, 3 eta 4 apainduko ditugu.- Aurpegi horietako bakoitzean, garapenerako hezkuntzarekin lotutako oinarrizko kontzeptuak idatziko ditugu.- Piezak ebaki, tolestu eta muntatuko dira, eta elkarri lagunduko diote prozesuan.	
Sakontzeko	
Carlos Taibo: José Luis Sanpedro-ri elkarrizketa: "Una conversación sobre la crisis", helbide honetan: http://www.rebellion.org/noticia.php?id=82648 Plazetako matxinada http://www.kaidara.org/ek/recursos/248	




III.5 baliabidea. Kalidozikloen txantiloiak

<http://www.freewebs.com/calidociclos/>

http://www.oni.escuelas.edu.ar/2002/buenos_aires/infinito/calidoci.htm

<http://www.taringa.net/posts/ebooks-tutoriales/1705389/como-hacer-un-calidociclo.html>





III.6 zk.	<i>Gustatzen zait eta ez zait gustatzen niri begiratzea</i>
Deskribapena	Literatura-hizketaldi bat egingo dugu, liburu honen inguruan: ABDEL-FATTAH, RANDA: <i>¿Por qué todos me miran la cabeza?</i> , La Galera, 2008
Teknika	Literatura-hizketaldia
Materialak	Liburua: ABDEL-FATTAH, RANDA <i>¿Por qué todos me miran la cabeza?</i> , La Galera, 2008
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Irakurtzeko denbora izatea.- Berdintasunean oinarritutako elkarrizketa sustatzea, dinamizatzailleak protagonismorik hartu gabe.- Esku-hartzeetako denborak zehaztea.- Parte-hartzeak modu positiboan azpimarratzea eta eskerrak ematea.- Argudioak eskatzea eta iritzia errespetatzea.- Hezkuntza-elkarteko beste kide batzuk hizketaldian parte hartzera gonbidatzea.	
Garapena	
<p>Jarraibide hauek emango zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none">- Irakurri testua, eta paragraforen batek atentzioa ematen badizu, azpimarratu, eta, nahi baduzu edo gogoratzeko beharrezkoa dela uste baduzu, idatzi orri batean zergatik hautatu duzun, hau da, zergatik markatu duzun (txuleta batean bezala).- Hizketaldian, paragrafo hori edo horiek ozen irakurtzeko aukera izango duzu (zenbat denbora dugun ikusi behar). Irakurri aurretik, zer orritan dauden eta non aurki ditzakegun esango diezu besteei (goian, erdian, behean...). Irakurri ondoren, zergatik hautatu duzun, zer iradoki dizun edo zer egin zaizun harrigarriena adieraziko diguzu (zergatik gustatu zitzaizun edo zergatik ez zitzaizun gustatu, zergatik ekarri zizun gogora zerbait edo norbait, dioenarekin zergatik zauden edo ez zauden ados, zergatik den ederra...) Ez du balio "hala dalako" edo "hargatik" eta horrelakoak esateak eta arrazoirik ez emateak, lehentasuna argumentuek baitute.- Ikusiko duzunez, iruzkin moduko bat da, ez literatura-iruzkin bat, iruzkin pertsonal bat baizik. Gero, solaskideren batek zure iruzkinaz zerbait esan nahi badu edo, besterik gabe, zuk irakurritako paragrafoaz zerbait esan nahi badu, hauxe da horretarako unea. Eta horrelaxe erabiliko dugu saio honetarako daukagun denbora.	



III.7 zk.	<i>Sarrera mugatua?</i>
Deskribapena	Gizarte-baliabideak eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko eskubidea norbanako guztiok dugun eskubidea dela onartuko dugu jarduera honetan, norbanakoaren jatorria, adina, sexua, sexu-orientazioa, etab. edozein izanik ere. Elkartasuna pertsona guztion eskubideak eta betebeharrak onartzea baino gehiago da, eskubide eta betebeharrak erabili, bete eta gozatu egin behar ditugu.
Teknika	Banakako lana
Materialak	III.7 tresna
Funtsezko alderdiak	
Jarduera honetan gai hauek landuko ditugu: <ul style="list-style-type: none">- Gure inguruko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak, eta baita gureak ere.- Gurea ez den beste etnia kultural bateko pertsonen aurreko aurreiritziak birziklatzea.- Beste kultura batzuen eta gurearen arteko informazioa eta ezagutzak trukitzea.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Banaka, erlaxatzeko musika jarritz, III.7 tresna osatuko dugu.- Guztiek erantzuteko denbora eta giro egokia izan dutenean, bi talde egingo ditugu: eskuinean, kanpotik etorri den pertsonaren eskubideak ordezkatzeko dituzten pertsonak jarriko dira, eta, ezkerrean, ikasgelako beste edozeinen eskubideak ordezkatzeko dituztenak.- Eztabaida bultzatuko dugu:<ul style="list-style-type: none">o Aurrez aurre jartzen zaituzten arazoren bat duzue?, zein?, zergatik?, zergatik?, eta zergatik? Hala baldin bada, nola konponduko duzue?o Aurrez aurre jartzen zaituzten ezer ez badago, zein eskubide iruditzen zaizue garrantzitsuena?	



III.7 tresna. Stop: sarrera mugatua!

Ikaskuntza-prozesu honetan, Giza Eskubide Unibertsalak ezagutu ditugu. Horiez gain, elkarrekin bizitzen, emozionalki eta kognitiboki garatzen edo gizarte-baliabideez eta gizarte-zerbitzuez gozatzen laguntzen diguten beste eskubide batzuk daude. Zoritxarrez, liskarrak sortzen dira maiz, ez ditugulako kontuan izaten beste pertsonen eskubideak eta guk pertsona horiekiko ditugun betebeharrak; edo alderantziz, gure eskubideak eta besteek gurekiko dituzten betebeharrak. Jarduera honetan, horrelako kasuak aztertuko ditugu.

	Pentsatu zer eskubide dituzun zuk, norbanako gisa, zure auzoan edo herrian, honako hauei dagokienez...	Pentsatu zer eskubide dituen, norbanako gisa, duela bi hilabete beste herrialde batetik gure auzora bizi izatera iritsi den pertsona batek, honako hauei dagokienez...
Kirol-ekipamenduak		
Osasun-etxea		
Udaleko bulegoak		
Liburutegia, bilerak egiteko udalaren lokalak		
Dendak eta jatetxeak		
Garraioa		
Zinema, kultur etxea		
Ikastetxeak		
Elkarteak		
Festak		
ZERGATIK?		

ZEIN ESKUBIDE DIRA BERDINAK?

Erantzuna:

Eskubide guztiak berdinak direla erantzun ez baduzu, zerbait gaizki egin duzu. Hasi berriro eta pentsatu ondo!



III.8 zk.	<i>Mendekoa eta independentea</i>
Deskribapena	Giza talde batean dugun egoera aztertuko dugu; talde horretan egoteko interesa eta motibazioa, eta ni neu izateko, independentea izateko eta irizpide propioarekin jokatzeko zailtasuna
Teknika	Jolasa
Materialak	Orriak, bolaluma Testuaren fotokopia, irakurtzeko
Funtsezko alderdiak	
Pertsonak, taldean, mendekotasunaren eta independentziaren arteko oreka aurkitzeko dituen zailtasunei buruzko gogoeta	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Ikasleei binaka jartzeko eskatuko diegu, eta orri bakar bat eta bolaluma bakar bat izan behar dituzte. Hauek dira jarraibideak:<ul style="list-style-type: none">▪ pertsona bakoitzak erraz marraz daitekeen zerbaitetan pentsatuko du;▪ ezin dute elkarrekin hitz egin, ez keinurik edo seinalerik egin, ez eta ukondo kolperik eman, etab;▪ bi pertsonak aldi berean helduko diote bolalumari, eta pentsatu dutena marrazten saiatuko dira.- Gertatu dena talde handian aztertuko dute: marraztu ahal izan dute?, noiz?, non daude lankidetzaren gakoak?, amore eman behar da beti, besteek nahi dutena egin?- Ondoren, bakarka, honako kapitulu hau irakurriko dute: "El miedo a comunicarnos emocionalmente con los demás", PUNSET, ELSA (2008) <i>Brújula para navegantes emocionales</i>, Aguilar, Madril, 116-120. or.- Pertsona bakoitzak interesgarria iruditzen zaion ideia bat azpimarratuko du, eta pertsonaren eta taldearen erlazioaren arteko elkarrizketa egingo da.	



III.9 zk.	<i>Nik eman..., nik eskatu</i>
Deskribapena	Talde honetan egoteak sortzen digun poza areagotuko dugu, eta, aldi berean, taldeko pertsona bakoitzari taldeko kide izateak "merezi duela" sentitzen lagunduko diogu
Teknika	Jolasak
Materialak	---
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Opari baten inguruko jolasak edo gainerako kideei oparitxo bat egitea nahiz gauzekiko atxikitasuna galtzea eskatzen dutenak egiteko, parte-hartzaileek sentsibilizatuta egon behar dute eta elkar ezagutu behar dute. Arretaz egin beharreko jolasak dira, eta beharrezkoa da giroa sotila, sentikorra eta irekia izatea, emozionalki erraz inplikatu ahal izateko.- Garrantzitsua da hizkuntza, giroa eta komunikazio emozionala zaintzea. Pertsona batzuek honelakoak esateko joera dute: "Emango nizuke..."; "edukitzea eta ematea gustatuko litzaidake..."; edo "nik eskatuko nizuke...". Zer desberdintasun dagoen ikusaraziko diegu.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- 1. jarduera: orkestra. 5 pertsonako taldeak egingo ditugu, eta gazteena izango da taldeko zuzendaria. Talde bakoitzak perkusiozko erritmo bat prestatuko du, soinuekin, mugimenduekin eta abarrekin. Prest dagoenean, zuzendariak zirkulu batean jarriko dira, kanporantz begira. Zuzendari bakoitzak bere taldea izango du aurrean, eta prestatu dutena zuzenduko du. Talde bat hasiko da; handik 5"-ra, bigarrena; handik 5"-ra, hirugarrena... Azkenean, talde guztiak beren "erritmoa" aldi berean jotzen ariko dira. Ariketa zailagoa egiteko, eskuinerantz mugituko dira "erritmoak" jotzen dituzten bitartean. Txalo zaparrada handi batekin amaituko dute.- 2. jarduera: "nik eman, nik eskatu". Ikasle bat erdira irtengo da, eta besteek ikasle horrek duen zerbait, beraiei edukitzea gustatuko litzaiekeena, eskatuko diote. Ikasle horrek duen gauza positibo bat izan behar da, eta oparitzeko eskatuko diote. Adibidez: "Zure irudimena eskatzen dizut, zure esku leunak, zure begi distiratsuak, txisteak kontatzeko duzun gaitasuna, jolasterakoan duzun erabakimena". Bestalde, guk dugun zerbait eskain diezaiokegu, berari ondo etorriko zaion zerbait: "nire sentiberatasuna ematen dizut, nire fantasia, jolasa aldatzeko nire gaitasuna", etab. Oso garrantzitsua da itxurakeriarik ez egitea, eta esateko ezer ez duenak isilik gelditzen jakitea. Dinamizatzaileari jolasa hutsaltzen ari dela iruditzen baldin bazaio, etenak egin ditzake. Aldaera: natura-ingurunetik hartutako opari bat bilatzea, pertsona jakin bati emateko, ez talde osoari. Lore bat izan daiteke, harri bat, edo objektu txiki bat. Honelako zerbait esan dezakete oparia ematerakoan: "Hau eman nahi dizut, niretzat esanahi berezia duelako..." edo "zuri ondo etor dakizuke, delako".	



III.10 zk.	<i>Bidezkoa dena eta ez dena: organoak ematea</i>
Deskribapena	Organoak emateko erabakiari buruzko ikerketa xumea egingo dugu, gai horren inguruan duten jarrera pertsonalari buruz pentsatzeko.
Teknika	Ikertzeko ariketa, binaka
Materialak	III.10 tresna
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none">- Konpromisoa, elkartasuna- Eraginkortasuna eta justizia	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Ikerlan pertsonala planteatu baino lehen, III.10 tresnan planteatutako jarduera egingo dugu.- Organoak emateari buruzko ikerlana proposatuko dugu (Interneten begiratzuz edo etxean edo gai hori lantzen duen elkarteren batean galdetuz).	



III.10 tresna. Bidezkoa dena eta ez dena

Hemendik egokitua: SEGURA, M., ARCAS, M.: (4.a-2006) *Relacionarnos bien*, Madril, Narcea, 113. or. eta hurrengoak.

Jolas sozialaren arauak errespetatzen ditut, beste pertsonaren beharrak kontuan izaten ditut, eta nire beharrak planteatzen ditut. Ahal dudan heinean, naizen bezalakoa izanez bizi naiz, izan nahi dudan bezalakoa izanez, eta ez beste pertsona baten autoritatearen edo iritziaren mende beti; pertsona autonomoa naiz, eta nire ustez ondo dagoena hautatzen dut. Dena den, badakit egin ezin ditudan gauzak badirela, beste pertsona batzuei min egin diezaiekedalako edo egindako horren ondorioak niretzat eta nire inguruko pertsonentzat kaltegarriak izan daitezkeelako.

Izan ere, eta garrantzitsua da honetaz jabetzea, irtenbide batzuk seguruak eta eraginkorrak izan arren, aldi berean, bidegabeak izan daitezke: esate baterako, ogitartekoa edo liburua etxean ahaztu bazait eta arazo gutxien sortuko didan pertsonari kentzen badiot, jolasaren arauak errespetatzen ariko ginateke? Ez, konponbidea eraginkorra eta segurua da, baina bidegabea ere bada, arazo bat horrela konpontzean beste arazo handiago bat sortuko baitugu.

Jolasa: bidezkoa-bidegabea.

Taldeetan elkartuta, hainbat kasuren txartelak banatuko ditugu; arkatz markatzaile berde bat emango diegu bidezko egoerak markatzeko, eta gorria bidegabeak markatzeko. Bi multzo egingo ditugu. Amaitzen ari direnean, talde batera hurbilduko gara eta multzo bakoitzetik bi txartel irakurtzeko eskatuko diegu. Ondoren, bateratze-lana egingo dugu. Kasuren bat errepikatzen bada, beste txartel bat hartuko dugu. Azkenean, bideko arauak aukeratu izana txalotuko dugu.



B/Bg Beste pertsona bati buruz ezer txarrrik ez esatea, pertsona hori aurrean ez dagoenean	B/Bg Egia esateko eskatzen digunari egia esatea, zigorra ekarri arren edo atsekabea sortu arren	B/Bg Ardurak banatzea eta etxeko lanetan eta pertsonen zainketan laguntzea
B/Bg Ogitartekoa halakorik ez duen ikaskide edo lagun batekin partekatzea	B/Bg Ospakizun batera gonbidatu zintuen pertsona gonbidatzea zuk ere	B/Bg Zure itsulapikoko dirua uztea etxeko beharretarako
B/Bg Jantziak edo zapatak gaizki erabiltzeagatik apurtzea, beste batzuk erosiko dizkidalakela badakidalako	B/Bg Gutizia bat eskatzea, zure ustez merezi duzulako, nahiz eta ondo dakizun etxean diru gutxi dagoela	B/Bg Beste pertsona baten arropa hartzea, haren baimenik gabe
B/Bg Utzi dizuten zerbait ez itzultzea	B/Bg Pertsonak ezer eskatu gabe zaintzea, beste batzuek atsedean har dezaten	B/Bg Inor ohartu gabe gauza txikiak lapurtzea
B/Bg Lagun bati zu babesteko gezurra esateko eskatzea	B/Bg Norbaiti dirua lapurtzea, eta beste norbaiti botatzea errua	B/Bg Iraindu zaituen pertsona iraintzea
B/Bg Pertsona bat leloa dela esatea, hark lehenago zu leloa zarela esan duelako	B/Bg Irakasleek ondo egin duzun zerbait ez ikustea	B/Bg Lan edo azterketa bat kopiatzea
B/Bg Taldean pertsona bat hertsatzea, ahulagoa dela iruditzen zaigulako	B/Bg Talde-lanean, ahalik eta lan gutxien egiten saiatzea, oharkabean pasatuko delakoan	B/Bg Beti dena egin nahi izatea, besteek lanak gaizki egiten dituztelako
B/Bg Ezer ez uztea lehen niri utzi ez didanari	B/Bg Tu egitea, zikintzea... Garbitzeagatik kobratzen duten pertsonen garbi dezatela!	B/Bg Nirekin gaizki jokatu dutenean, ordaindu egin behar dute, eta, bestela, zerbait apurtuko dut!
B/Bg Beste pertsona baten sentimenduen edo beste pertsona batek kontatutako zerbaiten aurrean barre egitea	B/Bg Sekretuak gordetzea edo lagunaren arteko kontuak isilpean gordetzen jakitea	B/Bg Kexatzen den pertsonaren edo sufritzen duenaren aurrean "zerbait egingo zuen" pentsatzea
B/Bg Zure gauzak ez uztea, ezta telebistaren aldagailua ere!	B/Bg Aurrean dagoen pertsonaren arabera, iritzi edo irizpidez aldatzea, ondo gelditzea	B/Bg Norbaitek izorrratu nauenean, mendeku hartzea
B/Bg Pertsona bati beste pertsona bati buruzko gauza txarrak esatea, haren adiskidetasuna neureganatzeko	B/Bg Irakasleekin hitz egitea, gustura ez zaudenean edo beste zerbait merezi duzula uste duzunean	B/Bg Irakasleek "EZ" esatea, eskaera ondo arrazoituta eta justifikatuta egon arren
B/Bg Modu batera edo beste batera jokatzeko eta hori defendatzea, "emakumeen edo gizonen gauzak direlako"	B/Bg Pertsona bati zerbait eskatzea, hori eskaintzen zidala pentsatzen nuelako	B/Bg Pertsona bat arraroa dela pentsatzea, gehiengoak egiten duena egiten ez duelako
B/Bg Sufritzen duten eta negar egiten duten pertsonak ahulak dira	B/Bg Pertsona bakoitzak bereari aurre egin behar dio, erantzukizunari ihes egin gabe	B/Bg Beste pertsonari eskerrak ematea, zurekin dituzten adeitasun-seinaleengatik
B/Bg Jendearen gaitasunak eta gauza onak azpimarratzea	B/Bg Jendearen akatsez barre egitea, eta haien ahuleziez probetxu ateratzea	B/Bg Niretzako denbora bilatzea, horretarako norbaiti "EZ" esan behar badiot ere



LE/III.1	Filmetarako moduko gidoia
Deskribapena	Filmetarako moduko gidoi bat egingo dugu, eta, nagusiki, desberdina denaren edo ezagutzen ez dutenaren aurreko beldurra landuko dute. Enpatiazko ariketa bat egingo dute emigratzen duen jendearekiko, lagunak, eskola, ohiturak, klima, etxea, etab. aldatu behar dituzten pertsonekiko.
Teknika	Talde txikietan: filmetarako moduko gidoia
Materialak	LE/III.1 tresna
Funtsezko alderdiak	
Honako hauek egin behar dituzte: <ul style="list-style-type: none">- Beldur motak eta ezezagunaren aurrean beldurra sortzen duten egoera berriei aurre egitearen ondorioak bereizi behar dituzte.- Enpatia landu behar dute, euren borondatearen aurka emigratu beharrean dauden adin bereko pertsonen aurrean.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Film baterako gidoi bat egin behar dute: 14 urteko neska bat da protagonista, eta beste herrialde batera emigratu behar du, bere familiak lana aurkitu duelako herrialde horretan.- 5 pertsonako taldeetan, gidoi bat prestatuko dute, LE/III.1 tresnan zehaztutako jarraibideetan oinarrituta.- Gidoia amaitutakoan, gainerako taldeen aurrean irakurriko dute, eta errealitatera egokitzen den edo fikziozko film bat den aztertuko dute.	



LE/III.1 tresna. Filmetarako moduko gidoia

Talde bakoitzak film baterako gidoi bat prestatuko du. Gidoiak hasiera bat du, eta zuen taldean jarraipena idatziko duzue (filmaren garapena), eta baita amaiera ere (filmaren askaera)

Etxea utzi behar zuen neska

Hasiera:

14 urteko neska bat triste dago, oso triste. Anna du izena. Gainera, oso beldurtuta dago, eta ezin dio beldur horri aurre egin. Gauetan izaten du beldur gehien. Institutura joaten denean, tristea iruditzen zaio dena. Ezagutzen ez duen herrialde batera alde egin behar du bere familiak, eskolan behin aipatu zuten herrialde batera; telebistak ere aipatzen du noiz edo noiz. Baina berari, orain arte, berdin zitzaion non zegoen eta nolakoa zen herrialde hori. Herrialde horretan lan egiteko aukera duelako joango da bere familia hara. Berari ez dio inork galdetu ea joan nahi duen, baina joan egin behar du. Nolakoa izango da institutu berria?, zer egingo du bere adineko jendeak aisialdian?, zer jango dute?, nola jantziko dira?, haien gustukoa izango da?, nola hitz egingo dute?, nola jokatu beharko du?, nola usainduko du herrialde horrek?... Milaka galdera dabilzki buruan. Pentsatzen duen bakoitzean gehiago beldurtzen da, beldur izugarria sentitzen du!!! Zergatik? Zergatik? Zergatik joan behar du?

Asteak igaro dira, beldur da oraindik, eta une honetan aireportuan daude.

Garapena:

Zati honetan, Annak dituen beldurrei buruzko istorio bat asmatu behar duzue: zer-nolako beldurrak ditu Annak? Nola garatuko dira bizitoki berrian, eta zer sentimendu izango ditu bizitoki berria eta hango pertsonak ezagutzen dituen bitartean?

Amaiera:

Atal honetan, istorioa amaituko duzue. Askaerak ahalik eta errealistena izan behar du; zer gertatu da Annaren beldurrekin?

Orain, talde handian partekatuko ditugu emaitzak. Hautatu zuen taldeko pertsona bat gidoia irakurtzeko.



LE/III.2	Beldurrari abestuko diogu
Deskribapena	Jarduera honetan, beldurraz hitz egiten duten abestiak bilatuko ditugu, eta abesti horien letrak interpretatzen saiatuko gara.
Teknika	- Abestien azterketa
Materialak	LE/III.2 tresna - Ken Zazpi: Bidean. - Asghart: Zeren beldur: http://www.youtube.com/watch?v=GZSzhu1icfU Denboraren hautsa: http://www.youtube.com/watch?v=INCBhsFSORc&feature=related
Funtsezko alderdiak	
Honako hauek egin behar dituzte: - Beldur mota desberdinak ezagutu. - Abestu ohi ditugun abestien zentzua aztertu.	
Garapena	
- Beldur motaren batez hitz egiten duten abesti ezagunak bilatuko dituzte. Aurkitzen ez badituzte, LE/III.2 tresnan ageri direnak emango dizkiegu. - Eskolan abestuko dituzte, eta abestietan agertzen den beldurraren zentzua ulertzen saiatuko gara: zer beldur mota da?	
Sakontzeko	
Mikel Urdangarin / Zaharregia, txikiegia agian http://www.youtube.com/watch?v=7ean9jOkrWI	
Beldurgarriak barregarri euskaraz http://www.youtube.com/watch?v=ZBAbEk-FQzE&NR=1	



LE/III.2 tresna. Beldurraren inguruko abestiak

KEN ZAZPI

BIDEAN

Ba al daki inork bereizten
zerua eta infernua
nor dagoen sufritzen eta
nork daukan errua

eta ba al dakizu zuk bereizten
malkoen arrazoian
sentimenduen zergatia
bakoitzaren egia
erantzunen beldur zara!
behar diren galderak egitean
uste usainak dena estaltzean
erantzunen beldur zara
noren beldur zara

ez al daki inork bereizten
albisteen kolorea
boteretsuen armak eta
etorkinen gosea
eta ba al dakizu zuk bereizten
hitz bakoitzaren zentsua
inoiz galtzen ez dutenen aurpegi faltsua
erantzunen beldur zara
noren beldur zara

ba al dakizu inork bereizten
nahi dugunaren pisua
dena dutenen pisua
dena hutsen mezua
gauzak aldatzeko beharra
sarrailak bidean
begiak ireki behar dira
kolpe ta kolpe artean bidean
gauzak aldatzeko gogoa mina zaurietan
begiak ireki behar dira
horma zaharren aurrean

itsu eta isilik egotera errazagoa da
haien gurpilen sartzea hain eroso da
eta zailena
amets ez egitea
gu geu izanda
aurea eginez
gure bidean



LE/III.2 tresna. Beldurraren inguruko abestiak (jarraipena)

ASGHART ZEREN BELDUR

Hei! Garraxi egin nahi det inorrek
entzun ez arren.
Hei! horrela behar det barruak lehertu baino lehen.
ze erraz ikusten dugun lastoa bestearen begietan,
kritikak egiten gozatzen dute, baina ni
ez naiz holakoa.

Eta zertarako itxura faltsua?
inor ez da inor baino gehiago.
Nola dezakezu begiratu ispiluan?
pertsona faltsu, burugogorra!

Ze hipokrita zaren mintzatzen lagun artean:
"Ni naiz liberalena maitasunaren kontuetan.
Baian ezberdin direnei ez naiz
gerturatzen ere,
ea pinpilinpauxa horretatik zeozer
pegatzen zaiten".

Baina nik ez dut inolako minik egin,
zeren beldur dira?
Maitasunaren bidea zabala da,
aukeratu.

DENBORAREN HAUTSA

Kale kantonian euriaren amorruek
itsutzen naute.
Tren geltokian erlojurik gabe daude.

Gauak ematen ditut esanahi,
denbora noiz gelditu zai,
heriotza sentituz nonahi.

Beldurrez...

Iraganak irentsitako denbora
behatzen artean usteltzen da
eremuko hondartzen zulo beltzetan
hautsa bihurtzen.

Iluntasunak bere begien orratzez, erruki gabe,
ni besarkatzen nau erraiak desegin arte.

Iluntasuna nigana iristean
izarren hautsa egun batean
mugaren bestaldean aurkituko naiz.
Izarren hautsa.




PP/III.1	<i>Ametsetatik errealitatera</i>
Deskribapena	Jarduera honetan, parte-hartze proiektuaren lanketarekin jarraituko dugu, eta amaitu egingo dugu. Hasierako zatian, lan-taldeak egin zituzten, garatu nahi duten gaia hautatu zuten eta bizikidetzaz-arauek ezarri zituzten. Ondoren, proiektuaren egingarritasuna aztertu zuten; orain, proiektuaren ezaugarriak zehaztu dituzte, proiektua aurrera eramateko egingo dituzten ekintzak antolatuko dituzte, eta ebaluazioa ere zehaztu dute.
Teknika	Errealitatearen azterketa.
Materialak	- PP/III.1.1, PP/III.1.2, PP/III.1.3, PP/III.1.4 eta PP/III.1.5 tresnak.
Funtsezko alderdiak	
Irakasleok argi izan behar dugu ariketa honetan ekintzak nola sekuentziatu behar diren. Hauxe egin behar dute: <ul style="list-style-type: none">- Egin nahi dena zehaztu.- Produktuen eta emaitzen plangintza egiteko ekintza-planak garatu.	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none">- Aurreko fasean zer egin genuen gogoratuko dugu, eta zer unetan gauden aztertuko dugu (PP/III.1.1 tresna).- Lehenengo saioan, PP/III.1.2 tresna landuko dugu; bigarren saioan, PP/III.1.3 tresna; eta, azkenekoan, PP/III.1.4 eta PP/III.1.5 tresnak.	



PP/III.1.1 tresna. Proiektu parte-hartzailea

Eskailera honen bitartez, proiektu parte-hartzailea eraikitzeko jarraituko dugun plangintza-prozesua irudikatuko dugu. Maila bakoitzak hainbat jarduera, gogoeta, ahalegin, esperientzia, etab. hartzen ditu, eta lagungarri gertatuko zaizkizu hurrengo mailara igotzeko. Zer egingo dugun pentsatuko dugu, maila bakoitzean zer lortu beharko genukeen, nola antolatu beharko ginatekeen, etab. Eta, aurrerago, gure proiektua abiaraziko dugu. Orain, azken mailak landuko ditugu, gure proiektua nolakoa izango den diseinatzen lagunduko digutenak.





PP/III.1.2 tresna. Ametsen saskia

Ingurua aztertu ondoren eta proiektua aurrera eramatea merezi duela erabaki ondoren, nolakoa izango den zehatzago pentsatu behar dugu. Fitxa honekin, gure ametsa ikusten hasiko gara. Hirugarren maila!



Aztertu beharreko alderdiak:

Nola imajinatzen dugu gure ideia? Zer ezaugarri ditu? Bat al datoz taldekide guztien ideiak?

NOLAKOA IZANGO DEN ERABAKIKO DUGU

Argi al daukagu zer lortu nahi dugun gure proiektuarekin? HELBURUA ZEIN DEN ERABAKIKO DUGU

Gure proiektua nori zuzentzen zaion pentsatuko dugu, ONURADUN ZUZENAK non aurkituko ditugun, eta nori eragingo dion: ZEHARKAKO ONURADUNAK

Proiektuan, zer gauza ekoitziko ditugu?: proiektua garatzen dugun bitartean sortuko ditugun PRODUKTUAK

Ez ahaztu eskuratzen duzun informazio guztiarekin txosten bat egin behar duzuela. Txostenak politagoak izaten dira argazkiak, eskemak, marrazkiak, grafikoak, etab. txertatzen baditugu. Hirugarren maila honetan, lortu al duzue gure ideari eta ametsari forma ematea?



PP/III.1.3 tresna. Nondik hasiko gara?

Laugarren mailan gaude ia, argiago dugu zer egin nahi dugun, baina, jakina, gure ametsa lortzeko egin behar ditugun gauzetan pentsatzen hasi behar dugu eta ordenatu egin behar ditugu. Aurrera!

Lortu beharreko alderdiak:

Zer egin behar dugu gure ideia garatzeko? JARDUEREN zerrenda.

Nola antolatu eta sekuentziatu behar ditugu jarduerak? Jarduerak egiteko uneko ANTOLAMENDUA

Ez ahaztu eskuratzen duzun informazio guztiarekin txosten bat egin behar duzuela. Txostenak politagoak izaten dira argazkiak, eskemak, marrazkiak, grafikoak, etab. txertatzen baditugu. Jarduerak esaten digute nondik hasi behar dugun oinez.





PP/III.1.3 tresna. Nondik hasiko gara? (jarraipena)

Jardueren kronograma: taula honetan, zuen jarduerak txerta ditzakezue, beroriek garatuko diren denbora-sekuentziaren arabera. Egingo ditugun jarduerak egutegiaren arabera antolatzeko modu bat da, eta horrela beti jakingo dugu zer egin behar dugun, zer egin dugun eta aurrera begira zer egin beharko dugun.

Jarduera	1. eguna edo hilabetea	2. eguna edo hilabetea	3. eguna edo hilabetea	4. eguna edo hilabetea	5. eguna edo hilabetea	6. eguna edo hilabetea	7. eguna edo hilabetea	...
1. jar.								
2. jar.								
3. jar.								
4. jar.								
5. jar.								
6. jar.								
7. jar.								
8. jar.								
9. jar.								
10. jar.								
11. jar.								
12. jar.								
13. jar.								
14. jar.								
15. jar.								
16. jar.								
...								





PP/III.1.4 tresna. Nola eta norekin egingo dugu?

Bosgarren mailara iritsi gara, gutxi falta zaigu gure proiektua diseinatzen amaitzeko. Atal honetan, gure proiektua egiteko zer erabiliko dugun eta nork parte hartuko duen erabaki behar dugu:

Zer baliabide material behar ditugu? (papera, kartoi meheak, patatak...)

Zer azpiegitura behar dugu? (ordenagailuak, mahaiak, ikasgela, parkea...)

Dirua behar dugu? Nondik aterako dugu? (diru-laguntzak, zozketak, izen-emateak, marka komertzial baten babesak...)

Nork hartu behar du parte proiektuaren garapenean?

- **Arduradunek (erantzukizunak zehaztu eta banatu):**

- **Zereginak gauzatuko dituzten pertsonak (identifikatu eta zereginak banatu):**

- **Beste batzuek (zehaztu nor diren eta nola parte hartzen duten: esate baterako, une jakin batean laguntzen duten pertsonak):**





PP/III.1.5 tresna. Zer moduz joan da gure proiektua?

Ebaluazioaren zatia da hau, proiektua abiarazi aurretik landu beharreko azkena. Proiektu guztiak balioetsi behar dira, prozesuaren indarguneak eta ahuleziak zein izan diren ezagutzeko. Hurrengo puntua aurreratzeko edo prozesua behin betiko ixteko modu bat da. Jarduera guztiak amaitutakoan egingo badugu ere, orain zehaztu behar dugu zer ebaluatuko dugun.

Ebalua dezagun

Nahi genuena lortu dugu? Zergatik?

Gure proiektuak lehenago zegoen eskaeraren bati erantzun dio? Zeini?

**Prestatutako jarduera guztiak egin ditugu? Zergatik? Zer balioespen emango diogu?:
Altua-tartekoa-baxua**

Guk nahi genuen jendeak parte hartu du?

Behar genituen baliabide guztiak lortu eta erabili ditugu?

Lan-taldeak bere erantzukizun eta zeregin guztiei erantzun die? Zer balioespen egiten dugu lan kooperatiboaz?: altua-tartekoa-baxua

Hauek dira ondo atera diren alderdiak:

Hauek dira hobetu beharreko alderdiak:

5. ERREFERENTZIAZKO MATERIALAK, DOKUMENTUAK ETA LOTURAK

Giza Eskubideetarako Hezkuntza eta Bake Hezkuntza

BATZUK (2008): *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak-La convivencia y los conflictos en el ámbito escolar*. Ararteko, Vitoria-Gasteiz.

BELTRAN, Esteban (2009): *Derechos torcidos*. Debate, Bartzelona.

BOLIVAR, Antonio (2007): *Educación para la ciudadanía. Algo más que una asignatura*. Graó, Bartzelona.

GALTUNG, Johan (1998): *Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución*. Bakeaz-Gernika Gogoratuz, Bilbo.

INNERARITY, Daniel (2004): *La sociedad invisible*. Espasa Calpe, Madril.

JARES, Xesús R. (1999): *Educación y Derechos Humanos*. Popular, Madril.

LEDERACH, John Paul (2007): *La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de la paz*. Bakeaz-Gernika Gogoratuz, Bilbo.

MAIZTEGUI, Concha; EIZAGUIRRE, Marlen (2008): *Ciudadanía y educación: de la teoría a la práctica*. Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

MARCHENA GOMEZ, Rosa (2005): *Mejorar el ambiente en las clases de secundaria*. Aljibe, Malaga.

MARINA, José Antonio; BERNABEU, Rafael (2007): *Competencia social y ciudadana*. Alianza editorial, Madril.

MARINA, José Antonio (2008): *Educación para la ciudadanía, ESO*. SM, Madril.

MARINA, José Antonio (2009): *El aprendizaje de la sabiduría*. Ariel, Bartzelona.

MARTIN, Xus; PUIG ROVIRA, Josep M. (2007): *Las siete competencias básicas para educar en valores*. Graó, Bartzelona.

MONCLUS, Antonio; SABAN, Carmen (koord.) (2008): *Educación para la paz. Enfoque actual y propuestas didácticas*. Ceac, Bartzelona.

PUIG ROVIRA, Josep M. (2006): *La tarea de educar*. Octaedro, Bartzelona.

VAELLO ORTS, Juan (2007): *Cómo dar clase a los que no quieren*. Santillana, Madril.

Heziketa emozionala

ARITZETA, Aitor; PIZARRO, Maribel; SOROA, Goretti (2008): *Emozioak eta heziketa*. Erein, Donostia.

JAUREGI, Pello; HUEGUN, Asier (2005): *Sentitu*. Utriusque Vasconiae, Donostia.

MARINA, José Antonio (2006): *Anatomía del miedo. Un tratado sobre la valentía*. Anagrama, Bartzelona.

PUNSET, Elsa (2008): *Brújula para navegantes emocionales*. Aguilar, Madrid.

TORO, José María (2005): *Educar con "co-razón"*. Desclée de Brouwer, Bilbo.

Sexua - generoa sistema

ALBERDI, Cristina (2000): *Una nueva forma de ver el poder. El empoderamiento*.

ASTELARRA, Judith (2004): *El papel político de la Mujer*.

ALVAREZ, Paloma (2001): *Generando Igualdad. Guía para la incorporación del enfoque de género en actuaciones y programas*. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz.

Fundación Mujeres (2004): *Empoderamiento, Día Internacional de las Mujeres*. Bilboko Udaleko Emakumearen Udal Zerbitzua.

LARGARDE, Marcela (2000): *Claves feministas para la autoestima de las mujeres*. Horas y horas. Madrid.

MURILLO, Soledad (1996): *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*. S. XXI. Madrid.

NIETO, Antonio (1999): *Estereotipos de género*. Ed. Comissao para a Igualdade. Lisboa.

PARTE HARTUZ (2003): *Demokrazia parte-hartzaileari buruzko jardunaldiak*. EHU. Bilbo.

SEGARRA, Maria; CARABÍ, Angels; SAU, Victoria... (et al) (2000): *Nuevas masculinidades*. Icaria.

VALLE, Teresa del (koord.) (2002): *Modelo emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Narcea.

Dinamizazioa eta parte-hartzea

- ANDER-EGG, Ezequiel (1993): *Metodología y Práctica de la Animación Sociocultural*. Editorial CCS.
- ANTONS, Klaus (1986): *Práctica de la dinámica de grupos*. Ed. Herder. Bartzelona.
- ANTUNES, Celso (1975): *Técnicas pedagógicas de la dinámica de grupo*. Ed. Kapelusz. Buenos Aires.
- ARANDIA, Maite; FERNÁNDEZ, Idoia; RUIZ DE GAUNA, Pilar; MARAÑÓN, José Luis; GÓMEZ, Juanjo (2002): *Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila: ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat*, in *Soziologiako Euskal Koadernoak*, 9. zk. Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteiz.
- APODAKA, Eduardo (2004): *Komunikazioaren gizarte psikologia*. UEU, Bilbo.
- AYESTARAN, Sabino (1996): *El grupo como construcción social*. Plural. Bartzelona.
- BANDURA, Albert (2001): *Social cognitive theory: An agentic perspective*. *Annual Review of Psychology* 52.
- BARRAGAN, Fernando (2004): *Violencia de género y curriculum*. Aljibe.
- BEAUCHAMP, D.; GRAVELINE, R. eta QUIVIGER, C. (1985): *Cómo animar a un grupo*. Sal Terrae. Santander.
- BLAS, Asier eta IBARRA, Pedro (2005): *La participación: estado de la cuestión*. Hegoa. Cuadernos de Trabajo. Bilbo.
- BRU MARTÍN, Paloma (2001): *La Investigación-Acción-Participativa*. Jornadas de Trabajo Comunitario: Metodología Participativa. Universidad de La Laguna.
- BUSTOS, Cristina eta MORENO, Antonio (2001): *Taldeak. Nola lan egin elkarrekin, errietan hasi gabe*. Espalari Fundazioa. Bilbo.
- COSTA CABANILLAS, Miguel eta LÓPEZ MÉNDEZ, Ernesto (1994): *Manual para el Educador Social*. Gizarte Gaietarako Ministerioa. Madril.
- ENCINA, Javier eta ROSA, Montse (2004): *Democracias participativas desde las praxis locales*. Sevilla.
- EQUIPO CLAVES (1994): *Gestión participativa de las asociaciones*. Ed. popular. Madril.
- EQUIPO CLAVES (1994): *Aprendiendo a organizar nuestra asociación*. Ed. Popular. Madril.
- ESPADA, José Pedro (2001): *Técnicas de grupo*. CCS. Madril.

- EUSKO JAURLARITZA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (2008): *Herritarren parte-hartzea: Gida didaktikoa*. Vitoria-Gasteiz.
- FABRA, María Luisa (1994): *Técnicas de grupo para la cooperación*. Ed. Ceac. Bartzelona.
- FABRA, María Luisa (1996): *Ni resignadas ni sumisas: Técnicas de grupo para socialización asertiva de niñas y chicas*. UAB. Bartzelona.
- FRANCIA, A. eta MATA, J. (1992): *Dinámica y técnicas de grupos*. Ed. Humanitas. Buenos Aires.
- FRITZEN, Silvino Jose (1996): *70 ejercicios prácticos de dinámica de grupos*. Sal Terrae. Bilbo.
- GARCÍA, Dora (2001): *El grupo. Métodos y Técnicas Participativas*. Espacio Editorial. Buenos Aires.
- JIMÉNEZ HERNÁNDEZ-PINZÓN, F. (1991): *La comunicación interpersonal: ejercicios educativos*. Publicaciones ICCE. Madril.
- LOPEZ-YARTO ELIZALDE, Luís (1999): *Dinámica de grupos. Cincuenta años después*. Desclée de Brouwer. Bilbo.
- MACHO, Pedro José (2002): *Giza Taldeak eta taldearen barne dinamikak*. Erein. Donostia.
- NEWSTROM, J. W. eta EDWARD E. SCANNELL (1989): *100 Ejercicios para la dinámica de grupo*. Mexiko.
- NUÑEZ, Trinidad eta LOSCERTALES, Felicidad (1997): *El Grupo y su eficacia. Técnicas al servicio de la dirección y coordinación de grupos*. EUB. Bartzelona.
- PASCUAL PACHECO, R. (1985): *Función directiva en participación*, in *Revista Educadores*, 27. lib., 131, urtarrila-otsaila. 45-60. or. Madril.
- RIVA, Fernando de la, eta SOLO DE ZALDIVAR, Pablo (2001): *Batzarrak. Nola bukatu behin betiko batzar gogaikarriekin*. Esplai Fundazioa. Bilbo.
- SAINT-ARNAUD, I (1981): *Participación y comunicación en los grupos*. Anaya. Madril.
- SANCHEZ ALONSO, Manuel (1991): *La participación. Metodología y práctica*. Ed. Popular. Madril.
- TREVITHICK, Pamela (2002): *Habilidades de Comunicación en intervención social*. Narcea. Madril.
- TRILLA, Jaume (1998): *Animación sociocultural. Teorías, programas y ámbitos*. Ariel. Bartzelona.
- VARGAS, Laura; BUSTIRLLOS, Graciela eta MARFÁN, Miguel (1995): *Técnicas participativas para la educación popular*. Ed. Popular. Madril.

Aipatutako loturak

<http://b06elkarbizitzamintegia.wikispaces.com/Lan+kooperatiboa>

[http://blog.educastur.es/marianmoreno/marian moreno](http://blog.educastur.es/marianmoreno/marian%20moreno)

<http://blog.eitb24.com/adimenemozionala/>

<http://es.surveymonkey.com/>

<http://vimeo.com/32735173> Egunon printseza, Ibai Pujana.

<http://www.artefinal.com>

<http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuzdt/eu/>

<http://www.cife-ei-caac.com>

http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_23/CARMEN_JURADO_GOMEZ02.pdf

<http://www.eclac.cl/mujer/proyectos/perfiles/default.html>.

<http://www.educacion.gob.es/dctm/ministerio/educacion/actividad-internacional/cooperacion-educativa/2009-ponencia-20-pere-pujolas.pdf?documentId=0901e72b8008ba70>

http://www.educastur.es/media/publicaciones/apoyo/guia_participacion.pdf

<http://www.elsapunset.com/articulos/info/libros-5-a/>

<http://www.emakunde.es>

<http://www.encuestafacil.com/>

<http://www.generourban.org>

<http://www.hegoa.ehu.es>

<http://www.junta-andalucia.es>

<http://www.kaidara.org>

<http://www.mujeresred.net>

<http://www.nodo50.org/mujeresurbanistas/>

<http://www.pangea.org>

<http://www.partehartuz.org>

http://www.revistaeducacion.mec.es/re349/re349_11.pdf

<http://www.singenerodedudas.com>

<http://www.slideshare.net/bgune20/pere-pujols-lan-kooperatibo>

http://www.um.es/depmide/RIE/completa/documentos/21-1/21_1_art1.pdf

<http://www.un.org/spanish/aboutun/hrights.htm>

<http://www.uned.es/educacionXX1/pdfs/10-03.pdf>

http://www.unescoeh.org/dokumentuak/ABC_DDHH.pdf

http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/k2crc_sp.htm

http://www.youtube.com/watch?v=Njxd5V_dgXo

<http://www.zubiakerakitzen.org>

<http://www2.elkarrekin.org/elk/bizizikidetzagida>